


Nafarroa eta euskara



Euskararen tratamendua Sanzen garaian. Kronologia

ALBERTO BARANDIARAN



Hizkuntza Politika Nafarroan. JOSE LUIS MENDOZA



Euskara Nafarroan atzo eta gaur. JOSE MARIA SATRUSTEGI



Iritzi bilketa

Euskarak Nafarroan bizi duen egoeraz hamabi iritzi

Gure iritziz

Jakin-en iritzia eta jarrera erasoen aurrean

Egunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

JAKiN

135

martxo
apirila
2003




Aldizkari hau ARCEko kidea da
(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Zenbaki honetan

► 7

Gure iritziz

Erasoak eraso ► 9
JAKIN

Gai nagusia

Nafarroa eta euskara

Euskararen tratamendua Sanzen garaian.
Kronologia (1999-2002) ► 21
ALBERTO BARANDIARAN

Hizkuntza Politika Nafarroan (1999-2002) ► 49
JOSE LUIS MENDOZA

Euskara Nafarroan atzo eta gaur ► 73
JOSE MARIA SATRUSTEGI

Iritzi bilketa: Euskararen egoera Nafarroan ► 83
GONTZAL AGOTE / MIKEL ALDASORO / SAGRARIO ALEMAN /
DABID ANAUT / MIKEL ARREGI / MIKEL BUJANDA /
AINGERU EPALTZA / ANDRES IÑIGO / JOSE ANGEL IRIGARAY /
MARIPAZ ITURBE / PAULA KASARES / IÑAKI LASA

Ēgunen gurpilean

JOSEBA BALERDI • LAURA MINTEGI ► 135
• IÑAKI MARTINEZ DE LUNA • AMATIÑO

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia


Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

jakin@jakingunea.com

2003ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	39 €	—
Ale arrunta	6,50 €	8,40 €
KANPOAN		
Harpidetza	42 €	—
Ale arrunta	7 €	9,60 €

Summary



Despite the attacks

Following the judicial-police intervention experienced by *Euskaldunon Egunkaria* —the only Basque language daily— on the 20th of February and which also directly affected this magazine —the arrest of its editor Joan Mari Torrealdai, who was released twenty four days later, and the confiscation of diverse documents and computer-related material—, *Jakin* reflects on the objectives and consequences of this vast operation. On the one hand, this attack has been an attempt to dismantle the main fabric of the written media in the Basque language and, on the other, we may to highlight the large-scale social, cultural, trade union, political and institutional response in favour of *Egunkaria*. Apart from this firm reaction, and basing our ideas on the current *Egunkaria* project and working group, we may look forward to the setting-up and appearance of a new daily in the Basque language. *Jakin* is committed to this, and we ultimately reaffirm what has been and what will continue to be our main guiding principle: that of providing Basque culture and thought with its own free, autonomous niche with regard to politics and economics. ► JAKIN



Navarre and the Basque language

- *Treatment of the Basque language in the Sanz era. Chronology (1999-2002)*

The journalist Alberto Barandiaran provides us with a chronological account of the last four years in which the Regional Government of Navarre has been carrying out a linguistic policy whose main aim is to undermine and reduce the public presence of the Basque language in Navarre. Yet we may also read in Barandiaran's account that this policy has given rise to a firm response on the part of sectors who are in favour of promoting the Basque language.

► ALBERTO BARANDIARAN

- *Linguistic policy in Navarre (1999-2002)*

Professor Jose Luis Mendoza analyses the details of the linguistic policy put into practice by the Regional Government of Navarre in the last four years, focusing both on the values underlying said policy and its most immediate aims. In short, Mendoza makes us aware of the principles and putting into practice of the new discourse used by the UPN (the ruling party in the Regional Government of Navarre) regarding the Basque language. ▶ JOSE LUIS MENDOZA

- *The Basque language in Navarre, yesterday and today*

The ethnographer and member of the Basque Language Academy Jose Maria Satrustegi, who recently died, pinpoints the keys to the current linguistic policy in Navarre in its just social and historical context. Thus, his study is an attempt to understand the current situation as regards the Basque language in Navarre from an analysis of its historical evolution since the Middle Ages. ▶ JOSE MARIA SATRUSTEGI


- *Opinions regarding the situation of the Basque language in Navarre*

The magazine has focused on a dozen cultural and social agents from Navarre who work in the sector of Basque language and culture, with the aim of gathering together their opinions regarding the current situation of the Basque language in Navarre. In particular, the questions which they have been asked revolve around the following three points: an assessment of the linguistic policy exercised by the Regional Government of Navarre in the last few years and its consequences in the short, medium and long term; an assessment of the response to this policy which is being provided by the Basque cultural sector; an approach along general lines of the strategy which must be pursued in the future in order to counteract the steps taken by this linguistic policy. ▶ *Various Authors*



News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Joseba Balerdi, Iñaki Martínez de Luna, Amatiño and Laura Mintegi. ▶ *Various Authors*



e skuetan duzun hau bigarren aldiko 135. zenbakia da eta 2003. urteko bigarrena.

Jakina denez, otsailaren 20an *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurka burututako eraso judizial-polizialak zuzen-zuzenean ukitu zuen *Jakin* aldizkaria ere: Joan Mari Torrealдай *Jakin*-eko zuzendaria atxilotu zuten eta hainbat dokumentu eta material informatiko konfiskatu. Ia bi hilabete igaror ondoren, operazio horren inguruan piztutako auziei buruzko zenbait gogoeta jasotzen ditu *Gure iritziz* atalean eskaintzen dizuegun «Erasoak eraso» editorialak: operazioaren izaera estrategikoa, *Egunkaria*-ren ixtea, bestelako enpresek eta *Jakin*-ek izandako kalteak, atxilotuek jasandako tratu txar eta torturak, langileen eta gizartearen erantzuna, egunkari berria egiteko proiektuaren finkapena... Azken buruan, erasoak eraso, orain arteko ildo beretik euskal kulturgintzaren alorrean aurrera egiteko borondatea eta erabakia berresten ditu *Jakin*ek, bere ibilbide luzean erakutsi duen autonomia ziurtatuz.

Zenbaki honetako *Gai nagusia* euskarak Nafarroan bizi duen egoera da. Izan ere, Nafarroako Gobernuaren azken urteotako hizkuntz politikaren jarrera erasotzaile eta baztertzatzaileak aurrekari historiko gutxi ditu Nafarroako historian. Bestalde, ordea, politika horrek nafar gizarteko sektore euskaltzaleen erantzuna ekarri du. Hizkuntz gatazka, beraz, inoiz baino biziagoa da Nafarroan. Lau atalek osatzen dute sail hau. Lehenik hiru artikuluko datoz, eta, ondoren, gai nagusiaren inguruan burututako iritzi bilketa

bat. Aipatzekoa da otsailaren 20ko operazioa gertatu baino lehen planteatu genuela gai hau. Horrela, era berean, ordurako zenbaki honetako ia lan guztiak jasota genituen.

Lehenengo artikuluan, Alberto Barandiaranek Nafarroako Gobernuaren hizkuntz politikak azken lau urteotan euskarari eman dion trataeraren kontaketa kronologikoa eskaintzen du. Artikuluan zehar, helburutzat euskararen desagerpen publikoa sustatzen duen hizkuntz politikaren garapena aurkezten da; eta, horrekin batera, euskaltzaleek politika horri emandako erantzunaren gorabeherak.

Bigarrenean, Jose Luis Mendozak hizkuntz politika horren printzipio eta helburu behinenen azterketari ekiten dio. Azken buruan, azken legegintzaldian euskararen gaineko UPNren diskurtso berriak izan duen sorrera eta eboluzioa ezagutarazten dizkigu Mendozak.

Hirugarren artikuluan, duela egun batzuk zendu zaigun Jose Maria Satrustegik gaur egungo gobernuaren hizkuntz politikaren gakoak testuinguru sozial eta historiko zabalagoak aztertzen ditu, Erdi Arotik aurrera euskarari buruzko politikak Nafarroan izan dituen ezaugarri nagusiak nabarmenduz. Satrustegiren heriotzak *Jakin*eko kideoi ekarri digun tristura eta atsekabea adierazi nahi dugu hemen, eta, aldi berean, hil baino egun batzuk lehenago igorri zigun artikulua argitaratuz, kulturgile eta euskaltzale handiari gure omenaldi xumea eskaini.

Sail honetako azken atalean, Nafarroako kulturgintza eta euskalgintzako hainbat lagunengana jo dugu hizkuntz politika horrek ekar ditzakeen eragin eta kalteen eta aurrera egiteko eman beharko litzaiokeen erantzunaren inguruko iritzia eskatuz. Azkenean, hamabi erantzun jaso ditugu guztira.

Egunen gurpilean saileko orrialdeetan, ohi bezala, kultura, literatura, soziolinguistika eta komunikazioaren inguruko berriak dituzte aipagai, estilo arin eta bizian, Joseba Balerdik, Laura Mintegik, Iñaki Martinez de Lunak eta Amatiñok.¶



JAKIN

Erasoak eraso

Otsailaren 20ko *Euskaldunon Egunkaria*-ren aurkako erasoaren inguruko eta ondorengo gertakariak ezagunak dira. Ez daukagu horiek denak berriz gogoratzen jardun beharrik. Baina badugu horiei buruz geure gogoeta egin nahia eta beharra.

Ezaguna da, gainera, eraso judizial-polizialak, *Egunkaria*-rekin batera, *Jakin* aldizkaria bera ukitu zuela zuzen-zuzenean —beste zenbait kultur erakunde bezala: *Argia*, *Plazagunea*, GIE, *Euskalgintza Elkarlanean Fundazioa*—.

Jakin-en zuzendaria bera, Joan Mari To realdai —beste bederatzi lagunekin batera—, erdi-erdian harrapatu zuen operazioak: gauerdiko atxiloketa gogorra etxeko atea puskatuz; etxeko eta *Jakin*-en bulegoko miaketa luzeak; dokumentuen eta bestelako idazki askoren inkautazioa; Zuzendariaren eskuko ordenagailuaren eta beste bi disko gogorren inkautazioa —azken bi hauek hurrengo egunean itzuli zituzten, baina ordenagailua ez oraindik—; bost egunez atxilotuta eta inkomunikaturik Guardia Zibilaren eskutan; Juezaurreko deklarazioa; eta hemeretzi egun Soto del Realgo espetxean (otsailaren 25etik martxoaren 15era).

Jakinkizunak S.L.-ko Administrazio Kontseiluak, *Jakin* aldizkariko Erredakzio Kontseiluak eta erredaktore eta langileek atxiloketaren egun berean landu zuten premiazko *Agiri* bat. Orduko gertakari, albiste eta iritzien zurrumbiloan zabalkunde egokirik izan ez zuenez, eta gure aldizkariko lagun, laguntzaile eta harpidedunen ezagutzarako, oso-osorik eman nahi dugu hemen.

Jakin euskal kultur aldizkariak ere zuzenki jasan du *Euskaldunon Egunkaria*-ren eta beste zenbait euskal kultur erakunderen aurka atzo, 2003ko otsailaren 20an, egindako miaketa judiziala. Aldizkariaren erredakzioa arakatu dute eta lan materialak konfiskatu, inola ere susma ez genezakeen modu batez.

Honek eragiten dituen ondorioen aurrean, aldizkariaren enpresa editorearen Administrazio Kontseiluak, Erredakzio Kontseiluak eta erredaktore eta langileok honakoa jakinarazi nahi dugu:

1. Kaltetu guztiei (*Euskaldunon Egunkaria*, Ikastolen Elkarte, *Argia*, Plazagunea Enpresa, Herri Irratia) elkartasuna adieraztean, *Jakin* aldizkariak kultura arloan ibilbide luze eta aitortua duela gogorarazten dugu, gorabehera politikoen gaineratik, 1956an fundatu zen urtetik erakutsi duen bezala.

2. Ordutik, aldizkariak eta urtetan bertan lan egin dutenek une oro bete dituzte (1969ko abuztuan Fraga Iribarne jaunaren debekuak eragindako aldian izan ezik) bere egitasmo kulturalak, eta 1977az geroko aro demokratiko osoan zehar bereziki.

3. Joan Mari Torrealdai zuzendariaren atxiloketak —eta hura burutzeko moduak berak ere— eragin digun samina eta sumindura adierazten dugu. Konfiantza osoa berresuten diogu, are eta gehiago hogeita hamar urtetan zehar egin duen kudeaketa gogoan izanik; eta berehala askatuko dutela espero dugu.

4. Gure bulegoetatik gurearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batera sartu direla egiaztatzen dugu, atea indarrez irekiz eta hainbat material konfiskatuz.

5. Ondokoa nabarmendu nahi dugu:

- Dokumentu eta material informatikoa jasotzeko operazioaren prozedura praktikoek babesgabetasun sentimendu mingotsa eragin digutela.

- Izan ere, gure kultur langintza epe labur eta ertainean gogor kaltetu dute, gure erredakzioaren jarduera garrantzitsuak eten baitira; beraz,

- Konfiskatutako bulego materiala eta originalak lehenbailehen itzultzea eskatzen dugu, gure lanak naturaltasunez aurrera egin ahal dezan.

6. *Jakin* aldizkariaren eta Joan Mari Torrealdai bere zuzendariaren aurkako ekintza hau, hainbat komunikabide

eta euskal kulturako bitartekoren aurkako operazio zabalago baten parte dela uste dugu. Gure elkartasuna adierazi nahi diegu *Euskaldunon Egunkaria*, Ikastolen Elkartea, *Argia*, Plazagunea Enpresa eta Herri Irratiari; gure aldetik, orain arteko aurreko 47 urteetako ildo beretik lan egiten jarraitzeko asmoa berresten dugu.

7. Eragindako kalteak —moralak zein materialak— aintzat hartuz, bidezko izan daitezkeen ekimen legalei heltzeko eskubideaz baliatzea ikusiko dugu.

Donostia, 2003ko otsailaren 20an

Jakinkizunak S.L.-ko Administrazio Kontseilua

Jakin-eko Erredakzio Kontseilua

Jakin-eko erredaktore eta langileak

Bi hilabete geroago, oraindik bizi-bizirik diraute gure gogoan egun haietako gertakari lazgarriek. Eta bizirik diraute oraindik haien ondorioek —tamalez luzaroan iraungo dute—, nahiz eta zorionez, atxilotuetako zazpi lagun behintzat kalean egon, fidantzapean.

Gure gogoetok jaulkitzean, Administrazio Kontseiluak, Erredakzio Kontseiluak, erredaktore eta langileek elkartasun eta konfiantza osoa berretsi nahi dizkiote Joan Mari Torrealdairei, atxilotu zuten egunean bezala. Egun eta aste latzak jasan ondoren, zorionez gure artean dugu, eta aurrera jarraitzeko gogoz eta kemenez. *Jakin* aldizkariaren zuzendaritzak esku oso onetan jarraitzen du.

Konfiantza osoa berresten diogu, besteak beste, urte luzetako zuzendaritzan *Jakin* aldizkariaren autonomia, euskal kulturgintza osorako aldarrikatu izan duena, tinko defenditu duelako. Izan ere, *Jakin*-ek argi eduki du, eta horrela agertu du behin baino gehiagotan, kultur lanari buruzko bere pentsaera. Besteak beste, 1996ko 93-94. zenbakian *Gure iritziz* sailean idatziriko editoriala izan daiteke horren adierazgarri eta lekuko. «Joseba Jaka gogoan. Euskal kulturgintzaz zenbait gogoeta» zuen titulua editorial hark. «Kulturgintzaren autonomia» epigrafearen barruan honela dio, adibidez:

Euskal kulturak bere autonomia bilatu behar du euskal herrigintzaren barruan, bere eremu propioa eta librea eratuz. (...) kultura ezin da ulertu mundu politiko edo

ekonomikoaren azpiko kategoria soiltzat, etengabe horren menpeko.

Jakin aldizkariaren ia 50 urteko bizitzan abiaburu eta helburutzat eduki dugun baieztapen horien gain egiten ditugu ondorengo gogoetok.

Beraz, eta ia bi hilabete igaro ondoren, hona hemen operazio judizial-polizial horren inguruan egin beharreko zenbait gogoeta, puntuz puntu:

1. Estrategia politiko luze eta zabalaren barruko operazioa.

Operazio horrek ez dugu uste zerikusi berezirik duenik *Egunkaria*-ren historiarekin, eta leporatzen zaizkion «delituekin». Historia horretatik eta *Egunkaria*-tik bertatik haratago doa, euskararen eta euskal kulturaren eta euskarazko hezkuntza eta komunikabideetako erakunde eta enpresen aurkako strategiaren barruan: «hainbat komunikabide eta euskal kulturako bitartekoen aurkako operazio zabalago baten parte» izan zen, alegia, hori, goiko *Agirian* esaten genuenez. Batetik, ez da horrelakoen aurkako aurreneko eraso judizial-poliziala izan —besteak beste gogoan ditugu *Eginen*, *Zabaltzen-en*, *AEK*ren aurkakoak—; eta, bestetik, *Egunkaria*-ren kontrako eraso ez da izan ingurune politiko jakin bateko ekintza isolatua, nahiz eta agian horretarako aukeraturiko momentua ondo kalkulatu izan. Estatuko botereen aldetik aspaldixotik eta luzaroan ezarri nahi duten estrategia politiko horren helburua, azken batez, Euskal Herriaren berreraikuntza nazionalaren aldeko indar politiko eta sozialak suntsitzea eta bereziki euskararen eta euskal kulturaren aurrerabidea geratzea dela dirudi.

2. Egunkaria-ren ixtea. Adierazpen eta prentsa askatasuna aitortzen duen eta bermatu beharko lukeen sistema demokratikoan ez da onartzekoa inolako hedabide legezkorik hilabetetarako ixtea, zuzendaritzakoren batek edo bestek bere erantzukizunen barruan delituren bat egin duen salaketaren pean. Halakoren bat kondenatua gertatuko balitz ere ez litzateke berez arrazoirik izango hedabidea eta horren inguruko enpresak ixteko; are gutxiago oraindik halakoen aurka delitu-susmo edo salakuntzak besterik ez daudenean. *Egunkaria*-ren ixtea larriagoa ger-

tatzen da, adierazpen- eta prentsa-askatasuna eragoztearekin eta langileak, akziodunak eta harpidedunak kaltetzearekin batera, herritarren hizkuntza eskubideak urratuta geratu direlako, euskaldun guztion eskurako euskarazko egunkari bakarra izanik hori.

3. *Bestelako enpresa eta erakundeentzako kalteak.* Gainera, oraingoan *Egunkaria*-ren aurkako operazioaren aitzakiatan, horren auziarekin zerikusirik ez duten aipaturiko beste enpresa eta erakunde horiek —*Jakin* tarako— erasan ditzuzte, horietatik ere hainbat tresna, dokumentu eta material konfiskatuz. *Jakin*-i dagokionez behintzat, ez horren argitaratzailea den Jakinkizunak enpresak (Administrazio kontseiluak) ezta Erredakzio kontseiluak ere ez zuten orduan eta ez dute gerora bahiketa horren inolako berririk jaso eta ez arrazoirik jakin ere, nahiz eta nabarmenak izan horrelako operazioek eragin ditzaketen ondorio kaltegarriak, ez atxilotuaren harreman pertsonaletan eta bizitza profesionalean bakarrik, eta bai enpresaren lanean eta horren baliabide eta harreman ekonomiko eta komertzialetan ere.

Susmoa izatekoa da, kalte horiek areagotzeko moduan antolaturiko operazio indiskriminatuak ote diren, balizko delituren bat aztertu eta zigortzeaz harantz, horrela bestelako enpresa eta erakunde horien aurrerantzeko proiektuak eta lanbide normala baldintzatuz.

Kalte-ordain ekonomiko, intelektual eta moralak eskatzearekin batera, tresneria, dokumentu eta material horiek denak berreskuratu arte ez genuke etsi behar. Geure aldetik, eta orduko *Agirian* esaten genuena berretsiz, «konfiskatutako bulego materiala eta originalak lehenbaila lehen itzultzea eskatzen dugu, gure lanak naturaltasunez aurrera egin ahal dezan». Ez inolako delitu diren eta ez inolako delituren probarako baliagarri diren dokumentu eta materialak garaiz eta osorik ez itzultzera, benetako lapurretatzat salatu beharko genuke jokabidea.

4. *Atxilotuen izen ona eta duintasuna.* *Egunkaria*-ren kontrako operazio «zabal» horren «estilo eta metodo» osoaren gogorak eta ilunak —atxilotuetako bakoitzaren eta erasandako enpresa eta erakunde bakoitzaren kasuan ez

guztiz berdinak eta larritasun-maila ezberdinekoak izanik ere— merezi du eta behar du gogoeta berezirik, gaizkile nabarmen eta arriskutsu gisa atxilotu eta tratatu dituztelako, horien duintasuna zapaltzeko eta izen ona zikintzeko, horien inguruan mesfidantza zabaltzeko, eta ingurukoengan beldurra eragiteko asmoz edo. Ez du bestelako azalpenik, inoiz eta inola arriskutsu agertu izan ez diren eta bizitza osoan ikerkuntza edota kazetaritzako kultur lanean hitzaren «arma» hutsez jardun diren lagun baketsuak gau ilunean eta horrelako gogorkeriaz atxilotzeak eta tratatzeak.

Joan Mari Torrealdairen atxiloketa bereziki itxuragabea agertu zaigu, besteak beste, telebistako zuzeneko irudiaren bat ere izan dugulako. Gaueko loadian etxeko ateak puskatuz sartzea, haurrak ikarapean ordu luzetan edukitzea, etxea eta *Jakin*-eko bulegoa goitik behera miatu eta astinduz, auzigaiarekin zerikusirik ez duten dokumentu eta materialak konfiskatzea, tipo biolento eta arriskutsu bailitzan eskuak burdinaz lotuta edukitzea, burua estalita erakustea eta atzamarrez lepotik oratuta eta bultzaka eramatea: horrek denak ez du esplikaziorik, duintasuna zapaltzeko, izen ona eta irudia itsusitzeko, beldurra zabaltzeko eta min gehigarria eragiteko ez baldin bada.

Salatzeko da, era berean, hainbat hedabideren eta horietako berriemaile eta solastari hainbaten jokabidea, atxilotuak besterik gabe errunduntzat, gaizkiletzat eta terroristatzat jo dituen, erugabetasun-presuntzioaren oinarrizko printzipioaren errespetu inolakorik gabe. Are lotzagabeagoa eta gaitzesgarriagoa gertatu da oraindik atxilotu jakin baten —Joan Mariren— ahaide baten suplantazioa, hedabide publiko baten bidez eta gezurrez horren irudia eta izen ona zikintzeko.

Jasan duten tratu iraingarria *aren* kontra, mirestekoa izan da atxilotuek eta espetxeratuek, esperientzia latzenen latzen ondoren, erakutsi dituzten duintasuna eta kemena.

5. *Tratu txarrak eta torturak*. Gogoeta eta protesta berezi-bereziak merezi eta behar ditu, ordea, atxiloketa-aldiko torturaren auziak. Atxilotuetako gehienek bestelako tratu txarrak eta irainak edota tortura psikiko edo fisikoak salatu dituzte, Guardia Zibilaren komisaldegian atxiloturik eta

inkomunikatuta eduki zituzten egunetan jasandakoak. Ez dira lehen aldikoak horrelako salaketak, oraingoan oihartzun sozial eta mediatiko handiagoa lortu badute ere. Behin baino gehiagotan berretsi dituzte gainera horrelako salaketak, Espainiako polizi indarren kontrakoak, Amnesty International-ek eta giza eskubideen aldeko bestelako zenbait erakundek ere. *Egunkaria*-ren eta bestelako enpresa eta erakundeen aurkako operazio horretan atxiloturiko lagunak oso hurbildik ezagutzen ditugu. Eta ez dugu inolako arrazoirik horien salaketak ez sinesteko. Sinesgarriak gertatzen zaizkigu eta sinesten diegu, sinetsi, eta horrelakoei buruzko geure ziurtasun morala agertu nahi dugu, seguruenik beste herritar askorenarekin batera, eta geure gaitzespen tinkoa agertzen, daukagun ziurtasun moral horren gain. Espainiako Estatuan indarrean dagoen lege-riak eta sistemak berak torturak gertatzeko bide ematen duela esan behar da, atxilotuaren inkomunikazioa luzatu ahal izatean eta horri ematen zaion tratua kontrolbide egiazko eta eraginkorragorik ez ipintzean.

Gainera zinikoa eta lotsagabea da, herritarren eskubi-deak defenditzeko leudekeen agintarien aldetik, tortura-salaketen ondorioz horrelakoak benetan gertatu diren ikertzeari uko egiteaz gain, salatzaileak alde aurretik tribunaletara eramatea. Torturak jasan dituenak, horiek salatze behar psikologikoaz gain, nolabaiteko obligazio morala eta soziala ere badu, bere eta besteren duintasuna defenditzeko, besteak beste. Torturak ukatzean, berriz, sinesgarritasuna irabaziko badute agintariak, aipaturiko neurri eta kontrolbideak jartzea dagokie aurrenik.

Horregatik ere, eta *Egunkaria*-ren inguruan atxiloturikoen tortura-salaketen eta ondoriozko gaitzespenen oihartzun sozial eta politikotik harantz, ordea, garrantzizkoa da horiek areago suspertu duten kontzientzia eta mugimendu sozial berria, torturaren aurka borrokatzekoa. Ausardiaz eta tinkotasunez hori gidatu eta bultzatzen dutenek beste hainbesteko laguntza eta berme sozial, politikoa eta instituzional tinkoa merezi dute, eta behar dute.

6. *Langileen eta gizartearen erantzuna*. Hasteko, zinez txalotzekoa da *Egunkaria*-ko langileek erakutsi dituzten

irudimena, bizkortasuna eta ekimena, hedabidea, enpresa eta lantegia itxi eta hurrengo egunetik, egunez egun, *Egunero* (*Euskal Herrian Egunero*) kalean jartzeko. Besteak beste, irakurle euskaldunon eskubideari ere ohore egin diote horrela. Horren paretsukoa izan da gizartearen erantzun bizkorra eta sendoa ere, *Egunkaria* ixtearen eta hamar lagun atxiloteta lazgarriaren larritasunari zegokiena, bestalde. Gertakariak sorturiko suminduraren, eta horien bidez agian bilatzen zuten etsipenaren gainetik, erreakzio soziala positiboa, tinkoa eta zabala izan da, ez bakarrik hasiera agertzeko eta protesta egiteko; eta bai, *Egunkaria*-ren behin-behineko ordezkoi *Egunero* erosteko eta laguntzeko eta urte askotarako izan beharko duen euskal egunkari berria sortu eta abiatzeko. Erantzun sozial hunkigarri horixe, atxilotuek eta espetxeratuek erakutsi duten aipaturiko duintasun eta tinkotasunarekin batera, eraginkorra izan da, zalantzarik gabe, hamar lagunetik hiru ez beste denak gaur egun kalean eta lanean aurkitu ahal izateko. Zorionez, aske eta gure artean ditugu zazpi, baldintzapean bada ere; eta beste hirurak lehenbailehen gure artean aske izango ditugulako itxaropena berretsi behar dugu, horien berehalako askatasuna eskatzearekin batera.

7. *Euskarazko egunkari berria*. Hamahiru urteko meritu handiko lan eta ahalegin handien fruitua kendu digute, *Egunkaria* ixtean. Poztekoa da, ordea, gizarteko sektore oso zabaletatik ez ezik, erakunde kultural, sozial, sindikal, politiko eta instituzionaletatik ere hain borondate eta «erabaki» tinko eta bateratua agertu izana, euskal egunkari berria lehenbailehen sortzekoa. «Sintonia» hori oso garrantzizkoa da egunkari berriaren proiektua egin eta bideratzeko, horren ezaugarriari buruz egon daitezkeen —dauden— iritzi ezberdinak gorabehera. Dena dela, beharrezkoa da sintonia hori «sinergia» bihurtzea, euskal egunkari zabal, bizi eta erakargarriaren bila, euskal hedabideen sare indartsuaren proiektu estrategikoaren bidetik.

Euskarazko egunkaria edukitzeko euskaldunon eskubideaz gain, gaur egun herritar askok horren beharra ere nabari du, zorionez. Agian orain dela hamahiru urte ez bezala, gaur egun euskaldun askok ezin du bururatu ere

egin euskal gizartea eta bere burua euskarazko egunkaririk gabe. Hori ere *Egunkaria*-ren eguneroko ahaleginari zor zaio neurri handi batez.

Horren Administrazioarekin batera horren Zuzendaritzak eta Erredakzioak eta bertako langileek ondo erakutsi dute beren profesionaltasuna eta gaitasuna hamahiru urtez euskarazko egunkaria gero eta hedabide sendoagoa bihurtzeko eta hori debekatu zutenetik ere ordezeko produktu duina irakurleei eskaintzeko. Agintarien kanpoko erasoak horren ustezko makaltasunaz baliatu nahi izan bazu, heritarren eta erakundeen erantzunak horren sendotasuna nabarmendu du. Hamahiru urtetan jasotako esperientziaren gain, eta orain bertan bizirik dagoen errealitatean —*Egunero* egunkaria, behin-behinekoa, Erredakzio-taldea eta Administrazio-taldea, besteak beste—, horretan oinarrituz eta aipaturiko sinergia bilatuz, uste izatekoa da, duela hamahiru urte baino baldintza askoz hobez eratu ahal izango dela euskarazko egunkari berria.


Funtsean orduan ipinitako abiaburuak eta helburuak baliozkoak dira gaur ere egunkari berria eratzeko. Izaera publiko-gubernamentalik gabe, zerbitzu publikoa bete izan du eta bete beharko du oraindik ere euskarazko egunkari berriak, euskararen modernizazioa bermatzeko eta eguneroko informazioaren idatzizko alor garrantzizkoan horren erabilera soziala segurtatu eta zabaltzeko. Euskararen egoera eta erabilera sozial murriztuak informazio-egunkariaren alorrean ekimen eta lehiaketa pribatu askotarako biderik ematen ez duenez orain-oraingoz, *Egunkaria*-ren ordezeko egunkari berriak, zabal eta sendoak, hizkuntz normalkuntza sozial horretara iristeko bidea ireki beharko du. Produktuan ez ezik, gizartean izan behar du, ordea, zabala eta sendoa, eta horretarako erakargarria behar du izan, euskal irakurlegoa handituz joateko eta gero eta hobeto atxikitzeko. Egunkari berria abian jartzeko legitimitatea *Egunkaria*-ko lan taldeari dagokio zuzen-zuzenean. Legitimitateaz gainera, gure konfiantza osoa ere berak du, frogatua baitu badakiela egunkaria diseinatzen eta gidatzen.

8. *Erasoak eraso, aurrera*. Euskal herritar eta euskal kulturako eta hedabideetako lagun asko eta asko uste osoan

daude, Otsailaren 20ko erasoak ez zela zirkunstantziala eta bakarra izan, eta, zoritxarrez, antzeko berriak eta areagoak etor daitezkeela. Hipotesi eta uste horren aurrean, zera behar dugu argi eduki: ezin gaitezkeela beldurturik eta paralizaturik geratu. Erasoak eraso, bakoitzak bere lan-eremuan ekimen berri eta positiboekin erantzuteko gauza izatea izango da garrantzizkoena; *Egunkaria*-rena askorentzat ustekabekoa izanik ere, horri alde askotatik emandako erantzuna harigarria izan da, eta nolabait ereduakoa.

Jakin-i dagokionez, goian eman dugun *Agiriko* 2. puntuan esandakoa errepikatuko dugu: 1956an sortu zenetik, «aldizkariak eta urtetan bertan lan egin dutenek une oro bete dituzte (1969ko abuztuan Fraga Iribarne jaunaren debekuak eragindako aldian izan ezik) bere egitasmo kulturalak, eta 1977az geroko aro demokratiko osoan zehar bereziki». Erasoak eraso, ildo beretik jarraitzeko borondatea eta erabakia agertu nahi ditugu, aurrera begira ere *Jakin*-ek, bere ibilbide luzean erakutsi duen autonomia ziurtatuz, bere lekua duelakoan euskal kulturgintzan eta hedabideetan, eta aldizkariari berari eta horren inguruko egitasmoei urte luzeak eta oparoak geratzen zaizkielakoan. ¶

Nafarroa eta euskara



Euskararen tratamendua Sanzen garaian.
Kronologia (1999-2002)

ALBERTO BARANDIARAN ▶ 21

Hizkuntza Politika Nafarroan (1999-2002)

JOSE LUIS MENDOZA ▶ 49

Euskara Nafarroan atzo eta gaur

JOSE MARIA SATRUSTEGI ▶ 73

Iritzi bilketa:

Euskararen egoera Nafarroan

GONTZAL AGOTE / MIKEL ALDASORO / SAGRARIO ALEMAN /
DABID ANAUT / MIKEL ARREGI / MIKEL BUJANDA /
AINGERU EPALTZA / ANDRES IÑIGO / JOSE ANGEL IRIGARAY /
MARIPAZ ITURBE / PAULA KASARES / IÑAKI LASA ▶ 83

Euskararen tratamendua Sanzen garaian. Kronologia (1999-2002)

ALBERTO BARANDIARAN

1 999ko abendutik aurrera, Nafarroan atzerakada sekulakoa jasan du euskararen presentzia publikoak. 1999ko bukaeratik aurrera, historia hurbilean lehen aldiz, Nafarroako gobernu batek ondare biziaren kontra egin du, zuzen-zuzenean, tapakirik gabe. Hiru urtetan, hogeita bost egin da atzera.

UPNk, bere sorreratik, mehatxua ikusi izan du abertzaletasunean eta, askotan identifikatzeagatik, baita euskararen garapenean ere. Gainontzeko euskal lurraldetatik are gehiago bereizteko oinarrizko helbururako oztopo deserosoa izan zaio, beti, hizkuntza komuna. Bere doktrina politikoaren lotsak agerian uzten zituen aldagailua. Errealitatea.

Aizpun, del Burgo, Gurrea eta enparauek, hala ere, inoiz ez zuten nahikoa indar izan hain zuzen ere hizkuntzaren zabalkundea —xumea nahi bada, gezurrezkoa nahi bada— galarazteko. Azken urteotako egoera politikoak, ordea —Parlamentuan oposizio eraginkorrik gabe, bortizkeriaren presentzia itogarri eta oronahaslea...—, haizea Miguel Sanz eta bere taldekideen aldeko jarri du.

Euskalgintzan egindako aurrerapausoek ere izan dute zeresanik noski. Bereziki haurren matrikulazioa euskarazko ereduetan. Baina baita kontsentsu zabal samarra ondarearen garrantziaz.

► **Alberto Barandiaran** kazetaria da.

1999ko bukaera hartan, gobernuak berak osatutako Euskararen Aholku Batzordeko kide gehienek dimisioa aurkeztu zuten. Publikoki salatu zuten gobernuan inolako asmorik ez zegoela hizkuntza politika duin eta eraginkorra bururatzeko, eta asmo politikoak nagusi zirela. Akusazioak sumindu egin zuen Sanz presidentea. Oinarriak elkarguneak euskararen lege berria egiteko kanpaina abiatu zuenean, aldaketa politikoa zehaztua zuen jada UPNk, jakinik sozialisten babesa ere izango zuela. Oztoporik ez, beraz.

Hiru urte hauetako kronika Pedro Pegenaute Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusiaren ustezko prebikazioarengatik epaiketaren notiziarekin amaitzen da. Esanguratsua da oso: Nafarroako euskaltzaleek atzerakadaren aurrean antolatzeke eta ekimenak hartzeke izan duten adorea lekukoa da.

1999ko urtarrilaren 22a*Euskararen Kontseiluko 12 kideren dimisioa*

«Hizkuntza normalizazioaren eremuan ezin izan dugu aholkurik eman, eta aholkatu duguna ez da inora iritsi». Argudio honekin, 1996ko martxoaren 11n eraturako Euskararen Kontseiluko hogeit hamar kideetatik hamabik dimisio ezeztatzeko aurkeztu zuten, publikoki. Hamabien artean ziren erakundeetako ordezkari guztiak —Mikel Aranburu Eusko Ikaskuntzakoa, Jose Maria Aierdi Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko ordezkaria, Mikel Donazar Nafarroako Prentsaren Elkarteko ordezkaria, Fermin Altzugarai Ikastolen Federaziokoa, Josema Leitza Oinarriakeko ordezkaria, eta Jose Maria Satrustegi euskaltzaina—, eta Nafarroako Gobernuak berak izendaturiko Juan Apeztexea, Mikel Belasko, Aingeru Epaltza, Andres Iñigo, Patxi Salaberri eta Pakita Zabaleta.

«Edalontzia urez beteta zegoen, eta gainez egiteko nahikoa izan da tanta bat». Hori ere esan zen orduan. Ezinak sortu zuen ur putzua, aholkuak bata bestearen atzetik baztertuta ikusteak. Azken tanta, Iruñerriko FM emakidena banaketa izan zen. Euskarazko irratientzat, berriro ere, eskaintzarik ez.

Inoiz ez bezala agertu zen euskalgintza baturik. Bata-sun horrek inoiz ez bezala ernegatu zuen UPNko gobernu.

2000ko urtarrila*Oinarriak elkargunearen kanpaina 25.000 sinadura lortzeko*

Nafarroa osoan euskararen ofizialtasuna aldarrikatzeko kanpaina abiatu zuen Oinarriak elkarguneak. 1986an onartutako Euskararen Legearen «ondorio kaltegarrien» azpian maha jarrita, zonifikazioaren ezabaketa oinarria zuen lege berri baterako proposamena idatzi, eta sinaketa bilketa antolatu zen, 25.000 atxikimendu lortzea helburu. Eragile batzuek testua errealitatetik urrundua zela uste bazuten ere, azkenean 47.000 nafarrek babestu zuten kanpaina.

Bitartean, Gorka Knörr EAKo europarlamentarioak Nafarroako euskaldunen diskriminazioaren salaketa era-

man zuen Europako Batzordera. Eta Miguel Sanz lehertu zen. Apirilaren 3an, Oinarriak azken jaia egin baino sei egun lehenago, Euskararen Legearen ondorioak berraztertu bai, baina euskaltzaleek eskatzen zuten kontrako norabidean berraztertu behar zirela adierazi zuen presidentek. PSNren babesa zuela esan zuen orduan.

2000ko otsailaren 15a

Nafamoako Unibertsitate Publikoan euskara bazterrazteko asmoak

NUPeko Hizkuntza Normalizaziorako Batzordeak —1995. urtetik laugarrena— euskararen irakaskuntzarako azken zirriborroa banatu zuen departamentuen artean. Proposamenak hiru garren mailako hautazko irakasgai libreen gainean oinarritu zuen garapen guztia. Enborrezko ikasgairik ez. Plangintzarik ez. Ikasketa berririk ez. «Nahikariaren eta posiblearen arteko oreka» gisa aurkeztu zen plana.

Unibertsitatean bertan erantzun berehalakoa jaso zuen proposamenak: bederatzi departamentuk, bi zentrok eta 160 unibertsitatekidek —irakasle eta langileak— zirriborroak gizartearen eskaera ez zuela kontuan hartzen salatu zuten.

2000ko maiatzaren 20a

PSNren deklarazioa hizkuntza politikaren gainean

Polemika gorian zegoela —komunikabideetan eta jardun politikoan etengabeko iritzi trukaketa, atzera egiteko deiak, «urrunegi joan gara» eta gisako oharrazpenak...—, alderdi sozialistak puntua jarri zuen. Finean, ondoren etorriko zenaren iragarpena egin zuen, ez besterik.

PSNko Erregio Batzordeak «elebitasun bitxia» eufemismoarekin izendatu zuen Nafarroako errealitate soziolinguistikoa, eta Euskararen Legearen balioa aldarrikatu zuen, bere horretan. Nafarroa elebiduna ez zutela nahi, eta hizkuntza normalkuntza ez zela behar. Ordura arte egindakoa, «inoiz desiratu gabeko bideetan sakontzeko» eginga zela.

PSNk uste du, beraz, Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politika sakon berraztertu behar dela, ezagutzeko ze ondorio sortzen ari den erkidegoko errealitate soziolinguistikoan, eta baieztatzeko edo ezeztatzeko ondorio horiek ba diren Euskararen Legea babestu eta garatu genuenok nahi genituenak, hots: instrumentalizazio politikarik eza, elkartasuna eta aniztasuna.

E regio Batzordeak Parlamentuan adostasuna eskatu zuen, akordioa eskatzen zuten gaiak zehaztu eta gero: ikastolen egoera ekonomikoa; NUPerako euskararen legea; «Nafarroan dauden euskalkien babesa»; eta administrazioan sartzeko baremoen berrazterketa.

2000ko maiatzaren 25a

Hizkuntza Politikaz eztabaida Parlamentuan

PSNk proposatuta, hizkuntza politikaren inguruko eztabaida esanguratsu eta argigarria entzun ahal izan zen Parlamentuan. Gobernuaren alderdiak bat egin zuen sozialistek bost egun lehenago onartutako adierazpen politikoarekin, eta horrek sumindu zuen Juan Jose Lizarbe PSNko idazkari nagusia. Amua irentsi izanaren sentrazioak orduan hartu izan balu bezala. Hain zuzen ere, eskuina bera baino eskuinerago joan zirela leporatu zieten sozialistei gainontzeko taldeek.

Adierazpenak, horregatik, oso mamitsuak izan ziren. Gobernuko Hezkuntza kontseilariak hizkuntza normalizazioa lortua zela esan zuen —artean berde eta gazte zen antza Jesus Laguna—, eta Lizarbek elebitasunaz bere ideia benetan bitxiak errepikatu zituen: Nafarroan, erdaldunen eta euskaldunen artean «parekotasunik» inoiz ez dela egon —«elebitasun berezia izan dugu, ez perfektua»—; ikastetxe elebidunei eutsi behar zitzaie —«hori da elebitasun perfektura iristeko bidea»—; eta hizkuntza politika sakon aztertu behar zela. «Egin behar dena egingo dugu» profetizatu zuen.

Gainontzeko talde guztiek sozialisten grina berria kritikatu zuten. Juan Cruz Allik, ohi bezala argi, eta zenbaitetan distiratsu, laburbildu zuen askoren ustea: «Arazoa zenbait alderditan bakarrik dago, ez gizartean».

2000ko ekainaren 8a*Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusiko arduradunen dimisioa*

Mahai gainean jartzen ari ziren argudioekin hizkuntza politikaren norabide aldaketa zetorren, noski. Hori zela eta, Fernando Perez de Viñaspre Hizkuntza Politikako Zuzendari Nagusiak, eta bi zerbitzuetako arduradunek, dimisioa aurkeztu zioten Jesus Laguna Hezkuntza eta Kultura kontseilariari. Honek berehala onartu zituen.

Zenbait aste lehenago, kontseilariak Perez de Viñaspreren mahai gainean jarri zuen gobernuak prest zuen zirriborroa, euskararen erabilera administrazioan arautzeko: ibilbide elebidunei agur; euskararen balorazioari agur; eremu mistoari agur. Artean zuzendari nagusia zenak galdetu zion kontseilariari: «Zer da, proposamenak egiteko, hobetzeko, edo, besterik gabe, bere horretan onartzeko?». Lagunak erantzun zion hori zela gobernuaren asmoa. Perez de Viñasprek orduantxe hartu zuen dimititzeko erabakia.

Zuzendaritza Nagusiaren lanari egindako kritikak —Lizarbek esan zuen «aberria» egiten zutela— «aurreiritzietan eta ezjakintasunean oinarritutakoak» zirela adierazi zuten hiru arduradunek.

2000ko ekainaren 19a*Pedro Pegenaute, Hizkuntza Politikako zuzendari berria*

Lehen aldiz, erdaldun bat Hizkuntza Politika gidatzeko. Lehen aldiz, 50eko hamarkadan Diputazioak hizkuntza politika egiteko bideari ekin zionetik. Hala nabarmendu zuten komunikabideek Pedro Pegenautearen izendapena eta biharamunean, baina ez zen hori notizia bakarra. Ezta nagusia ere. Pegenaute Nafarroako eskuin atzerakoienaren ordezkari sentitzen zen —«gauzak ordenan jartzera» zetorrela adierazi zuen lehen agerraldi publikoan—, eta halako harrotasun mingarria adierazi zuen berehala. «Ez dakit euskaraz, eta ez dut ikasteko inolako asmorik. Nire inguruan daudenek aski ongi dakite espainolez». Jesus Laguna Hezkuntza kontseilariak berretsi zituen Pe-

genauteren hitzak. «Nik uste dut garrantzi handiegia ematen zaiela detaile hauei. Ni ere ez naiz euskalduna».

Pegenaute UCDren fundatzaileetako bat izan zen Nafarroan, baina Suarezren alderdia desegin zenean Manuel Fragaren Alianza Popularrera igaro zen, Jaime Ignacio del Burgo ren eskutik. Askotan parlamentario izandakoa, ardurak ere bat baino gehiago hartu izan ditu harez geroztik. 1986an, Euskararen Legea eztabaidatu zenean, Hezkuntza eta Kultura Batzordeko presidentea izan zen. Askotan aldarrikatu badu ere bere ahaleginei esker onartu zela lege hura, bere taldeak kontra bozkatu zuen.

Lehen soslaietan, kargua hartu zuenean, irakur zitezkeen: «Ezagutzen dutenek jatorra dela diote, komunikabideetan agertzea eta jendearekin ondo moldatzea gustuko duena. Politikari petoa alegia».

2000ko urriaren 17a

Helegitea euskarazko toponimiaren aurka

Aurelio Arteta EHUKo Etika katedradunak, Javier Tajadura EHUKo Zuzenbide katedradunak eta Javier Aranaz NUPeko Ekintza Kulturaletarako teknikariak helegitea aurkeztu zuten Erronkari, Zaraitzu eta Longidako hainbat herritako izendapen ofiziala arautzen duen foru dekretuaren aurka. Helegitean argudiatu zuten Burgi, Ezkaroze, Galoze, Garde, Gorza, Itzaltzu, Jaurrieta, Longida, Erronkari, Sartze eta Bidankozeko herrien euskarazko izen ofizialak ez zirela «ez jatorrizkoak ez tradizionalak», eta ez zituztela Nafarroako euskalkiak errespetatzen. Helegitean aipatzen zen «bortxazko elebitasuna» izeneko kontzeptua.

Inguruko alkateek, helegitearen berri izan eta berehala, Hezkuntza eta Kultura Departamentuari eskatu zizkioten azalpenak, eta udalbatzetan onartuta gobernuak berak ofizialdutako izenen alde egiteko eskatu zioten kontseilariari gainera.

Helegitea prentsan egindako kanpaina zehatza eta gero etorri zen. Aurreko hilabeteetan, *Diario de Navarra*-n, Artetak hizkuntza eskubideen aurka idatzi zituen artikulak, eta Aranazek toponimian eta errepidetako seinaleetan ikusi zuen «gutxiengo euskaldunaren inposizioa». Ta-

jadurak, euskara Nafarroako hizkuntza berezkoa dela esatea «onartezina» zela azpimarratu zuen.

2000ko azaroaren 10a

Euskararentzat diruak, lehen aldiz murriztuak

Miguel Sanzen gobernuak euskararentzat diruak %4 jaitea proposatu zuen Parlamentuan. Azken urteetan, eta aurrekontu orokorrekin alderatuta, euskararentzat diruen ehunekoa %0,34ra jaitsi bazen ere, hizkuntza politikaren aurrekontuak, zenbaki hutsetan, gora egin zuen beti. 1995ean, 963 milioi pezeta; 1996an, 973; 1997an, 1.035. Oraingoan, dirutan ere beherakada beraz.

Ez zen hori kezagarriena. Aurrekontuen diru sailen azalpenetan, dirua zertan gastatu behar zen azaltzeko idazkietan alegia, amiltzea zegoen. Hor zegoen politika berriaren iragarpena. Heldu zen kontraerreformaren nondik norakoaren azalpena. Aurreko zuzendaritzak estrategikotzat jotzen zuen administrazioa euskalduntzeko atala, diruik gabe; hizkuntza politika sustatzeko, pezetarik ere ez; euskara sustatzeko kanpainetarako, berdin.

Hiztegian ere aldaketak: *sustatu*, *garatu* eta gisakoak kendu eta *ikertu*, *aztertu* eta halakoekin ordezkatu. Aurrera egiteko edo bultzatzeko asmoari adio. Kontzientziaziorik, zabalkunderik, gainontzeko euskal lurraldeekin proiektu komunik ez. Museo bat eratzea zen asmoa, nolabait esanda: hil hurren dagoena erakustea, garrantzitsuena.

2000ko abenduaren 11

Administrazioan euskararen presentzia ezabatzeko dekretua

Egun honetan, Nafarroako Gobernu batek, lehen aldiz, publikoki onartu zuen bere lurraldeko jatorrizko hizkuntzak ez zuela inolako baliorik izango administrazioaren jardunean. Ez lanpostuetarako deialdi publikoetan, ez irudi korporatiboan, ez herritarrekiko harremanetan. Dekretuak Miguel Sanzen Gobernuaren jarduna legezlatu zuen, praktikan, aurreko araudia ez baitzen kontuan hartzen ari.

Elebitasunaren arrastorik ez. Eredu euskaldunean lauso —elebitasun «leuna» deitu zuten—, eta gainontzeko eremuetan ikusezin: espainola nagusi, eta bakarra. «Erdaldu-

nen diskriminazioa», hori argudioa erreformarako. «Hizkuntza bat ez dakienak ez du aukera gutxiago izango administrazio publikoan sartzeko» esan zuen Sanzek. Hau da, jakitea baino, hobe ez jakitea. Mundua hankaz gora.

Egun berean, presidentek gaztigatu zuen 2001. ikasturterako foru administrazioak berak argitaratutako euskarazko ikasliburuak nahi zituela irakaskuntzan. Eta «degrigor erabili beharrekoak» izango zirela. Argialetxeek eta hainbat sindikatuk eta alderdik neurria katedra askatasunaren eta ikastetxeen autonomiaren aurkakoa zela erantzun zuten. Hezkuntza Departamentuak berak argitu behar izan zituen presidentearen hitzak: liburuak ezin zirela ezarri, eta erdarazko testuak itzultzeko diru laguntzak eman go zirela.

2001eko urtarrilaren 8a

Euskara, bide seinaleetatik ezabatuta; Eusko Ikaskuntzari diru laguntza, izoztuta

Nafarroako Gobernuak abenduko dekretua garatzeko ekintza plana onartu zuen eremu mistorako. Hau da, Iruñerirako. Euskara ezabatuko zen bide seinale guztietatik, eta bakarrik espainola erabiliko. Nafarroako errepide gehienek paisaia elebakartzea zen asmoa. Euskara ikusezin bilakartzea.

Erotulazioa ez ezik, erakunde autonomoetako irudi korporatiboan eta instituzionalean ere —zigiluak, iragarriak, publizitatea, inprimakiak...— gaztelania nagusituko zen. Rafael Gurrea presidenteordeak argitu zuen gainera aldaketak «berehala» egingo zirela.

Bestalde, Eusko Ikaskuntzari diru laguntza (72.121 euro) izoztea hitzartu zuen gobernuak, Añamendi entziklopedian ageri ziren hainbat iritzi zirela eta. Esaterako Nafarroa sarrerako pasarteak —«aldentze prozesu garaienean dauden lurraldea» dela irakur zitekeen Interneten jarritako testuan—, edota Jose Antonio Urrutikoetxeari zegokion —«pertsonea politikoa»—. Testuak «eztabaidagarriak» zirela oso esan zuen gobernuak, eta, hainbat, «iraingarri eta bidegabeak». Juan Jose Goiriena Eiko lehendakariak zuzenean Miguel Sanzi deitu zion, barkamen eske. Urtarrila-

ren 10ean entziklopedia Internetetik kentzeko erabaki zuen Eusko Ikaskuntzak.

Sarrera horiek, beste asko bezala, 60ko hamarkadako bukaeran idatzita zeuden, eta Idoia Estornesek gidaturiko talde osatu berriak berridazketa eta egokitzapen lana hasita zuen.

2001eko urtarrilaren 24a

Sanzek ezetz Euskaltzaindiari

Miguel Sanz presidenteak bilera egiteko arrazoirik ez zegoela erantzun zion Euskaltzaindiari, «erritmoak nabartu baino ez dugulako egin». Euskaltzaindiak «berehalako audientzia» eskatua zuen presidentearekin, administrazioan euskararen erabilera arautzeko dekretuaren zirriborroaren kariaz. Erantzunik jaso ez ordea. Bitartean, dekretua onartuta. Bigarren eskutitzean «kezka handia» agertu zuen akademiak, araudi berriak «atzerapausoa ekarriko diolako erabilerari».

Miguel Sanzen erantzuna Haritzelharri: «Zintzotasun guztiz, esan behar dizut nire gobernuak, eta neronek ere, ez dugula uste Nafarroan euskara garatu eta berreskuratzeari, edota hizkuntza eskubideak begiratzeari, utzi diegunik».

Euskaltzaindiaren batzarrak, Iruñean, euskara «gizartearen lokarri sendoa» bihurtzeko lana hartuko zuela erabaki zuen. «Dekretua ez da euskararen estatusarentzat babes eraginkorra». «Kadentziaren inguruan eztabaida genezake, baina dekretuak murrizketak dakartza eta, ondorioz, euskara administrazioan, irakaskuntzan edota komunikabideetan erabat babesik gabe geldi daiteke hainbat eremutan».

2001eko otsailaren 3a

Europako Hizkuntza Gutxituen Bulegoa, Nafarroako atzerakadaren aurka

Europako Kontseiluko Hizkuntza Gutxituen Biltzar Nagusiak Nafarroako Gobernuak onartutako azken erabakiak deitoratu zituen Dublinen egindako bileran, «Europako erakundeek gai honen inguruan hartutako araudi orokorren azala eta mamiaren aurka joateagatik». Dublin-go bileretan *Resolution Basque* izeneko erabakia hartu

zuen Biltzar Nagusiak, eta Nafarroako Gobernuari igortzeko hitza eman zen.

2001eko otsailaren 13a

Lehen helegiteak dekretuaren aurka

EA, EAJ, IU/EB eta Batzarreko hainbat hautetsik dekretuari helegitea aurkeztuko ziotela iragarri zuten, argudiatuz dekretuak, berez, Euskararen Legea aldatzen zuela. Bultzatzaileen esanetan, ekimena apustua zen «metodo baztertzailak gainditzeko», eta beste udaletako hautetsiendako zabalik zegoela adierazi zuten. EH haserretu zen ordea, «kontsultatua ez izateagatik», eta «sektarismoa» leporatu zien beste alderdiei.

Hurrengo egunetan helegite gehiago aurkeztu ziren.

2001eko otsailaren 14a

Eremu euskalduneko alkateak, dekretuaren aurka

Oinarriak elkargunea antolatzen ari zen manifestaziora begira, eremu euskalduneko ia alkate guztiek —62tik 55ek— mobilizatzeko deia egin zuten, «euskara, ohiko eta egunerokoa izateaz gain, ofiziala ere badelako». Ultzama, Auritz eta Luzaideko udal arduradunek uko egin zioten sinatzeari.

Gobernuak onartuta neurrien bidez euskara lagundu ez eta gaztelaniari «erabateko nagusitasuna» ematen zitzaioela salatu zuten hautetsiek. «Dekretua bera euskararen aurkako eraso larritzat jo daiteke».

Araudi berria jasotzen ari zen kritikak zirela eta, Sanzek lasai itxura eman nahi izan zuen hala ere. «Konfiantza osoa dut auzitegietan arrazoia emango digutena. Gobernuak zuzen eta behar den bezala jokatu du», esan zuen.

2001eko otsailaren 24a

27.000 lagun euskararen alde Iruñean

Oinarriak eta alkateek egindako deiari erantzunez, Iruñeko karriketan gutxitan ikusitako jende andana bildu zen, hartutako neurri murriztaileek eragin kezka leku-ko. Manifestazioaren bukaeran irakurritako manifestue-

tan, bizitza publikotik euskara ezabatzeko lan ildo «penagaria» kritikatu zen, eta dinamika hori gainditzeko hizkuntza eskubideen aldeko defentsa lana «era ahalik eta zabalenean, iraunkorrean eta eraginkorrean» egin behar zela azpimarratu zen. Alkateek neurriak bazter uzteko lanean segitzeko konpromisoa adierazi zuten.

Hurrengo astelehenean, Sanzek ez zuen baloratu nahi izan manifestazioa, eta Parlamentuko gehiengo dekretua errefusatzearen aurka agertu zela azpimarratu zuen. Jaime Ignacio del Burgo UPNko diputatuak, ordea, kritikatu zituen deitzaileak, eta dekretua Hizkuntza Gutxituen Euroitunaren aurkakoa ez zela esan zuen.

2001eko otsailaren 28a

Alemaniera, euskara baino baloratuagoa

Nafarroako Gobernuak administrazioan sartzeko mezimendu baremo guztietan frantses, ingeles eta alemanieraren ezagutza saritzea onartu zuen foru erabaki baten bidez, «Europako Batasuneko hizkuntzak baitira». Euskara, ordea, soilik «bidezko den kasuetan» baloratuko zen, erabaki beraren arabera.

Atzerriko hiru hizkuntzetako bat jakiteagatik puntuazio osoaren %5 eskuratuko zen aurrerantzean. Bi jakinez gero, %10. Euskara jakitea, eremu euskaldunean, puntuazio osoaren %5,5ekin sarituko zen, baina zenbait kasutan bakarrik. Eremu mistoan —hau da, administrazioan sartzeko lehiaketan %99an—, %5,25ekin, baina «plantilla organikoan horrela egin behar dela jasota dagoen kasuetan» baino ez. Hau da, ia inoiz ez. 2001eko plantilla organikoan 153 lanpostuetan eskatzen da euskara. 18.300 funtzionario daude Nafarroan, irakasleak barne.

2001eko martxoaren 15a

«Nafarroakoa, kasu bakarra Europako Batasunean»

Europako Hizkuntza Gutxituen Bulegoko presidentek azpimarratu zuen Nafarroako Gobernuak euskararen normalizazioaren aurka hartutako bideak ez zuela parekorik Europa osoan. «Europako Batasuneko politikak hobekunt-

zak dakartza hizkuntza gutxituen alde, eta inoiz ere ez murrizketak existitzen diren eskubideen arloan», adierazi zuen Bojan Brezigarrek.

Bulegoko Batzar Nagusiak UPNko gobernuaren politikaren aurkako erabakia hartu zuen urtarrilean Belfasten egindako bileran. Brezigarrek kritikatu zituen atzerapausoak, eta EBk onartutako oinarritzko eskubideen itunak hain zuzen ere hizkuntza aniztasuna azpimarratzen duela gogoratu zuen. Hizkuntza eskubideak ere aldarrikatu zituen, eta euren garrantziaz «inolako dudarik ez litzatekeela egon behar» esan zuen.

Elebitasunak, gaur egungo Europan, aberastasuna esan nahi du. Eta hizkuntza gutxitua maila duin batean mantentzeak, horrek bakarrik esan nahi du gure ondasuna berresten ari garela.

2001eko martxoaren 16a

Euskarazko irakaskuntzan, irakasle erdaldunak?

Euskarazko ereduak aldatzeko Hezkuntza Departamentuak eginiko ziriborro bat ezagutu zen. Euskarazko ereduetan, eta hainbat arlotan —esaterako soinketan, edo atzerriko hizkuntzan—, irakasle erdaldunak baliatzeko aukera aipatzen zen, eta atek irekitzen ziren eremu euskalduneari erdara hutsezko G erdua ezartzeko.

Euskara hutsezko irakaskuntza «leherrarazteko saioa» salatu zuten irakaskuntzako taldeek, eta departamentuak berak argitu behar izan zuen proiektua zirriborroa baino ez zela, «zaharkitua» zegoela. Eremu euskalduneari B erdua —erdaraz eta euskaraz— bultzatu nahi zuela, hori bai, onartu zuen Jesus Laguna kontseilariak.

2001eko apirilaren 27a

Eskola liburuak, «itzuli eta kitto»

Gaztelaniazko eskola liburuak euskarara itzultzeko diru laguntzak onartu zituen gobernuak, «Nafarroako curriculum ofizial guztietan ezarritako eduki, jarrera eta prozedura guztiak biltzeko». Miguel Sanzek grafikoki adierazi zuen zer egin nahi zen: «erdarazko liburuak hartu, itzuli

eta kitto». Horretarako, Hizkuntza Politikaren edozein diru sailek jaso baino aurrekontu handiagoa bideratuko zen: 595.000 euro.

Sanzek esan, esan zuen ere eskola liburu itzultitako hauek «derrigorez» erabili beharko zirela D ereduan, «derrigorez» hori azpimarratuta. Hezkuntza Departamentuak suhiltzailearen egin behar izan zuen gero, presidentearen berordia epeltzeko. «Indar morala» baino ez zela erabiliko onartu zuen bozeramaile batek. Bitartean, euskal editoreak kexu, beste eremuetako argitaletxe handien alde egiten ari zelako. Eta irakasleak, kezkatu. Itzultzea ez baita sortzea.

2001eko maiatzaren 16a

Euskararen diruak, atzerriko hizkuntzak ikertzeko

Euskal Herriko atlas soziolinguistikoa egiteko edo toponimiaren inguruko ikerketak ordaintzeko aurreko urteetan baliatzen zen diruarekin, frantsesa, alemana eta ingelesa Nafarroan «zertan diren jakiteko» inkesta egitea erabaki zuen Hizkuntza Politikako zuzendaritza nagusiak. 72.122 euroko aurrekontua zuen inkestak.

Hala zegoen laburbilduta aurrekontuen azalpenetan:

Hizkuntzaren Garapenerako, Ikerketarako eta Programazioarako Zerbitzuak ikerketak egingo ditu euskararen eta Europako Batasunaren hizkuntza ofizialen egoera eza-gutzeko, Nafarroa testuinguru eleanitz eta unibertsalean kokatzeko.

Pegenauteren esaldi gogokoena zen lehen urte honetan: euskarari «unibertsaltasuna» txertatu beharra. Hala gaztigatu zuen Marco Polo eta On Kixoteren inguruan erakusketak aurkeztu zituenean, *Euskara eta Kultura Nafarroan* egitasmoaren barruan. «Izen handia duten pertsonaien bidez, euskara jarri nahi dugu kultur maila gorenetan». 30.000 euro xahutu ziren erakusketotan.

2001eko maiatzaren 24a

Euskara, NUPen, soilik Irakasletzan

Zuzendari nagusiak euskara, unibertsitate publikoan, atzerriko hizkuntzen mailan jartzeko asmoa baieztatu zuen

publikoki. Gobernuak eskuartean zuen lege proiektuaren arabera, soilik Irakasletza eskainiko zen euskaraz, eta, gai-nontzeko ikasketetan, soilik hautazko ikasgai libreak.

Aurreko astean egindako bileran, NUPeko Gobernu Batzordeak unibertsitateak eskaintzen zituen euskarazko bi diplomaturetako bat, Lehen Hezkuntzako Irakasletza, kentzea erabaki zuen.

2001eko maiatzaren 28a

Ezta kartel bat ere elebiduna

Aldizkari Ofizialaren egoitza ele biz errotulatu eta zigilu ofizialetan eta papertegian ere bi hizkuntzak erabiltzeko eskaera ukatu zuen Rafael Gurrea presidenteordeak. Aldizkariaren zerbitzuko buruak argudiatu zuen argitalpena euskaraz eta erdaraz zela, eta hainbat erakunderi itzulpen zerbitzuak ematen zitzaizkiela.

Gurreak berehala erantzun zion, «argudio aski» ez zuela antzematen esateko. «Beraz, indarrean dagoen dekretuak zehazten duenari men egin behar diozu, eta errotulazio, zigilu eta papertegiarentzat soil-soilik gaztelania erabili».

2001eko ekainaren 7a

77 lagun atxilotuta NUPen, euskaraz ikasteko eskubidea aldarrikatzeagatik

NUPen euskaraz ikasteko eskubidea Arrosadiako campuseko gela batean aldarrikatzen ari ziren 74 ikasle, bi irakasle, eta langile bat bortizki kanporatuak izan ziren, errektoreak eraikina uzteko agindua luzatu eta Espainiako Poliziari abisua eman eta gero. Atxilotutakoek Iruñeko komisaldegian eman zuten gau osoa.

Han izaniko tratu txarra salatu ondoren, ikasle, irakasle eta langile taldeek errektorearen taldearen dimisioa eskatu zuten.

2001eko ekainaren 19a

Hautetsientzat, «Nafarroa osoa» da elebiduna

UPNko eta PSNko ez ezik gainontzeko alderdi guztietako 640 hautetsik oroimena berreskuratu eta ofizialtasuna Nafarroa osora zabaltzeko aldarria egin zuten. Bultzatzaileen artean, Aranguren, Baztan, Etxarri-Aranatz, Leitza, Oibar, Puiu eta Uharteko alkateak. Iruñetik iparraldera hautetsien %99k sinatu zuen idazkia, eta hiriburutik hegoaldera, berrehun zinegotzi baino gehiago atxikitu zen. Lizarratik bost, Barañaingo zortzi, Garesko hamahiru, Cortesko lau...

2001eko ekainaren 28a

Eremu euskalduneko liburuzainak, erdaldunak

Nafarroako administrazioaren plantilla organiko berria onartu zen. Euskara derrigor jakin beharra exijitzen zuten lanpostuak, irakasleak kenduta, 153 ziren. Aurreko urtean, 248. Kopuruetan behera, baina baita eskakizunetan ere. Dekretu berriarekin, eremu euskalduneko bederatzi liburutegi publikoetako liburuzainak, esaterako, erdaldunak izan zitezkeen aurrerantzean. Ez zen euskaraz jakin beharko Osasunbidean zaindari izateko, lanpostua eremu euskaldunerako izanik ere; itzultzaile eta interpretari gutxiago izango ziren administrazioan, eta baita mediku euskaldun gutxiago ere.

2001eko abuztuaren 10a

Eguneroko prentsa, diru laguntzarik gabe

Pedro Pegenauteren zuzendaritza nagusiak egun horretan argitaratu zuen, Aldizkari Ofizialean, euskara komunikabideetan garatzeko diru laguntzen deialdia. Arauen arabera, tokirik ez euskarazko prentsarako: ez zegoen atalik. Espainolezko egunkarientzako, ordea, trabarik ez. Bazterketa hizkuntzaren arabera. Hizkuntza diskriminazioa, nork eta Hizkuntza Politikak.

Euskaldunon Egunkaria-k 1991ko abenduaren 6tik kaleratzen zuen Nafarkaria gehigarria. Harez geroztik, urtero jaso zuen diru laguntza.

2001eko irailaren 17a

Auzitegi Nagusia, errotulazio elebakarraren aurka

Urte judizialaren hasiera. Nafarroako epaile, fiskal eta abokatuen ordezkariak balantze publikoa egiteko eguna. Auzitegi Nagusian, ohiko handitasun eta seriotasuna lege gizon-emakumeen artean. Haien aurrean, foru elkargoko erakunde gorenetakoa buruak. Rafael Ruiz De la Cuesta Auzitegi Nagusiko presidentea jaiki eta, urtero bezala, laburpena irakurtzen hasi da. Miguel Sanz ez da agertu. Arazoak daude administrazioaren eta justiziaren artean. Halako batean, zitzadak bezala, kritikak. Hizkuntza politikari. Errotulazio elebakarrari. «Justizia Administrazioaren gaineko eskumena Nafarroako Elkargoak du, eta ez Nafarroako Gobernuak» irakurtzen ari da presidentea, «eta errotulazioa herritararekin hitz egiteko bidea da. Elkarrizketa hori ez da Nafarroako Gobernuaren eta herritarren artekoa, auzitegiaren eta herritarren artekoa baizik. Eta justizia nafar guztientzat da». Errotulazio elebiduna aldarrikatzeaz gain, gobernuak deitu «aldaketa funtzionalak» kritikatu ditu Ruiz De la Cuestak, eta zuzendu ezean Administrazio Gaietarako Auzitegira joko dutela mehatxatu du.

Ekitaldia bukatuta, Jose Luis Castejon Nafarroako Parlamentuko presidentek kritikak «gogoan hartuko dituela» esan du. Rafael Gurrea gobernuko presidenteordeak diskurtso osoa irakurri behar duela erantzun, eta alde egin du ziztuan.

2001eko urriaren 16a

Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntza, diru laguntzarik gabe

Egun horretan argitaratu zen Euskaltzaindiak eta Eusko Ikaskuntzak Nafarroako Gobernuarekin hitzartuta ziztuzten diru laguntzak —217.500 euro— ez zituztela oraindik jaso, desadostasunak zirela medio.

Euskaltzaindiaren kasuan, aitzakia Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren zen. UPNko gobernuak Euskal Herria hitza begi aurrean ezin jasan, eta gainontzeko euskal lurraldeekin izan beharrean Nafarroako ikerketa bakarrik egitea proposatu zion Euskaltzaindiari. «Ez bada akordio-

ra iristen, ez da diru laguntzarik izango», esan zuen Pedro Pegenautek.

Eusko Ikaskuntzarekin desenkontrua, Auñamendi entziklopediaren aferatik zetorren, eta artean konpondu gabe zegoen.

2001eko azaroaren 13a

Durangoko Azokari ez

Durangoko Azokan Nafarroako erakusmahaia ez zela egongo iragarri zuen Gerediaga elkarteak. «Nafarroako Gobernua kale egin digu» esan zuen, grafikoki, Antton Mari Aldekoa-Otalora elkarteko lehendakariak. «Azken urteetan dirulaguntzarik eman ez badute ere, erakusmahaia beti bidali dute». Lehendabiziko azokaren babesleeta bat Nafarroako Gobernuak izan zen, eta garairik latzenetan ere erakundeak beti laguntzeko prest agertu omen zen. «Hau erabaki politikoa da, besterik gabe». Nahiz eta gobernuak ofizialki parte hartu ez, erakusmahaia paratu zioten elkarte-koek, eta banatzaileen bidez erakutsi ahal izan zen euskarazko ekoizpena. Inoizko txikiena, bide batez esanda.

2001eko azaroaren 14a

Euskararentzako diru sail guztiak, behera

Hizkuntza politikak inoiz izandako murrizketarik handiena aurkeztu zuen UPNko gobernuak, aurrekontuen proiektuaren bidez: %14 gutxiago. 2000. urtean %4 izan zen diruen jaitsiera. Begi-bistakoenak, nahiz eta ezagunak izan, Euskaltzaindia eta Eusko Ikaskuntzaren diruen murrizketak. Hizkuntzaren Akademiarentzat 27.000 euro baino ez ziren aurrekontuetan, eta Eusko Ikaskuntzarentzat eurorik ez. Ez hori bakarrik. *Garatu* hitzarekin aipua, edota hizkuntza politika sustatzeko sail guztiak desagertu ziren. Helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko zentroetan eta ikastoletan ere eragin nahi zuen gobernuak, eta euskarazko jardiera kulturaletan amildegia antzematen zen ia: 50 milioi pezetatik 14,5era. Diruen %0,22 baino ez euskarari. Eusko Jaurlaritzak, konparazioan, %1,55 erabiltzen ohi du.

2001eko abenduaren 25a

Iruñeko Udala ele biak erabiltzera behartuta

1997an onartutako euskararen ordenantzak indarrean zeuden Iruñean: horixe erabaki zuen Nafarroako Administrazio Epaitegiak Batasuneko udal taldeak eta hainbat bizilagunek jarritako bost helegite ontzat hartuta. Helegite gehienak Iruñeko Udalak antolatu zenbait jarduera espainolez iragartzeagatik aurkeztuak ziren, eta bat udal bulegoetako errotulu guztiak erdaraz soilik jartzeagatik.

Epaitegiak agindu garbia eman zion udalari: errotulazioa espainolez soilik jarri nahi izanez gero, legea —kasu honetan barne araudia, hau da, euskararen ordenantzak— aldatu behar zen. Udal arduradunek foru dekretuaz egindako interpretazioa «zentzugabekotzat» jo zuen Epaitegiak.

2002ko urtarrilaren 31a

Iruñeko euskalkiak (sic) berreskuratzeko konpromisoa

Iruñeko Udalak eta Nafar Ateneoak «Iruñeko euskalkiak berreskuratzeko konpromisoa» adostu zuten hitzarmen baten bidez. Urte hasiberrian zehar kultur eskaintza sustatzeko ohiko idazki protokolariora benetako zentzuga-bekeria filologiko bihurtu zen horrela, euskara teknikarieren eta kultur sustatzaileen etsigarri. Vicente Etayo kultur zinegotziak defenditu zuen publikoki asmoa. Ikerketa guztiek diotenari muzin eginda, Iruñeko euskalkia hegoaldeko goi nafarrera zela erabaki zuen. Are, hori berreskuratu zitekeela. «Berpiztu» zitekeela. Azalpenak eskatu zituztenean, Etayok, «ergelak» deitu zituen Batasuneko zinegotziak.

Kultur zikloaren lehen hitzaldia Miguel Angel Lotina orduan Osasunako entrenatzailea zenak eman zuen. Bizkaiera zoragarrian.

2002ko martxoaren 1a

Diru laguntzak banatzeko irregulartasunak

Egun horretan prentsan argitaratuko informazioen arabera, Pedro Pegenauteren zuzendaritzak irregularki banatu zituen komunikabideentzako diru laguntzak. *Diario de Navarra* egunkariak eskaera epez kanpo aurkeztu zuela

jakin arren, zuzendari nagusiak 31.586 euroko subentzinoa onartu eta sinatu zuen komunikabide honentzat, 2001eko deialdiaren barruan. Aurreko urtean baino hamar aldiz handiagoa, subentzinoa. Lehiaketaren arauak ez ezik —epez kanpo aurkeztuz gero laguntzak gainontzeko komunikabideen artean banatzeko zehazten zuten—, teknikariaren kontrako iritzi idatzia izan zuen mahaigainean Pedro Pegenautek. Oposizioko alderdiek erantzukizun politikoak eskatuko zituztela iragarri zuten, eta eskandalutzat eta oso larritzat jo zuten berria.

Gobernuak ez zuen zuzendari nagusiaren alde agertu nahi izan. «Zuzendariak Parlamentuaren aurrean eman beharko dituen azalpenen zain gaude gauzak argitzeko» esan zuen Nuria Iturriagoitia eledunak.

2002ko apirilaren 15a

Bi sari literatur lehiaketetan: bat batuaz idatzitako lanentzat; bestea, euskalkiaz idatzitakoentzat

Iruñeko Udalak, urtero, ikastetxe publiko zein pribatuaren artean antolatzen duen euskarazko haur literatur lehiaketan, deialdi berezia egin zen aurreneko aldiz. 150 euroko saria, sail guztietan, batuaz idatziriko lanentzat; beste bat, berdina, euskalkiaz idatzirikoentzat. Irakasleak eta epaimahai ohikoak oso kritiko agertu ziren erabakiarekin, eta horrelako bereizketarik inon ez zela egiten azpimarratu zuten. «Zentzugabekeria galanta da: batuaren kontra jo nahi dute, bereizketa sortu», adierazi zuen Fermín Artola Axular udal ikastolako irakasleak, hainbat urtez lehiaketako epaimahaiko izandakoak.

2002ko apirilaren 26a

99 lagun atxilotuta, NUPen euskararen aldeko itxialdia egitea-gatik

Espainiako Poliziak indarra erabili zuen, beste behin, euskararen aldeko itxialdian parte hartzen ari ziren ikasle, irakasle eta langileen aurka. NUPeko gela batetik atera eta komisaldegira eramateko unean kolpe, irain eta mehatxu ugari erabili zen, gero lekukoek salatu zuten. Kanpoal-

dean zain zegoen 21 urteko gazte bat erietxera eraman zuten, nerbioak jota.

Komisaldegian presio psikologiko «izugarria» izan zela salatu zuten gazteek. Askok bederatziratu baino gehiago eman zuten zutik, paretaren kontra jarrita. Ikasleen batzarrak errektorearen dimisioa eskatu zuten. Beste behin.

2002ko maiatzaren 1a

NUPEko Euskararen Legearen proiektua

Nafarroako Unibertsitate Publikoan euskara arautzeko lege proiektua aurreratu zuen prentsak: Pegenautek, Sanzek eta errektoreak iragarritako osagai guztiak zituen. Ikasgaiak «soilik espainolez» emango ziren, euskara graduondoko ikastaro, master eta irakasgai hautazkoentzat utzita. Nafarroako Gobernuaren baimena beharko zen edozein aldaketa egiteko, esaterako errotulazioa erabakitzeko, eta normalizazio plangintzaren arrasto oro ezabatu zen.

Oposizioaren arbuioa jaso zuen lege proiektuak. Esan-guratsuen, sozialisten. «Une txarrena eta modu okerre-na aukeratu da», esan zuen Juan Jose Lizarbe PSNko idazkari nagusiak. Talde guztiek osotarako zuzenketak aurkeztu zituzten Parlamentuan.

2002ko maiatzaren 15a

Laguna eta Pegenauteren agerraldia Parlamentuan, irregular-tasunak azaltzeko

Jesus Laguna kontseilariak eta Pedro Pegenautek azalpenak eman zituzten Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura batzordean, komunikabideentzat diru laguntzen deialdian izandako irregulartasunen inguruan. Argibiderik eman ez eta nahas-mahasa trinkotu baino ez zuten egin bi arduradunek. Diario de Navarra S.A.-k aurkeztutako dokumentazioari dagokionez, kontseilariak argudiatu zuen arazoak izan zirela agiriak konpultsatu eta erregistroan entregatzeko, baina paperak garaiz aurkeztu zirela. Eta horren froga gisa, zerbitzuko buruak eta enpresak berak «fe-

de» ematen zutela esan zuen kontseilariak. Pegenautek oposizioa kritikatu zuen, bere ustez «munta txikiko afera bat horrela epaitzeagatik». Erantzunaren txanda zikiratua izan zen ordea, batzordeko presidenteak arduradunen aurkako «irainak» antzeman eta bilera bertan behera utzi zuelako.

Oposizioak gaiaren larritasunaz ohartarazi zuen, eta neurri penalak iragarri zituzten hainbat taldek.

2002ko ekainaren 3a

Itun berezia Euskaltzaindiarekin

Nafarroako Gobernuak euskararen hizkuntza akademiarekin itun berezia sinatzea erabaki zuen, «dirua zertan gastatu behar zen ezin genuelako erabaki». Nuria Iturriaga goitia gobernuko eledunak egin zuen aitorpena. Nonbait Euskaltzaindiaren gainontzeko babesleekin —hots, Eusko Jaurlaritza eta beste hiru diputazioekin— «diferentziak» egon bazirela gogoetatu, eta enborretik erauztea erabaki zuen UPNko gobernuak. «Hemendik aurrera guk esango dugu zer ikertu behar den, eta zer den Nafarroarentzat interesgarria». Hizkuntza, gobernu baten nahietara makurtua. Euskara, politizatu. Aurreko urteko diru laguntza jaso gabe zuen artean Euskaltzaindiak.

2002ko ekainaren 21a

Eremu ez euskalduneko ikastolak, ekonomikoki itota

Legeztatu gabeko bost ikastola —Tutera, Lodosa, Sar-taguda, Viana eta Irunberrikoa— ito beharrean zeuden Hizkuntza Politikako zuzendaritzak jarritako irizpide berrien ondorioz. Pedro Pegenaute zuzendari zenetik, 643.000 euro gutxiago jaso zuten ikastola hauek, eta irakasle eta langileen soldatak ordaintzeko arazo handiak zituzten.

Eremu ez euskaldunean —Iruñetik hegoaldera, gutxi gorabehera— euskarazko eskaintzarik ziurtatzen duten ikastetxe hauen finantzaketa eskola unitarioena zen. Hots, gelako erabakitzen zen subentzioa. 2000. urtetik aurrera, ordea, laguntza kalkulatzeko hasi zen gainontzeko

ikastetxe kontzertatuen irizpideen arabera: ikasleko alegia. Ikastolak berez txikiak izanik, eta gela bakoitzean, batez ere goi zikloetan, ikasle talde handiak ez egonik, di-ruaren murrizketa oso handia zen. Non eta behar handiena zegoen inguruan.

Kontuan hartuta eraikinek —Irunberrikoak kenduta— legalizazioa lortzeko baldintza gehienak betetzen zituztela, 2000. urte arteko finantzaketari eustea eskatu zuen Ikastolen Elkarteak, legalizazioa lortu arte. Gobernuak ezetz esan zuen, baina, azkenean, Parlamentuaren gehiengoak proposamena onartzera behartu zuen.

2002ko ekainaren 26a

Euskararen Foru Dekretua, oso-osorik baliogabetua

Nafarroako Auzitegi Nagusiaren belarrondoko juridikoa jaso zuen UPNko gobernuaren hizkuntza politikak: euskara administrazio publikotik baztertzeko 2000ko abenduko dekretua —eta, ondorioz, bere baitatik sortutako ekintza eta ebazpen oro—, «gutziz eta erabat» baliogabetu zituen.

Argudioetan, lehendabizi formari begiratu zioten epaileek, epaiketa guztietan gertatzen den bezala, eta hor jada arrazoi nahikoak aurkitu zituzten euskararen kontraerreformaren oinarri arautzailearen legezketasuna ukatzeko. Eskatu beharreko bi txosten saihestu zituen Gobernuak: Euskararen Kontseiluarena, eta Funtzio Publikorako Mahaiarena. Tramite hutsak ziren, ez baita oniritzia behar, baina tramite bete beharrekoak nolnahi ere. Epaileek nahikoa arrazoi ikusi zuten prozedura guztia baliorik gabekotzat jotzeko. Hainbat eragilek politika bera egiteko modua epaitu zela azpimarratu zuten.

2002ko uztailaren 6a

Formak zuzendu, eta dekretu berdina

Nafarroako Gobernuak lurraldeko kazeta nagusiari jakinarazi zion baliogabetutako dekretuaren eduki bereko idazkia onartu nahi zuela, eta lanean ari zela horretarako. Epaileek formazko akatsak besterik ez zituztela aipatu, eta

mamiari inolako kritikarik ez ziotela egin nabarmendu zuten gobernuko iturriek. Euskalgintzako taldeek gogoratu zuten Euskararen Kontseilua osatu behar zela horretarako, eta «etorkizun zaila» iragarri zioten araudi berriari.

2002ko abuztuaren 21a

Euskararen Kontseilua berritzeko premiak

Dekretu berria onartzeko Euskararen Kontseilua osatzeari ekin zion gobernuak. Aste horretan, Lehendakaritza Departamentuak eskutitza igorri zien kontseiluan aulkia zuten elkarteei —Ikastolen Elkartea, Euskaltzaindia, Eusko Ikaskuntza, Prentsa Elkartea, Udal eta Kontzejuen Federazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea eta Oinarriak—, kide berriak lehenbailehen izenda zitzen. 1999ko dimisioaz geroztik, hiru urte joanak ziren kontseiluak inolako bilerarik egin gabe.

2002ko abuztuaren 21a

Pegenauteren kontrako kereila, tramitera onartua

Nafarroako Auzitegi Nagusiak tramitera onartu zuen Batasuna taldeak Pedro Pegenaute Hizkuntza Politikako zuzendari nagusiaren aurka prebarikazioengatik jarritako kereila, komunikabideentzako diru laguntzen deialdia zela eta. Epaileak prentsa, irrati eta telebistan euskara sustatzeko diru laguntzen inguruko ebazpenaren txostena eskatu zuen, bide batez. EA/EAJ eta Batzarre taldeak kereilarekin bat egitea aztertzen ari ziren bitartean, Euskara Kultur Elkargoak erabakita zuen jada salaketari atxikitzea.

Gobernuak inoiz ez zuen publikoki Pegenauteren defentsa egin, baina Iturriagaitia eledunak zuzendari nagusiaren ondorasunaz «dudarik ez» zuela adierazi zuen.

2002ko urriaren 5a

Pegenaute, inputatua, ustezko prebarikazioarengatik

Nafarroako Instrukzio Epaitegiko bigarren aretoak Pedro Pegenaute Hizkuntza Politikako zuzendari nagusia deklaratzera deitu zuen, inputatu gisa, ustezko prebarikazioarengatik. Komunikabideen deialdian izaniko irregulartasu-

nen ondorioz zuzendari nagusiaren aurka zabaldu prozesuaren barruan, epaileak onartu zuen Batasunak egindako eskaera, eta Hizkuntza Politikako arduradunaren deklarazioa entzuteko nahikoa froga zegoela erabaki zuen.

2002ko urriaren 7a

Euskararen Kontseilurako, espainieran adituak

Nafarroako Gobernuak adituak izendatu zituen Euskararen Aholku Batzorderako, berez «euskararen eta euskal kulturaren esparruan ospe onartua duten pertsonen artean». Ospe horren arrastorik ez noski. Ez euskaldunon artean bederen. Ospe onartu batere ez gurean «euskararekin gertatu den guztia» 51 orritan laburbiltzen ausartu zen politikari-idazle-folkloristak; osperik ez Nafarroako iberoromanikoan idatzitako predikuen aztertzaileak; ospearen zantzurik ez, prefosta, *Oxigenoaren arnasketa eta metabolismoa, aurretik lehortuz hotzera egokitutako arto landarean ize-neko ikerketaren egile ezezagunarengan, erratzu arnagatik ezezaguna, euskalduna izanagatik ezezaguna. Gai-nontzeko adituak menpekoak ziren gehienak, zerbitzu lanetan zeuden funtzionarioak edota kargudunak.*

Kontseiluaren aholku izaeraren hustuketaz mintzo kezu ozenak izan baziren ere, gizarte erakundeek beren ordezkariak izendatzea erabaki zuten, «barruan lan egin eta presionatzeko» helburua buruan. Alta, lan eraginkorrik ezin zela egin garbi kausitu zuten hiru egun beranduago. Hogei kideetatik hiru aski izango ziren kontseilua osatu eta erabakiak hartzeko. Jarduera blokeatu edota proposamenak egiteko aukera ere baliorik gabe utzi zuen, horrela, gobernuak.

2002ko urriaren 16a

Kontseiluari planto

Euskararen Kontseiluan aulkia zuten gizarte erakundeetako ordezkariak planto egin zioten kontseiluari berrari, lehen bileran. Nafarroako euskalgintzako taldeek adostutako proposamena eztabaidatzea debekatu zuen Miguel Sanzek, eta Juan Oronozek (Udal eta Kontzejuen Federa-

zioa), David Anautek (Oinarriak), Pello Mariñelarenak (Ikastolen Elkarte) eta Iñaki Erreak (Prentsa Elkarte) bilerara utzi, eta altxa egin ziren mahaitik. Berez aholkua emateko eratu batzordea kontrolatzen zuen gehiengoaren «jarrera itxia» salatu zuten ordezkariak, eta eztabaida «planteamendu berri eta normalizatzailer batera iristeko» beharrezkoa zela azpimarratu.

Astebete beranduago, Udal eta Kontzejuen Federazioak Oronoz kargugabetu zuen, «Federazioak onartutako irizpideen arabera ez jokatzearatik». Erakundeak Caparroso alkate erdaldun petoa (UPN) izendatu zuen Euskararen Batzordeko kide berri.

2002ko azaroaren 7a

Euskaltzaindia eta Nafarroako Gobernuak, «bakarrik oheratuta»

Nafarroako Gobernuak eta Euskaltzaindiak hitzarmen berria sinatu zuten, hitzarmen berezia eta berezia gainera. 1918tik zetorren tradizioa, traizionatuta. Negoziazioak behin baino gehiagotan apurtzekotan egon eta gero, akordioa adostu zuten bi aldeek negu atarian. Hitzarmena jakinarazteko ekitaldian bereziki zatar aritu zen Pedro Pegenaute zuzendari nagusia. «Horrelako akordioak lortzeko ez da elizatik pasatu behar» esan zuen, «ez da beharrezkoa hainbatekin batera oheratzea, sutsuki maitatu baitaiteke eta bakar batekin oheratu. Hori egin dugu guk: bakarrik oheratu». Haritzelhar, ondoan. Andres Iñigo, Andres Urrutia eta Jose Luis Lizundia, aurrean. Umiliazio publikoaz hitz egin zen egun hartan.

Hori ez ezik, hitzarmenaren beraren izaerak ere harri-dura sortu zuen. Idazkia garbia zen: Gobernuak berak onetsitako proiektuak baino ez zituen diruz lagunduko, eta erabakitzeko unean «erabateko ahalmena» izango zuen. Lau urterako hitzarmenak zehazten zuen, gainera, Nafarroako Gobernuak Euskal Herria hitzaren pean «deus ez» zuela lagunduko. Pegenautek iragarri zuen Hizkuntza Atlasaren Nafarroako mapa, edota Orotarikoaren Nafarroako hiztegia.

2002ko azaroaren 15a

Iruñeko Udalak hizkuntza eskubideak ziurtatzen ez dituela salatu zuen Arartekoak

Maria Jesus Aranda Nafarroako Arartekoak Iruñeko Udalaren irizpideak gaitzetsi zituen, eta herritarrek harre-ra euskaraz ere jasotzeko eskubidea onartu behar zela ohartarazi zuen irekitako espediente baten bidez. Hauxe izan zen Arartekoak hizkuntzaz egindako lehen gomen-dioa, eta baita lehen salaketa publikoa ere. Gai honen inguruan iritsitako kexu guztiak artxibatuak zituen Arartekoak ordura arte, epaibideetan zeudela argudiatuta.

Ez zen Iruñeko Udalaren erabakien aurkako salaketa bakarra. Nafarroako Auzitegi Nagusiak udal infomazioa eta propagandak ele biz egin behar zirela erabaki zuen, eta sanferminetako egitarauaren esku orrian, esaterako, bi hizkuntzak agertu behar zirela.

2002ko azaroaren 20a

Egunkaria, Euskalerria Irratia eta Nabarra, diru laguntzetatik baztertuta

Euskara komunikabideetan sustatzeko diru laguntza-ren deialdia Nafarroan itzal handia duten bi komunikabi-de —*Egunkaria* eta Euskalerria Irratia— eta aldizkari baka-rra —*Nabarra*— baztertzeko propio prestatutakoa onartu zuen Pedro Pegenautek. Nahiera egindako deialdia zen, izan ere. *Egunkaria*-k kaleratzen zuen Nafarkaria gehiga-riari eta *Nabarra* aldizkariari langa jartzeko baldintza be-rria zegoen deialdian: 2001eko urtarrila baino lehen argi-taratzen hasi, eta etenik gabe kaleratuak izatea; Euskale-rria Irratiarentzat, lizentzia edukitzea eskatu zen aurrene-ko aldiz.

Deialdiarekin, gainera, aurreko urteko joera baieztatu zen: espainolez aritzen diren komunikabideentzat lagunt-zen %30 izango zen, duela hiru urte %8 edo baino ez ba-zen ere. Diru sail orokorra %16 jaitsi zenez, ondorioa gar-bia: euskarazko komunikabideentzat, inoiz baino diru gutxiago.

2002ko abenduaren 12a

Pegenautearen deklarazioa epailearen aurrean

Hizkuntza Politikako zuzendari nagusiak bere kontra irekitako ustezko prebarikazioengatik aurretiazko diligentzien barruan deklaratu zuen, Iruñeko epaitegietan. Bata-suneko eta Euskara Kultur Elkargoko abokatuen eta epailearen eta fiskalaren aurrean, Pedro Pegenautek bere gainean hartu zituen ardurak, eta are gehiago nahastu zituen berez kontrajarriak ziren hainbat datu. Zuzendariak, gainera —eta hori azpimarratu zuten abokatuek—, ez zuen frogatzerik ahal Diario de Navarra S.A. enpresaren dokumentazioa garaiz iritsi zela; gezurtatu zuen bere zuzendaritzako bigarrena; departamentuan izaniko irregulartasunak justifikatu zituen —«erregistroan egun horietan butxadura zegoen»—, eta, batez ere, harro erantzun zien akusazio guztiei. «Arrazoi ideologikoengatik sekula ez» zela bazterketarik izan esan zuen Pegenautek.

Akusazioko abokatuek lekuko gehiagoren deklarazioak eskatu zituzten. Epaileak onartuko zituen. ¶

Hizkuntza Politika Nafarroan (1999-2002)



JOSE LUIS MENDOZA



*G*arai latzak lirikarentzat, baita Nafarroako hirita-
rrentzat ere. Jarraian agertzen diren zetzaladek,
Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikaren
nondik norakoak deskribatzeaz gain, politika horren az-
pian dagoena eta etorkizun hurbileko helburuei buruzko
hainbat ezaugarri agerian utzi nahi dute. Orokorrean,
UPNren euskara eta euskal kulturaren inguruko politika
aztertu dut, baina interesgarria litzateke oso alderdi abert-
zaleen politika (orokorra nahiz euskararena) aztertzea ere.

Denbora aldetik, artikulua honetan azken Legegintzal-
dia mugarri jarri dut, euskararen gaineko UPNren diskurt-
so berriaren sorrera eta eboluzioa ezagutzeko aski izanen
dela uste dudalako.

1999-2003 legegintzaldia

1999ko maiatzeko hauteskundeetan Foru Parlamen-
tuko 50 eserlekuetatik 22 aterata, (LORAFNA) Nafarroako
Foru Eraentza Berreza eta Hobetzeko Lege Organikoak
ezarritako automatismoei esker¹, UPNk Nafarroako gober-
nua agintzen jarraitu zuen.

1 **Jose Luis Mendoza** Bigarren Hezkuntzako irakaslea eta Euskara
Kultur Elkargoa Fundazioaren presidentea da.

Hizkuntza politikari zegokionez, ematen zuen programa jaraikorra garatu behar zuela. Baina ez zen horrela izan: lehenbiziko ezustekoa izan zen Hizkuntza Politikako Zuzendaritza Nagusia (HZPN) Lehendakaritza eta Barne Departamentuan egotetik Hezkuntza eta Kultura Departamentura pasatu zela. Aldaketa esanguratsua zen: Lehendakaritza Departamentuak gobernu baten politika nagusiak eta zeharkakoak zuzentzen ditu, ezinbestekoa dena edozein hizkuntza normalizazio prozesuaren plangintzarako. Aldiz, Hezkuntza Departamentuan kokatzeak agerian utzi zuen gaia hezkuntzara mugatzeko borondate politikoa.

HPZNn talde berbera mantendu zen, gobernutik bertatik jasan behar izan zituzten euskararen aurkako erasoak zirela eta, urtebete baino lehen dimisioa aurkeztu bazuen ere².

Euskararen Legea egitean erakutsi bezala, euskararen etsai historikoa den Pedro Pegenautek hartu zuen haren ardura, orduan zeukan Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiari erantsita.

Hizkuntza politikaren berregituraketa

2000 urteko ekaina eta iraila bitartean, Nafarroako Gobernua Hizkuntza Politikako taldearen dimisioaz baliatu zen zuzendaritza nagusi ezeroso hura deuseztatzeko. Prestakuntza Bulegoa Nafarroako Administrazio Publiko-rako Institutuaren menpe egotera pasatu zen, Itzulpen Atala Nafarroako Aldizkari Ofizialaren Zerbitzura (biok Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren menpe); aldiz, Programazio eta Ikerketa eta Normalizazio eta Sustapen Zerbitzuak Hizkuntzaren Programazio, Ikerketa eta Garapen Zerbitzuan bateratu ziren, Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren menpe egotera pasatuz.

Berregituraketak berak argi azaltzen ditu gobernuaren helburuak: konpromiso aktiboa adierazten duten *normalizazio* eta *sustapen* ideiak desagertu egin ziren eta euskarari dagokion hizkuntza politika alderdi kultural jakin batzuei loturiko ikusmoldera mugatu zen.

Oinarriaken proposamena

Trantsizioan egoera paradoxikoa izan genuen: boto abertzaleek berdin mantendu edo behera egin zuten bitartean (hauteskunde motaren arabera), euskal hizkuntzaren aldeko jarrerak eta hiztun kopurua areagotu egin ziren.

Beste alde batetik, Nafarroan gizarte praktikak nazionalismoa eta euskal kultura kriminalizatzeko UPN eta PPren estrategia politikoa hautsi zuen, ETA erakunde terroristaren eragin negatibo eta distortsioegilea zegoen arren.

Testuinguru horretan, gehienbat erakunde kultural, sozial, sindikal eta politiko abertzaleak biltzen dituen Oinarriak plataformak 2000ko martxoan Nafarroako Parlamentuan Euskararen Lege berri baten aldeko 48.000 sinadura baino gehiago aurkeztu zituen, euskal hizkuntzaren koofizialtasuna onartu eta haren aldeko beste neurri batzuk har zitezten.

Nahiz eta laguntza sozial handia izan, Oinarriaken proposamena ez zen oso errealista, Nafarroarako hizkuntza politika Euskal Autonomia Erkidegoarenaren nahiko antzekoa proposatu baitzuen eta indar politikoen korrelazioa ez zuelako kontuan hartu³.

Oraingoz Parlamentuak ez du aintzat hartu ez eta inolako jarrera instituzionalik ezarri ere.

327/2000 Foru Dekretua eta haren ondorioak

Nafarroako Gobernuaren planak

Nazionalismoaren eta euskal kulturaren aurkako borroka zuzeneko testuinguruan, Nafarroako Gobernuak Administrazio Publikoetan euskararen erabilera arautzen duen Foru Dekretu bat eta hiru Gobernu Erabaki onetsi zituen 2000ko abenduan, azken hauek eremu euskaldun eta mistoan euskararen erabilerari buruz eta lan eskaintza publikoetako merezimendu baremoetan hizkuntzen eza-gupena arautzeari buruz.

Helburua euskararen hedapena mugatzea da, eremu misto eta ez euskalduneko biztanleei hizkuntz eskubideak

kenduz eta eremu euskalduneko koofizialtasuna mugatuz. Aldi berean, euskara edozein lanpostu ofizialetarako eskakizun izatea ezabatzen da (ez baldin bada itzultzaile eta euskarazko irakasle lanpostuetarako, akabo bestela!), eta merezimendu lehiaketetan, oro har, ingelesak, frantsesak edo alemanierak baino gutxiago balio dezake⁴.

Nafarroako Gobernuak, presidentearen aholkulari juridikoaren hitzetan, honela justifikatzen ditu neurri horiek:

izaera puntualeko erreforma, [1994ko aurreko Dekretuaren ondorioz] aurreko legeek egindako ultra vires edo gehiegikeriak ongi zuzendu nahi dituen, eremu euskaldunetan izan ezik elebiduna ez den komunitatean euskararen aplikazio ezegokia edo hedagarria egin baita. (Mánuel Pulido, «La curiosidad del jurista persa», *El País*, 2000-12-23)⁵

Errealitatean, aipatu Dekretua indarrean izan zen sei urteetan, 18.281 langile publikotik ez zen berrehunera iritsi euskararen eskakizunarekin lanpostua eskuratu zuen langile kopurua (irakasle eta itzultzaileez gain, logikoa den bezala)⁶. Aldi berean, hainbat foru arautan garaturiko Jarduera Planetan adierazi bezala, bideetako seinaleak, iragarkiak, agiriak, irudi korporatiboa eta elebidunak ziren gainerako adierazpen publikoak gaztelania hutsezkoekin ordezkatzeko hasi ziren.

Handik egun gutxira, premiazko balioespena argitaratu nuen («UPN ataca de nuevo», *El País (País Vasco)*, 2000-12-14):

Azkenik, indarreko legeak behin eta berriz betegabe aritu ondoren, Nafarroako Gobernuak erabaki du (...) lege arauak aldatzea! Izan ere, joan den astelehenean, abenduaren 11n, Foru Dekretu berri bat onetsi zuen Euskararen Erabilpena Arautzeko Nafarroako Administrazio Publikoetan. Hona hemen alderdi adierazgarrienak:

- Ez du errespetatzen Espainiako Konstituzioa, euskara begirune berezi eta babesa eman beharreko ondare kulturaltzat hartzen duena (3.3. art.).

Ez du Euskararen Foru Legea betetzen, hiritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea eta haren be-

rreskuratze eta garapena babesten duena. Dekretu berriak eremu euskalduna eremu misto bihurtzen du, eta eremu mistoa eremu ez-euskaldun, eta horrek eskubide murrizketa dakar dudarik gabe.

- Aipatzen badu ere, ez du aintzat hartzen 1992ko Europako Karta, Eskualdeetako Hizkuntzei edo Hizkuntza Gutxituei buruzkoa ez eta 1996ko Hizkuntz Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala ere.

- Ez du ezagutzen Espainiako Konstituzio Epaitegiaren sententzia, espreski adierazten duena hizkuntz eskakizuna ez dela «merezimendu eta gaitasunetik at dagoen *ad extra* eskakizuna, baizik eta konstituzio oinarri horiek betetzen direlako egiaztatzea». UPNk jarraitzen du pentsatzen euskararen eskakizuna hainbat lanpostutarako (gehienetan hiritarrek harreman zuzena duten lanpostuak, esaterako irakaskuntzan, medikuntzan, bulegoetan...) diskriminazioa dela euskaldunak ez direnendako.

- Ez du udalen autonomia errespetatzen, hiritarrek harremana izateko arau nagusi borondatezko elebitasuna hautatu duten eta euskal hizkuntza sustatzeko politika aktiboak garatzen dituzten eta izatezko koofizialtasuna hautatu duten Iruña, Berriozar, Burlata, Atarrabia, Antsoain eta Barañaingo udaletako Udal Aginduen aurka egiten baitu.

- Administrazio zirkuitu elebidunak desagertu egin dira. Administrazioarekin harremana euskaraz izateko eskubidea gaztelaniazko itzulpena aurkezteko betebeharrarekin edo bestela zirkuitu horretan itzulpen ofizialak sartu beharrak dakartzan burokrazia atzerapenak jasan beharrarekin zigortzen den oztopo lasterketa bihurtu da.

- Funtzio Publikoaren Estatutuan bilduriko hainbat eskubide murriztu ditu, adibidez, sustapena edo euskara eskakizuna duten lanpostuak hartzen dituzten pertsonen lanpostuen lekualdaketa eskatzeko aukera.

Azken finean, Dekretu hori ez da soilik gutxiengo euskaldunaren aurka egindakoa, Nafarroako hiritar guztien eskubideen aurkakoa baizik. UPNk berriz ere onura politikoak ateratzeko erabili du euskara, euskal hizkuntzaren garapen sozial askearen sustapenari dagokionez, gizartean den adostasun zabala hausten saiatuz.

Dekretu hau politikariek eta komunikabideek euskara eta euskal kultura etengabe zalantzan jartzeko duten joe-

rak hartu duen lege forma da. Pertsonak epaitzen dira eta ez beren iritziak, oinarririk gabeko gezurrak berri gisa ematen dituzte, aurreiritzi hutsak epai *zientifiko* gisa aurkezten dituzte eta normalean euskalgintzarekin loturik dagoen guztiaren alderdi negatiboenak eta distortsio-gileak soilik aurkezten dituzte.

Status quo-a gordetzearen aitzakian, euskal kultur adierazpenen egiazko jazarpen eta kriminalizazioa gertatzen da, euskal kulturaren hainbat adierazpen Nafarroatik kanpoko edo gertaera arrotz gisa aurkeztuz.

Gaur gure artean dugun gizartea zatitzeko begi-bistako arriskua ikusita, uste dut proiektu bateratzaile eta kulturantzekoaren aldeko apustua egin behar dugula, ezberdinekiko harremana beldurrik gabe eta gizartean elkarbizitzarako aberasgarritzat hartuko duena. Nafarroako politikari baten hitzetan, uste dut beharrezkoa dela ondokoaren aldeko apustua: «(...) *elkarrenganako errespetuan eta aniztasunaren kontzeptio positiboan eta eskubide —nazional zein nazioarteko— oinarrietan eusten diren gizarte ereduak eratu behar dira, aurrerapenean, bakean eta askatasunean bizi ahalko den gizartearen eraikuntzara hurbil gaitzaten*».

Nafarroako Gobernuaren euskararen aurkako *gurutza* -*dan* bat egin zuen Iruñeko alkate andreak, UPNkoa hura ere. Euskal hizkuntzaren despolitizazioaren aldeko hitzak eta Barandiaran familiaren ahaide izateagatik duen harrotasuna adierazi bazuen ere, ekintzek haren egiazko asmoak agertu zituzten: Udal Ordenantza aintzat hartu gabe, bi-deetako errotulazio elebiduna eta eraikin publikoetakoa ezabatu zuen lehenbailehen euskara udal burokraziatik, aparkalekuetako ordainagiritatik (hori bai, frantsesez zein ingelesez eska daitezke) eta idazkuntza lehiaketetatik ezabatzeraino.

Ondorioz, gizarte elkarbizitzari ezertan laguntzen ez zion tentsio egoera gertatu zen, eta Nafarroako gizarte, kultura eta politikako arlo guztiek, ez soilik abertzaleek (jakina, UPN salbu), eta 2001eko otsailaren 3an Dublinen bildu zen Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoaren Biltzar Nagusiak, salatu zuten⁷. Nafarroako Justizia Epaitegi Gorenaren aurrean administrazioarekiko hainbat auzi errekurtsio ere aurkeztu ziren.

Nafarroako eskuin muturreko betiko *mamu* batzuk eszena publikora itzuli ziren, Gobernuko presidentearen ahotik IU eta CDNkoei *ezkutuko abertzale* deitu zaie, eta gobernuaren neurrien aurka 2001eko otsailaren 24an jai eta bake giroan euskararen alde egin zen manifestazioari —hogei mila hiritar baino gehiago bildu zituen— *etazalea* kalifikatiboa jartzeko zalantzarik ez zuten izan.

Gizartearen erreakzioa

Une horretara arte, gobernuak euskararen aurka egindako erasoen erantzunak hedapen handi eta iraupen txikiak izaten ziren: manifestazioak, pintadak, komunikatuak, e.a.

Horrez gain, bide judizialera ere jo zen estreinakoz: 372/2000 Foru Dekretuari hamaika errekurtsio jarri zizkion eta, 2001eko urtarriletik aurrera, Nafarroako Gobernuaren nahiz Iruñeko Udalaren hizkuntz eskubideei buruzko berrogeita hamar xedapen baino gehiago errekurritu ziren epaitegietan. Errekurtsio gehienak onartu egin zituzten bai Nafarroako Administrazio Epaitegiak (NAE) bai Nafarroako Justizia Epaitegi Gorenak (NJEG)⁸ ere.

Hizkuntza politikaren kontzepzio berri bat

Euskara gaietan mekanismo legal erabat muriztaileak hartu ondoren, Nafarroako Gobernuak euskara bizi publikotik desagerraraztera bideraturiko hainbat jarduerari ekin zion: irudi korporatiboa, bide eta eraikinetako errotulazioak, lan eskaintza publikoak, argitalpenak, e.a.

Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia (UHPZN), biltzen zituen bi zuzendaritzetako aurrekontuak hartu zituenez, egoera honetaz baliatu zen lehenbizikoaren (Unibertsitate) proiektuak bigarrenaren (Hizkuntza Politika) aurrekontu lerroen kontura burutzeko. Horrela, euskarari buruzko «Galdeketa soziolinguistikoak» egiteko aurrekontuaren 12 milioi pezeta, «Europako Batasunean gehien erabiltzen diren hizkuntzei buruzko (Ingelesa, frantsesa eta alemaniera) galdeketa soziolin-

guistikoa Nafarroako Foru Komunitatean»⁹ egiteko erabili ziren; baita (ordura arte euskarari buruzko) «ikerketarako laguntzak» egiteko 7 milioi pezeta ere «unibertsitateko ikerketa linguistikoak» egitera bideratu ziren¹⁰.

Hauek Nafarroan «hizkuntza politikari» eman nahi zitzaion bide berriaren adibide bi baizik ez dira. Aurreko HPZNren hondarreko eskumenak biltzen zituen Programazio, Ikerketa eta Hizkuntz Garapenerako Zerbitzuan, haren arduradunak, zuzendari nagusiak eta Hezkuntza eta Kultura kontseilariak egiten zuten interpretazio *sui generis* zela eta, bi eginkizun ezberdin bereizi ziren: euskarari buruzko jarduera zehatz batzuetara bideraturikoa eta bestalde hizkuntza politika orokorrera bideraturikoa. Zerbitzu zuzendariak 2001eko uztailaren 6an egindako txosten baten arabera (zuzendari nagusiak ontzat emana):

beraz, hizkuntz aniztasuna garapen pertsonal eta profesionalerako elementu garrantzirik hartzen duen hizkuntza politika dugu, Europako hiritarrak garen aldetik ditugun eskubide guztiak erabil ahal ditzagun, aniztasuna aberastasun iturri gisa eta balio kultural eta sozialtzat hartuko duen hizkuntza politika eta Nafarroako eta bertako biztanleen errealitate soziolinguistikoa errespetatzen duena [sic].¹¹

Hezkuntza eta Kultura kontseilariak hizkuntza politikaren eginkizunak ezartzen zituen interpretazio hori ontzat eman zuen 291/2001 Foru Aginduaren bidez, hizkuntz funtzioak, espreski eta eskusiboki euskarari buruzkoak ez direnean, bai euskarari bai Europako Batasuneko hizkuntza ofizialei buruzkoak direla ulertu behar dela aitortu zuelako.

Planteamendu berrien ikuspegi landuago (eta deliranteagoa) zuzendari nagusiak berak eman zuen 2001eko azaroan Konpostelako Santiagon Hizkuntza Gutxituen Nazioarteko VIII. Biltzarrean (ikus: Pedro Pegenaute Garde, «Política lingüística y educativa en Navarra», in *Actas da VIII Conferencia Internacional de Linguas Minoritarias*, Galiziako Xunta, 2002, 277-283). Han,

Nafarroako Gobernua bera, bertako hiritarrendako hobereña bilatzen duena, euskararen alde diren laguntza ho-

riekin guztiekin batera, gero eta sendoago ari dela nafarrek Europako Batasuneko hizkuntza ofizialak ikas, erabil eta gara ditzaten,

esan ondoren eta

[Nafarroako Hezkuntzan] gure ikasleei hizkuntzak, direnak direlakoak, betiere EBn erabilera ofizialekoak izanik, erabiltzeko beharrezko eskumenak eskaintzea da azken helburua,

eta euskararen, ingelesaren, frantsesaren eta alemanieraren erabilerari buruz konparazio datuak eskaini ondoren, «hizkuntza politika» kontzeptua honela definitu zuen:

Nafarroako Gobernuak berak, Nafarroako gizarteak demokratikoki hautaturiko ordezkari den aldetik, gizarte horretako hizkuntzen egoera eta arazo multzoari irakaskuntza, garapen, erabilera eta balorazioaren gaineko erabakien bidez, eskaini behar dion arreta sistematiko, zorrotz, razional eta antolatua.

Eta horren froga gisa aurkeztu zuen 372/2000 Foru Dekretua, gaztelaniadun elebakarrak kaltetzen dituen ezberdintasun egoera zuzentzen duena, eta hezkuntza sisteman atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza goiztiarra sartzen duena.

Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politika mailako jarduerak

Administrazio publikoetan egindako euskararen aurkako jardueraz gain, hizkuntz normalizazioaren beste alor klasiko batzuetan egin diren nabarmenenak hauexek dira:

Irakaskuntza: Jesús Laguna Hezkuntza eta Kultura kontseilari berriaren lehenbiziko hitzak itxaropentsuak gertatu ziren: «ikastolak ez dira inongo arazoa niñetzat, aukera bat besterik ez dira». Tamalez, haren jarduerak ez ditu bere hitzak bete:

- Ikastola «alegalen» legalizazio prozesua gelditu egin da. Diru laguntzak Parlamentuak ematen ditu zuzenean.
- Klaustro eta eskola kontseiluek aurkako iritzia izan arren, ikastetxe elebidunak bereizten jarraitu dute.

- Irakasleen hautazko euskalduntzea bertan behera utzi da.

- Ez da neurri bakarrez neurtzen: gaztelaniaz 2 edo 3 ikasleko gelak mantentzen diren artean, euskarazko gelak ireki edo erdibitzeko lege eskakizuna (20 ikasle) mantentzen da.

- UHPZnK, Nafarroako Gobernuak 1990etik euskararen alde egiten zituen (UPNren lehenbiziko gobernuak ere egiten zituen) aurrematrikulazio kanpainak bertan behera utzi zituen.

- Euskarari eskainitako gastua murriztu egin da, eta ikusi dugun bezala, funts horiek beste helburu batzuetarako erabili dira.

Komunikabideak:

- Euskalerrria Irratiari emititzeko baimena ukatu egin zaio, Iruña eta Iruñerrian euskaraz emititzen duen irati bakarra izan arren.

- Ez da inolako neurririk hartu lizentzia-hartzaileek euskarazko emisio kuotak errespetatu dituzten.

- Pixkanaka urritu egin dira euskarazko komunikabideendako diru laguntzak. 2002 urtean diru laguntzarik gabe gelditu dira, Euskalerrria Irratiaz gain, *Euskaldunon Egunkaria* (euskarazko egunkari bakarra) eta *Nabarra* (Nafarroa osoan banatzen den euskarazko aldizkari bakarra).

- Euskararen erabilera sinbolikoa egiten duten gaztelaniazko komunikabideei emandako diru laguntzak handitu dira. Gehien handitu duena *Diario de Navarra* da.

- Horrek guztiak inolako normalizazio irizpiderik gabe banatzen diren diru laguntzen erabilera politikoa erakusten du.

Euskararen inguruko hainbat «mamu»

Ezin dugu alde batera utzi UPN euskal nazionalismoari aurre egiteko sortu zela. Haren sorrerako hainbat mamu indarberrituz agertu dira azken urteotan.

Euskal Herria. Emeki-emeki kultur mailako lurralde definizio gisa ezartzen ari zela zirudienean, UPNk erakutsi zigun «tranpa-terminoa» dela:

Nafarroako Gobernuak ez du onartuko (...) inongo helburu politikoa lortu nahi izatea, ez eta Euskalherriarena ere, zeina, beste garai batean askorentzat kontzeptu kultural eta linguistikoa izan bazen ere, 1979tik, Gernikako Euskal Estatutua onetsi zenetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren izen politikoa izatera pasatu baitzen besterik gabe eta hori, begi-bistakoa denez, ez da Nafarroa. Euskarak, azken finean, ez luke loturarik izan behar helburu politikoekin. Baina eduki baditu. Horregatik, Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak, nafar gehienek izenean, errefusatu egiten du hainbat partidu politikok, fikziozko hizkuntz argudioak erabilita, gu Euskalherrian sartzeko egiten duen euskararen erabilera. (Pedro Pegenaute Garde, *loc. cit.*, 283. or.)

Ikuspegi horren biktima Eusko Ikaskuntza izan zen. 2001eko urtarrilean Nafarroako Gobernuak 12 milioi pezetako diru laguntza geldiarazi zuen eta hitzarmena hausteko mehatxu egin zuen. Arrazoiak: Añamendi entziklopediak, Eusko Ikaskuntzak haren Internet bidezko sarbide prozesuan ezarritakoak, UPNkoen gustukoak ez ziren Nafarroari buruzko hainbat sarrera ematen zituen. Jaime Ignacio del Burgo, Nafarroako Foru Diputazioko presidentea zela, patronatutik atera zuen 1980an, eta aipatu entziklopediaz ari zela, hauxe esan zuen: «nolabaiteko aniztasun ideologiko eta zientifikotasun irizpideen azpian, euskal kulturari buruzko guztia bahitua dago nazionalisten eskuetan» (*Diario de Noticias*, 2001-01-14).

Alferrik izan zen gainerako partidu eta sindikatu guztiak Eusko Ikaskuntzaren alde agertzea: haren presidentek barkamena eskatu behar izan zuen eta entziklopediaren *on-line* kontsulta kendu zen.

Oraintsu Euskaltzaindiaren txanda izan da. 2000 urteko martxoan Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak eta hiru diputazioek bost urterako finantziario akordioa bermitu zuten. HPZNren azken ekintzetako bat izan zen, urte horretako ekainean dimititu baitzuen. Talde berria Euskal Autonomia Erkidegoarekin ziren harremanak hausten hasi zen, Euskal Herriari buruzko edozein aipu desagerrarazten, Nazioarteko Hizkuntzen Azoketan elkarrekin agertzea bertan behera utzi zuen, Galdeketa Soziolinguis-

tikoetan laguntza ukatu zuen, baita Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Kontseilariordetzarekin izan zitekeen edonolako harremanik ere. Nafarroako Gobernuak Nafarroako identitatea eta errealitate politiko eta kulturala errespetatuko zuten testuliburuaren beharraz hitz egin zuen. 2001ean Udako Euskal Unibertsitateari diru laguntza kendu zioten. Euskaltzaindia baizik ez zen falta, Euskal Herri osoan jarduten duen izaera ofizialeko erakunde bakarra, alegia.

Zuzendari nagusiak argi utzi zuen (elkarrizketa *Diario de Navarra*-n, 2002-05-05):

Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiarekin lankidetzan jarraitu nahi du, baina formula berriak ezarri nahi ditugu, iraganeko egoeren ondorio diren bitarteko oztopo administratiborik gabe. Hitzarmen zehatz eta alde bikoa nahi dugu, zeinean Euskaltzaindiak bere jarduerak guztietan Foru Komunitateko errealitate politiko, instituzional eta administratiboaren errespetatzeko konpromisoa berretsiko baitu. Nafarroako Gobernuak ematen dizkioten proiektuak finantzatuko ditu. Izan ere, horrela, Nafarroan politizazioerik gabeko eta interpretazio okerrik gabeko harremanak ezarriko dira euskararen alde (...)

Hiru euskal diputazioek eta Nafarroakoak sortutako Euskaltzaindiak, gertaera historikoen baliatuz, aurrerapausoa eman zuen, eta Eusko Jaurlaritza ezarri zuen bere jardueren buru, Foru Gobernuak «eliz mutil», finantziatzaile hutsa jarri. Ba kitto. Kontsulta erakunde da (...) 1918ko hitzarmen-markoa mantenezina da. Ez da diru laguntza finkorik izango. Foru Gobernuak berak enkargatzen dituen jarduerak ordainduko ditu. Eta enkargurik ez baldin badago, ez da dirurik izango. Gure diru ekarpenak zertan inbertitzen diren jakin nahi dugu (...)

2002ko ekainean Nafarroako Gobernuak hautsizat eman zuen Hitzarmena (Euskaltzaindiak aurreko urteko diru laguntza galdu zuen), eta azaroan sinatuko zen alde biko hitzarmen berria egiteko asmoa adierazi zuen. Bertan, Nafarroako Gobernuak lan eta proiektuen gainean duen kontrola onartzen da. Zuzendari nagusiak jakinarazi zuen ez zela «Euskal Herria» izenean aurkeztutako bat bere ere onartuko.

Euskara batua: Euskal Herria proiektu nazionalistaren lurraldea izendatzeko «tranpa-izena» baldin bada, *euskara batua* horren eraikuntzan oinarritzko instrumentuetako bat da. Hura euskalkien gainean «inposaturiko» hizkuntza «artifiziala» litzateke, euskal estatu «artifizial» hori eratze-ko aurreko urratsa:

Batua euskalherritar nazioa eratzeko oinarritzko ardatza da. (Jaime Ignacio del Burgo, *El caso de los falsarios*, 2000, 84. or.)

Historiak erakusten du hizkuntza gutxituak beti ari direla beren burua defenditzen, batzuetan ez hainbeste gehien- goen hizkuntzen eraginagatik baizik eta beren hiztunen utzikeriagatik. Eta arazo hori areagotu egiten da arrazan oinarritu ezinik, hizkuntzan oinarrituriko nazio berri bat eratzeko asmoz hizkuntza gutxitu hori politizatzen de- nean eta mende luzeetatik existitzen den nazioa suntsit- zeko erabiltzen bada (...)

Akats larria egin da euskal hizkuntza batzean, gure ar- basoek hitz egin ez zuten hizkuntza artifiziola sortu bai- ta. (Fco. Javier Octavio de Toledo, «La lengua compañera del imperio y Euzkadi», *Diario de Navarra*, 1999-03-09)

Ikastolak Ikastola (oso gutxitan aipatzen da irakas- kuntza publikoko D eredua) euskal ideologia nazionalista eta doktrinamendu politikoa jorratu eta jasotzeko leku berebizikoa da:

Gaur egungo euskal nazionalismoaren doktrinamenduak hainbat ezaugarri agertzen ditu. Ez dago espiritu nazio- nalaren eraketa izeneko irakasgairik, baina postulatu na- zionalistak —nazio bat gara, euskara da gure identitate nazionalaren oinarria, gure herria bi Estatu zapaltzaile- ren artean banaturik dago, autodeterminazioa eskubidea da, Espainiak ez digu inoiz ezer onik eman, gaztelania inposaturiko hizkuntza da, etsai indartsuen aurka bizi izan gara beti— diziplina guztietan agertzen dira. (Jaime Ignacio del Burgo, *loc. cit.*, 109. or.)

Lan honetan ezinbesteko laguntzaileak dira

irakasleetako asko (...) Gipuzkoan edo Bizkaian errekluta- tuak (...) Haietariko asko abertzaletasun erradikaleko mili-

tanteak dira eta hezkuntza arloan ustezko Euskal Nazioaren Askapenerako Mugimenduaren puntako taldea da. Ez da harrizkoa ikastetxe askotan irakasleak izatea ikasleak erresistentzian parte hartzeraz bultzatzen dituztenak: greba politikoak, «preso politiko» aldeko kontzentrazioak, ibilaldiak, kanpaldiak (...) Edozein helburu —euskarara itzulitako leloa baldin badu— ona da. Hurrengo urratsa «kale borroka» izango da, hala ere gutxi batzuk (...) iritsiko dira ETAn sartzeraz, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko borrokalarien abangoardiak militatzeko erakundea. Horixe da jorratzen dena, nahi eta nahi ez, ikastola askotan. (Jaime Ignacio del Burgo, *loc. cit.*, 92. or.)

Eskola liburuak: Euskal nazionalismoak lan politiko eta ideologikoa burutzeko garrantzi handiko tresna du: eskola liburuak:

Esaten ari naizen bezala (...) urte asko dira ikastola batzuetan Espainia gorrotatzen irakasten zutena. (...)

Oinarrizko ikasketan Euskal Herriko geografia eta historia ezartzeak berak hezkuntza norabide politiko jakin batean bideraturik dagoela adierazten du. (Jaime Ignacio del Burgo, *Diario de Navarra*, 2000-06-30)

Gai horri dagokionez, Nafarroako Gobernuak neurriak hartu zituen eta 2001eko ekainean 70 mila euro baino gehiagoko diru laguntzak ezarri zituen gaztelaniazko eskola liburuak euskarara itzultzeko; era berean, hurrengo ikasturterako eskola liburuetarako kontrola ezarri zuen legeen bidez.

Ikurriña: Nafarroatik uxatu beharreko euskal nazionalismoaren ikurra, azken urteotan ikurriña eraso askoren helburua izan da.

2002ko abuztuan Nafarroako Gobernuak presidentek ikurrei buruzko lege berri bat iragarri zuen, ikurriña jartzen zuten herri erakundeak ekonomikoki zigortuko zituen. Gainerako talde parlamentarioen aurkako jarrera ikusita, badirudi ekimenak ez duela aurrera egingo¹². Honez gain, Nafarroako Parlamentuaren Zerbitzu Juridikoak inkonstituzionaltzat jo du gobernuaren lege-proiektua (*Euskaldunon Egunkaria*, 2003-02-18).

372/2000 Foru Dekretuari buruzko Nafarroako Justizia Epaitegi Gorenaren Epaia

Ez-ohiko abiadaz (18 hilabete) Nafarroako Justizia Epaitegi Gorenak (NJEG) 2002ko ekainaren 26an epai baten bitartez 372/2000 Foru Dekretua erabat baliogabetu zuen. NJEGren Auzietarako Gelako sei epaileek, aho batez, erabakia hartu zuten Nafarroako Euskararen Kontseiluaren eta Nafarroako Gobernuaren Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren txostenak nahitaezkoak direla arautegi berria abiarazteko adieraziz.

Nafarroako Gobernuaren erreakzioa

Gobernuak berehala aurkeztu zuen kasazio errekurtsioa Espainiako Epaitegi Gorenean¹³ eta Nafarroako Euskararen Kontseilua (NEK) berrantolatu zuen edukian aurrekoaren berdin-berdina zen Dekretu berriaren aldeko txostena lortzeko xedez¹⁴.

NEK hogeiki kidez osatzen da: Gobernuko lau goi kargu, Euskaltzaindiko presidentea, erakundeetako zortzi kide eta «*euskara eta euskal kulturaren eremuan ospe handiko pertsonen artean izendaturiko*» zazpi (2.1.g artikulua). Hura kontrolatu nahian, Gobernuak konfiantzazko hiru funtzionario izendatu zituen (haietariko batek aitortu zuen ez zekiela zergatik izan zen izendatua), euskararen aurka idazki bortitza argitaratu duen idazle bat eta unibertsitateko hiru irakasle, haietatik batek bakarrik dakielarik euskaraz. Gainera, NEK berriak egindako lehenbiziko bileran arautegi bat onetsi zuen: haren bidez presidenteak edozein eztabaida geldiarazteko ahalmena du eta gainera soilik hiru laguneko quoruma ahalbidetzen du.

Aholkuak eman behar dituen edozein Kontseiluren oinarrizko eginkizuna iritziak alderatu eta ondoren gobernuan aurkeztuko diren proposamenak hitzartzea da. Legearen arabera, NEK-k ondoko eginkizunak ditu (4. artikulua):

- A) Hizkuntza politikari buruzko plan nagusiak eta arau proiektuak jakinaraztea onetsiak izan baino lehen. B) Gobernuak planifikazioari eta hizkuntz normalizazioari

buruz mahairatzen dituen gaien gaineko iritzia ematea. C) Gobernuari proposamenak egitea euskararen erabilera eta sustapenari buruz. D) Indarreko xedapenek espreski esleitzen dioten beste edozein eginkizun.

Gobernuaren asmoa erabat instrumentala zela ematen du: beren Hizkuntza Politikaren¹⁵ oinami legala baliogabetzean harturiko kolpe gogorrari aurre egiteko, Dekretuaren aldeko txostena lortzea. Izendapen berriekin, Gobernuak zuzenean kontrolatzen zituen hamaika izendapen.

Administrazioko Sindikatuen Mahaiak eta udal eta kultur entitate askok uko egin zioten Foru Dekretu «berriari»¹⁶.

Nafarroako eliteen portaera¹⁷

Edozein jarduera sozial edota politiko aztertzean oso interesgarria izaten da beren gaitasun pertsonalengatik edo gizartean duten garrantziagatik iritzi publikoa sorrazten duten pertsonen portaera aztertzea. Haien diskurtsoak, komunikabideek hedatua izaten denak, modu erabakigarrian eragiten du bai hiritarrek bizi duten errealitatea antzemateko eta sortzeko moduan, baita eraldaketa sozialaren prozesuetan ere.

UPNko buruzagiek euskararekiko adierazten zuten maitasun erretorikoa, beren praktikarekin lotsagabeki bat ez etortzeaz gain, nolabaiteko prebentzioa zen, euskal hizkuntza eta kulturaren aurkako eraso zuzen batek beren egiazko sentimenduak eta usteak erakusten ahal zituelako.

Gobernuaren politikaz gain, deigarri suertatzen da gobernuaren politika antieuskaldunari babes ideologikoa emateko lanean hiru iritzi-ildoren bateratzea:

1. *Diario de Navarra*-Jaime Ignacio del Burgo¹⁸. Nafarroako eskuin tradizionalaren diskurtso historikoa errepikatzen du. Diskurtso horrek, XX. mendearen lehen hereanean doktrina ezkertiar edota ez konfesionalei aurre egiteko balio ideologiko handikoa izan arren, balio funtzional hori geroago galdu egin zuen elementu erretoriko hutsean geldituz.

2. Are deigarriagoa da Nafarroako Gobernua bera ateratzea komunikabideetara hizkuntza politika gaian duen jarrera defenditu/justifikatzera (ordura arte aski zuen legea ez betetzea inolako justifikaziorik eman gabe). Ikusi dugun bezala, gobernua bera, Pulido jaunaren eta Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusiaren bidez, euskararen gaian garatzen duen politika justifikatzen hasi zen¹⁹.

3. Euskararen aurkako diskurtsoan sartu den azken ildoa, eta berritzaileena, unibertsitateari loturiko pertsonak eta UGTko eta Nafarroako Partidu Sozialista PSN-PSOeko alde eskuindarreneko pertsonak osaturikoa da. Ustelkeria kasuengatik (Urralburu, Roldán, Otano...) suntsituriko PSNren testuinguruan, hasiera batean gestora eskuinzale²⁰ batek zuzendurik, partidu proiektu definiturik gabe eta lider argirik gabe, zenbait militante eta sinpatizante sozialista iritzi publikoan agertu ziren, Nafarroako eskuinaren argudio zaharkituak ideologia liberal eta progresista kutsua duten beste argudio modernoekin nahasturik²¹ azalduz.

Haien artean adierazgarriena Aurelio Arteta da, Euskal Herriko Unibertsitatean Filosofia Moral eta Politikoko katedraduna; hura iritzi publikoan agertzen hasi zen 1997an diskurtso berritzailea ekarriz. Hona hemen azken adierazpenetako²² oinamizko puntuak:

- Hizkuntz normalizazioaren kontzeptua eta lana euskara ama hizkuntza duten nafarrei bideratu behar da, gainerako heritarrak alde batera utzita, *euskaldunberriak* barne, nahiak ez direlako *per se* eskubide bihurtzen.

- Soilik egiazko hitzunei dagokie beren hizkuntzarako eskubidea. Hizkuntza politika justua hiritarren egiazko hizkuntzaren arauak erregulatzen dituen da eta ez irudimeneko edo gogoko beste hizkuntza batenak.

- Hizkuntza eskubidea ez da eskubide naturala ez eta balizko hitzun zehaztugabe baten eskubidea ere, gaur egungo hitzun zehatzena baizik.

- Bigarren mailako irizpide gisa, eta irudimen edo sentimendu mailan duen balioa dela eta, *babes printzipioa* onar zitekeen euskararen ondarea gorde eta sentimendu horien aurka ez egiteko xedez.

- Euskararen koofizialtasuna Nafarroan zentzugabea izateaz gain injustizia handia, fikzio hutsa eta legearen aurkakoa izango litzateke. Gainera, gure hiritarrak kalte-tuko lituzke pribilegio bat eskubide gisa emateagatik eta faltsukeria egia bezala onartzeagatik.

- *Eskubide berriek* funts publikoetatik atera beharreko gastu berriak sorraraziko lituzkete, funts horiek ez bairik gabeko egiazko eskubideak eta guztion beharrak betetzera bideratu beharko liratekeen bitartean (lana, etxebizitza, e.a.).

- Tentsio handia sortuko litzateke gizartean: politika horien porrota ez litzaioke errealitate gordina rekin talka egitean harturiko kolpeari egotziko, une horretan boterean dagoen gobernuaren borondate txarrari baizik.

- Helburu (euskal) nazionalista eta haren zatiketa plana lagunduko lirateke.

- Gaur egun arte hizkuntza politikak bateratu, babestu eta diruz lagundu du euskara, hura sustatzeko hezkuntza politika garatu eta lanpostuak eta abantailak ematen dizkion lan politika garatu du.

Etorkizun hurbileko jarduerarako urratsak

UPNren euskararen aurkako jarrerak bere fruituak eman ditu. Gainera, alde izan ditu PPrent frentismoa, PSN-PSOEn politik alderraia, euskal nazionalismoaren maximalismoa eta *euskaltzaletasunaren* kriminalizazio politiko eta soziala, ETAren terrorismoaren ezaugarrietako bat bezala aurkezten dutelako. Gizarte tentsioko edozein egoera ondo datorkio beren estrategia frentistari (baita ETArena eta bere proiektu totalitarioarena ere).

Ematen du UPNren asmoa euskara normalizatze borondatearen garapena geldiaraztea dela, batez ere hiru oinarriko funtziotan (administratiboa, irakaskuntza eta sinbolikoa), horietan, hain zuzen, Gobernuak nahi ez bazuen ere, normalizazio xumea egiten ari baitzen. UPNren estrategia hori²³ une honetan bat dator PPK Euskal Autonomia Erkidegorako diseinatu duenarekin²⁴: euskal nazionalismoaren eta espainiar nazionalismoaren arteko fre-

tismoa Lizarrako Itunaren ondoren, Estatuaren botere guztiez eta eskura edota beren zerbitzura dituzten komunikabideez baliatuz²⁵.

Enfrentamendu eta *gena zikin*²⁶ egoera honetan, euskara (eta euskal kultura orokorrean) helburu bihurtu da: alde batetik, euskal nazioaren eraikuntzan duen sinbolo-identitate balioagatik; bestetik, *euskal terrorismoaren* beste aldagai bat bezala susmagarritzat jartzeak kulturalki euskaldun sentitzen diren baina nazionalista ez diren pertsona guztiak urruntzeko balio du.

Berez ez legoke inolako arazo teknikorik Nafarroan euskara koofizial egin ahal izateko²⁷. Epaitegi Konstituzionalaren 82/1986 Sententziak honakoa ezarri zuen (2. oinarri juridikoa):

(...) hizkuntza bat, fenomeno sozial gisa duen errealitatea eta pisua alde batera utzita, ofiziala da botere publikoek berorietan, beren artean eta subjektu pribatuekin dituzten harremanetan komunikatzeko tresna arrunt gisa erabateko balioa eta ondorio juridikoak onartzen dizkiotenean (...).

Alderaketa eginez, nolabaiteko erreferentea aurkitu ahal dugu Valentziako Autonomia Erkidegoan, bi lurralde-espazioak linguistikoki oso definituak baitaude²⁸. Hala ere, Valentziar Hizkuntza Erabili eta Irakasteko Legeak valentziar hizkuntza administrazio publikoen bertako hizkuntza ofiziala dela ezartzen du.

Edonola ere, ez du ematen Nafarroan partidu nagusietako bakar batek ere euskara koofiziala izatea nahi duenik. Gaur egungo baldintzetan kaltegarria ere izan zitekeen, sorraraz lezakeen tentsio politiko eta sozialagatik (errealia edota eragindakoa).

Erantzun inteligentea gauzatzeko, inolako ezarpenik gabe, adostasun sozial eta politiko handia berreskuratu beharko litzateke, herritarren borondatea errespetatu eta erakunde publikoak nafar guztien eskura jarrita. Horri dagokionez, ezinbestekoa dirudi PSN-PSOEek buruzagitz hartzea duela hogeit baina urte gehiagoko gehiengoaren adostasuna gauzatu ahal izateko: Trantsizioaren hasieran, ez-nazionalisten artean ere, gizartean hedaturik zen nafar

guztion identitate ezaugarriak ziren euskara eta euskal kulturari nolabaiteko «kalte-ordaina» zor zitzaizela frankismoan pairaturiko jazarpenagatik. Bai UPNren bai euskal nazionalismoaren jarrera gogorrek urteetan atzeratu dute euskararen normalizazioa, eta Nafarroako Foru Komunitatea gizarte zatiketarako zorian paratu dute.

Euskal nazionalismoak alde batera utzi behar du indarkeria eta totalitarismo kutsua duen bi komunitate finkoen (euskaldunak/espainiarrak) tesia; euskara eraikuntza nazionalaren funtsezko oinarri bihurtzen duen neurrian, hizkuntz normalizazio eta gizarte planteamenduetatik urruntzen du gizartearen gehiengoa. Testuinguru horretan, gero eta ugariagoak dira identitate planteamendu *euskaltzaleetatik* urruntzen diren pertsonak; euskal nazionalismoaren izenean oinarritzko giza eskubideak errespetatzen ez diren artean, gero eta gehiago dira hizkuntz eskubide jakin batzuk haustearen alde agertuko liratekeenak gizartearen bakea izatearen truke²⁹.

Euskara eta euskal eraikuntza nazionala urte gehiegitan lotu izan dira. Nafarroan, *euskaltzaleetasunaren* muga politikoak gaur egun nahiko finko agertzen diren arren, euskara eta euskal kultura pixkanaka hedatzen ari dira gizartearen. Euskara hilko ez bada, borroka politikotik bereizi beharra dago. Euskal nazionalistendako hori oinarritzko identitate ikurrari (euskara) uko egitea litzateke, eta ezaugarri kultural eta sozial komuna izatera pasatuko litzateke (eta hori bera ere arrakasta litzateke), eta gainerako partiduendako maitasun eta errespetu aldarrikapen erretoriketatik haratago joateko aukera izango litzateke.

Beste alde batetik, euskararen normalizazioaren aldeko borroka orain arte oso gutxi aztertutik bi eremutan sartu da: judiziala eta europarra. Alde batetik, nafarren hizkuntz eskubideak defenditzeko *Artekaria* zerbitzua bezalako ekimenak, Nafarroako Gobernuaren edo Iruñeko udalaren arau eta jardueren aurka jarritako errekurtso mordoa, defentsarako tresna berriak dira (eremu judiziala Estatu etsaiaren *aparatu* bezala ikustetik, *joko arau* demokratikoak dituen eremu bezala ikustera pasatzea). Beste aldetik, izaera sozialeko erakundeek europar entitate eta fo-

roetan (Europako Hizkuntza Gutxituen Bulegoa, Europako Kontseilua, Europako Parlamentua, Unesco, e.a.) parte hartzeak Foru Komunitatearen mugetatik at Nafarroan euskararen errealitatea erakustea ahalbidetzen digu.

Nafarroan euskararen normalizazioaren aurkako diskurtsoek arrakasta politiko eta sozial handia izan dute, gizarte zatiketa arriskua handitu duten aldi berean. Gaur egun euskararen aldeko tesiak ia oihartzunik gabekoak dira beren eremuetatik kanpo. Isiltasun hesi hori hautsi beharra dago.

Era berean, euskararen normalizazioaren aldeko diskurtsoari buruzko hausnarketa premiazkoa da. Azalpen honetan zehar jarraibide batzuk eman ditudalakoan nago.

Ondorioa

Elebitasun ofizial eta sozial, mailakatu eta boluntarioaren aldeko apustua Nafarroako indar politikoen oinarritzko konpromisoa izan beharko litzateke. Zentzu honean, Nafarroako Parlamentuak gaur egungo osaera duen artean, *euskaltzaletasunak* bira estrategikoa egin beharko luke: euskararen koofizialtasunaren apustuan tematzea politikoki antzua eta sozialki frustragarria baita. Ematen du estrategia global batek zentzu handiago duela, PSOE-EA Akordioa berreskuratu eta euskarari buruz Udal Aginduak sortzea (edo direnak abian jartzea)³⁰, gizarte eta kultura mailan *militantzia euskaltzale* maila handiarekin, ofizialtasun maila nahikoa ekarriko eta herritarren borondate askea gehiago errespetatzea posible egingo zuena. ¶

-
1. Gaur egungo Legegintzaldian LORAFNA eraberritua izan da: orain ez du aginduko boto gehien eskuratzen dituen partiduak, laguntza parlamentario gehien dituenak baizik.
 2. *Deskalifikazio garratzak* (UPNk eta PSNk beren lanari buruz emandako iritzi eta txostenengatik) eta *maniobra politikoak* besterik ez zegoen giroan lanean jarraitzea ezinezkoa zitzaieela adierazi zuten

dimititu zutenek. Gainera, Gobernuak garatzen zuen politikaren barnean zuzendaritza nagusiaren euskara sustatzeko helburua zentzugabea zela uste zuten, Gobernuak ez baitzituen beren iritziak kontuan hartzen (ikus *Diario de Noticias*, 2001-01-14).

3. *Boluntarismo birtual* saio berri batean, 175 udal eta kontseilutako 625 karguk 2001eko ekainean berriz eskatu zuten euskararen ofizialtasuna Nafarroa osorako. Noizean behin koofizialtasunaren aldeko ekimen berriak sortzen dira, nire ustez frustrazioa eta desmobilizazio soziala besterik ekartzen ez dituztenak.
4. 2001eko lan eskaintza publikoko hainbat deialditan hizkuntzei buruzko baremoak agertzen dira: 2 puntu ingeles, frantses edo alemanierak eta 2,2 puntu euskarak, baina azken hau soilik zonalde euskalduneko lanpostuetarako.
5. Badirudi presidentearen aholkulari jaunak ez dituela ezagutzen Nafarroako Gobernuaren datuak, Iruñean eta Iruñerrian eremu euskalduna deitutakoan baino euskaldun gehiago dagoela, alegia.
6. Ikus *Diario de Noticias*, 2000-05-07. CCOO, LAB eta ELA sindikatuen salaketaren arabera, Nafarroako Gobernuaren langileen plantillan euskara eskakizuna duten lanpostu kopurua 248tik 153 izatera pasatu da, Hezkuntza eta Kultura Departamentuan bilduak: ikasketa zentroetan irakasleak ez diren 27, Departamentuko bertako langileak eta Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko langileak, eta Euskara Zerbitzukoak; horiei Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko den Nafarroako Aldizkari Ofizialeko itzultzaileak gehitu behar zaizkie (ikus *Diario de Noticias*, 2001-07-03).
7. Hizkuntza Gutxituen Europako Bulegoaren presidentek geroago adierazi zuen Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika ez zela egokia eta gai horren inguruan hartzen dituen erabakiak berraztertu beharko lituzkeela (ikus *Euskaldunon Egunkaria*, 2001-06-01, 15. or.); aldi berean, aniztasunaren aurkakoa eta gatazka frentistaren aldekoa zelako salatu zuen (ikus *Deia*, 2000-06-01, 17. or.).
8. 372/2000 Foru Dekretuaren aurkako arrazioen laburpen bat jasotzeko, ikus: Iñaki Agirreazkuenaga Zigorraga, «Nafarroako Administrazio Publikoetan Euskararen Erabilera Arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren legaltasunari buruzko Irizpidea», *Eleria* 8, 65-91.
9. Hartan, galdetegiaren bidez euskara eta Europako gainerako hizkuntza komunitario (ofizialak) kontrajarri nahi ziren, *de facto* bateraezinak balira bezala aurkezturik.
10. Espediente horren kronika xehetua jasotzeko, ikus nire artikulua: «La política lingüística de Pegenaute: una chapuza y algo más» (*Gara*, 2001-11-11).
11. Interpretazio hori aldeaz aurretik baztertu zuen UHPZNren beraren abokatuak, martxoaren 8ko txosten batean, honela zioen: «Zerbitzuari dagozkion eginkizun guztiak (...) Euskararen Foru

- Legearekin interpretatuak eta hari lotu beharko zaizkio, eta hizkuntza horri dagokionez, hark definituriko helburuei, eta ezin izango da interpretatu aipatu Zerbitzuak jorratu beharreko 'hizkuntza politika' hizkuntzen alor orokorrari edo haietariko batzuei (europar hizkuntzak...) dagokienik».
12. Auzi honen inguruan artikulu bat kaleratu nuen, non Nafarroako bandera ikurriña baino beranduago hainbat euskaltzalek burutu zutela Diputazioaren eskaerari esker argi azaltzen zen («Señas de identidad», *Gara*, 2002-09-05).
 13. Oraindik ebatzi gabeko helegitea.
 14. Indarreko Nafarroako Euskararen Kontseiluak ezin zuen beharrezko quoruma lotu 1999ko urtarrilean 20 kideetako 12k dimisioa aurkeztu lortetik, aipatu «Kontseiluak bere eginkizunak galdu baitzituen Foru Gobernuak ez zituelako beren proposamenak eta eskaerak aintzat hartzen, aitzitik, saihestu egiten zituen eta, gainera, aurkako jarrera hartzen zuelako» (ikus *Diario de Noticias*, 2001-01-14).
 15. Horren froga, orain arte (2003-02-17) ez direla berriro bildu.
 16. Nafarroako Gobernuak Foru Dekretu berria 2003ko otsailaren 10ean onartu zuen (*NAO*, 2003-02-12).
 17. Nafarroan euskararen normalizazioari buruzko diskurtsoak aztertzeko: Xabier Erize, *El discurso contrario a la «normalización» de la lengua vasca en Navarra (1997-2002)*, argitaratzeaz.
 18. Aurretik azaldu ditut *El caso de los falsarios* bere liburuan sistematizaturik agertzen diren iritzietako batzuk.
 19. Nafarroako Gobernuak 2002-10-15ean prentsa oharra atara zuen Euskara Kultur Elkargoa fundazioari, epaitegietan errekurtsoak etengabe jartzen ari zela eta, hizkuntza politika oztopatzea egotzirik.
 20. Haietako buruzagi batzuek (esaterako Víctor Manuel Arbeloa edo Lola Eguren) dagoeneko utzi dute PSN.
 21. Analisi zorrotzenetakoa eskaini du Joan Mari Torrealdaik: «Hizkuntz politikaren auzia», *Jakin* 123/124, 2001, 11-164.
 22. *Diario de Navarra*-n argitaratu dituen «Por un hermoso debate» (2002-11-11), «A cada cual, según su lengua» (2002-11-23), «Sin morderse la lengua» (2002-11-26) eta «La gran evasión» (2002-12-15) artikuluetan oinarriturik egindakoak, artikulu honen autoreaekin izandako eztabaidan.
 23. Ez da ahaztu behar UPN sortzeko helburuetako bat euskal nazionalismoaren aurkako borroka dela. Horri dagokionez, Unibertsitateen eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren azken jardueretako batzuk ekar ditzakegu gogora: eredu elebidunetan aurrematrikulazio kanpainan lagundu edo parte hartzeari uko egitea; Nafarroan euskararen ikerketa soziolinguistikoak egiteko funtsak Nafarroan frantsesa eta ingelesaren ezagutza aztertzeko erabiltzea; euskararen aldeko kanpainak egiteko zen aurre-

kontu dirusail batekin, Kixoteari eta Marco Polori buruzko erakusketa bana kontratatzea (euskararen agerpena testu batzuen itzulpena mugatzen da); Udako Euskal Unibertsitatearen hitzarmena salatzea, diru laguntza ukatzearekin batera; (gaur arte) euskararen aldeko kultur ekimenak gauzatzeko diru laguntzetarako deialdia ez egitea; Nafarroako Unibertsitate Publikoa inoiz ez dela elebiduna izango adieraztea; komunikabide euskaldunei diru laguntzak ukatzea; eta, oraingoz, Iruñeko Udala Nafarroako Administrazio Epaitegiaren elebitasunaren aldeko sententziak errekurritzera bultzatzea (arrakastarik gabe, oraingoz...).

24. Eta, azkenik, Estatu osorako: Mayor Orejak 2001eko maiatzeko hauteskundeen ondoren onartu zuen hauteskunde estrategia Madrilen diseinatua izan zela. Era berean, UPNtik gertuko pertsonen testigantzak izanik, esango nuke Nafarroan euskararen aurkako ekintza batzuen atzean PPren eskua dagoela.
25. Estrategia honetan komunikabideek duten zeregina aztertzeko, ikus: José Ignacio Ruiz Olabuenaga, *Opinión sin tregua*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 2001.
26. Azken pasarteetako bat Unibertsitate Publikoan gertatu zen. Ikasle, guraso, irakasle eta irakasleak ez diren langileak euskararen normalizazioaren alde bildu ziren, polizia bortxaz sartu zen eta 77 detentzio egin zituen (2001-06-06). Errektoretzak, polizia-ri deitu zion berberak, neurri hori justifikatu zuen entzierroa eskolaz kanpoko jarduera politikoa zela adierazita. Kasua Epaitegietara iritsi da eta artxibaturik dago (2002ko abendua).
27. Izan ere, Nafarroako Parlamentuaren aldarrikapen ofizial batek honela ezarri zuen: «Lehena. Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza ofizialak izango dira. Bigarrena. Printzipio hori Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko Lege Organikoaren oinarrietan sartuko da» eta era berean «Foru Parlamentuaren eskumen osoa izango du Lege baten bidez arautua izan dadin» (*Nafarroako Parlamentuko Aldizkaria* 34, 1980-10-18). Dakigun bezala, LORAFNAk euskararen ofizialtasuna soilik eremu euskaldunerako onartu zuen.
28. Iparraldeko eta Erdiko kosta zatian eta barneko iparraldean katalanerazko hiztunak dira; hegoaldeko kosta zatian eta barneko erdian eta hegoaldean gaztelerazko hiztunak.
29. Irailaren 11koaren ondoren, ematen du mendebaldean bakea eta segurtasuna handitzearen alde daudenen kopurua handituz doala, askatasun politiko eta sozialak murriztearen truke bada ere.
30. Gaur egun, besteak beste, euskarari buruzko Aginduak dituzte ondoko udal eta mankomunitateek: Iruña, Barañain, Burlata, Berriozar, Antsoain, Uharte, Zubieta, Bortziriak eta Sakanako mankomunitateak, Olazagutia eta Atarrabia. Izan ere, Nafarroako biztanle guztien bi heren osatzen dute.

Euskara Nafarroan atzo eta gaur

JOSE MARIA SATRUSTEGI

ez da lehen aldia *Jakin* aldizkariak Nafarroa gai bartzat hartuta zenbaki berezia plazaratzen duena. Duela 25 urte, 1978an hain zuzen, bigarren aldiko seigarren zenbakian hamar idazleren ikuspegitik landu zuen erreinu zaharreko kultura, historia, hauteskundeak, administrazioa, ekonomia eta etnografia. 'Nafarroa bahitua' zioen orduan, edukien funtsa laburbilduz, hitzaurreko izenburuak.

Asko aldatu da mende laurden honetan Nafarroa; hitz bakarra aipatzea aski da hizpide nagusien muinean sartzeko: euskara alegia. Agintarien aldetik nafarren hizkuntza gaur egun jasaten ari den eraso bortitza, bahitu ez ezik, odolustu eta itotzeko plangintza maltzurtean kokatzen da. Gertakizuna ez da, noski, bapateko zipriztin soil, ur sako-neko uhin bulartuen gailurra baizik, eta ulertezina da hainbesteko amorrua, ekintza soil bezala islatuz. Gizartea eta historia bere orokortasunean uztartzen dituen prozesu konplexuan ikusi behar da une honetan Nafarroaren egoera.

Ohiko baserri giroa

► **Jose Maria Satrustegi** antropologoa, etnografoa eta euskaltzaina zen.

Euskararen patua Nafarroako historia zaharrean barrena baserri giroko hizkuntza izana da. Euskara zekiten legegizon, eskribau eta idazle asko izan da beti hegoaldean, baina beste mintzaira batzuetan maisu. Erregeen jauregi-ko izkribu eta administrazioko paper zama erraldoietan ez zuen euskarak inoiz sartzerik izan, bertakoen hizkera nagusia izan arren. Antzeko zerbait gertatzen zen gizarte mailan. Erdi Aroko hiri berri babestuen plangintzan, adibidez, esanguratsua da Lizarran gertatua, Antso Ramirez sortzaileak espreski baztertu baitzituen 1090ean hirigunetik nafarrak, frankoei bakarrik emanez foruen baliabidez bertan bizitzeko eskubidea. Hori bera errepikatu zuen Antso Jakitunak 1187an bertako judu eta merkatari arrotzen mesedetan. Prestigiorik eza da historian zehar hiri hizkuntzaren itzal luzea.

Askoz beranduago, geure egunetan, apaltasun bezala hartu izan du euskaldunak bere hizkuntza. Altsasuko emakume batek honako hau aitortu zidan bere zahartzaroan: «Haurrak ginela, euskara pobrien gauza zela uste ginuen. Erdara zakitenak, aberatsak. Zenbat inbidi pasatzen ginuen!». Trenbideko langile arrotzek hilero ikusten zuten diru freskoa, herritarrek ez bezala. Nekazari eta artzain herria zen Nafarroa. Lanbide gogor eta irabazpide gutxiko biztanlego apala. Eguneroko kezka nagusia bizibidea zen eta jakintza ardurak ez zien gehienei lorik kentzen. Euskara mintzo bazuten aurrekoek, txikitatik besterik ikasi ez zutelako da. Ez zuen kanpora begira beste estimurik.

Pentsabide aldetik tradizioan oinarritzen da baserri mundua; beste baliabiderik ezean, uzkur hartu eta herabetasunez edo halabeharrez nozitzen ditu agintearen erabakiak. Jauntxoen alor eroso eta zapalketaren euskarri malgua izana da horrela herri xumea. Berandu arte iraun du Nafarroan ohituraren zama egonkorrak eta jauntxokeria izan da gertakizun gehienen akuilaria. Historia luzea denez Nafarroan baserri tradizioa eta laburra garai berrien industria giroko ibilbidea, arretaz neurtu behar da lokarrien tirabira gordina.

Nafarren ondare eta nortasunari dagokion galera nagusia XX. menderaino euskararen atzerakada etengabea

izan da. Aspaldiko denboretara joan gabe, Joakin Lizarraga Elkanokoaren Egues ibarretik hasi eta Erroibar, Aezkoa, Zaraitzu, Erronkari eta Arakil bera, euskararentzat basamortu hilotz bihurtzen ari ziren ordurako, eta erromantikoen eskutik etorri zen euskararen aldeko lehen ahots eta elkarte legeztatua. Iturralde Suit historialari entzutetsuaren etxean bildu ziren 1877ko urriaren 23an Florencio Ansoleaga, Arturo Campion, Estanislao Aranzadi, Hermilio Oloriz barne, izen oneko hamahiru hirunsheme, eta *Nafarroco-Euscarazco Elcargoa* sortu zuten, hizkuntza, eskal kultura eta lege zaharra Nafarroan sustatzeko asmoz. Horretarako, *Euskara* izeneko aldizkaria atera zuten. Bide berriak urratzea izan zen garrantzi handiko euren merezimendu nagusia, herri hizkuntzaren zuzi ttipia eskuratu eta hiritar bihurtuz. Historian zehar galdutako prestigioa itzuli nahi zioten euskarari herritarren aurrean. Lur iraultze eta ereintza aurrerakoi bezala har daiteke aro zaharreko udazken gorrian euskararen arloan hasitako lana. Aurkezpenean espreski esaten zen moduan,

*Euscarazco Elcargoa*ren asmoac diré, gordetzea, galtzera utzi gabe, eta edatzea aldaitequen gucian euscarazco mintzairoa; ongi ezagutzea gure aurrecoac itzcunza eder onequin erran eta eguin dituzten gauza guztiac (...)

Aipamen hau gabe, motz geldu zitekeen hurrengo mendean euskarak Nafarroan izan zuen jarraipen onuratsua.

Hogei urte iraun zuen euskaroen elkargoak eta desgertu zen une berean, 1896an alegia, izan zuen ohorezko lehen goratarre ofiziala euskarak Nafarroan. Ezusteko bitxi preziatu baten bidez, Nafarroako Diputazioak bere hizkuntza zahararen aldeko adierazpen sentibera bidali zion Gipuzkoako Aldundiari, atsegin handiz txalotuz aurrerantzean maisuek euskara jakin behar zutelako erabakia. Jakingarria da benetan adierazpen luzean agertzen duen euskararenganako atxikimendua. «Seme onek beren gurasoen ondare kutunarekiko atxikimendu sakon eta amultsua» sentitzen zutela euskararen alde, zioten Nafarroako agintariak. Errege Antso Jakitunaren ahoan jarri

ohi den *lingua navarrorum* esaera zaharra gorai patzen du gero, egiari aitortzen egiten diola aitortuz, *denboren aldaerek* ez dezaten inoiz horren edukia ilundu. Elkargo pribatuak euskara babesten hasitako lana aginte publikoak ontzat eman zuen «geure-geure ondarea baita, arbasoengandik hartua dugun altxorra eta Jainkoak esku zabalez emandako ezaugarri preziatua», izkribuaren hitzetan.

Hemeretzigarren mendeko ereintza ez zen basamortu agorrean galdu, eta, neguko isilune laburaren ondoren, 1918an agertzen dira lehen aztarnak Arturo Campionen eskutik. Ez da kasualitatea Iturralde Suit jaunak euskaroen elkargoarentzat marraztutako haritz mardularen ikurra, bere gurutze zabala eta guzti, Euskaltzaindiak bereganatu izana, eta orduan sortutako *Euskara* zaharraren izena Akademiaren *Eusker*a aldizkari ofiziala bihurtu zen.

Nafarroari dagokionez, aurrez landutako baratzeak 1925ean izan zuen loratze pozgarria *Euskeraren Adiskideak* izeneko elkargoa aita Inza eta lagun batzuen inguruan sortzearekin. Denbora berriei egokitzuz ez zen bere eginkizuna, aitzinean bezala, hiriburura mugatu. Erdi Aroko harresiak gaindituta, haran eta ibar zokoetako herri nagusietara iritsi ziren mezu sarkorra zeramaten hitzaldiak, euskal festa, bertolari saio, musika eta ohiko dantza alaiez horniturik. Eragin berezia izan zuten euskara zekiten haur guztiei emandako sariak. Hiriko jaun ospetsuak herriz herri ibili ziren horrela hizkuntza zaharraren estimu galdua suspertu eta bultzatzen. Garai hartakoak dira herrietako sarrera-irteretan gelditzen diren zeramika nobleko herrizen elebidunak.

Gerra aurreko euskaltzale nafarrek ez zuten haatik hiriburua ahaztu eta euskarazko eskola ireki zuten, etxebizitza batean lehenik eta eskolapioen ikastetxe berrian gero.

Zorigaiztoko eztanda ankerrak hondatu zuen euskal kultura eta euskararen loratze amesgarria, artean egindako guztia bortizki salatua izan zelarik elkargo eta pertsonen haritik. Euskaltzaletasuna, besterik gabe, ezker alderdiko ekintza bezala hartua izan zen bere ondore guztiekin

eta, gauez, itzultzerik gabeko bide bazterretan odolez sinatu zuen askok bere heriotza.

Ez da asko giro hartaz neuk esan dezakedana. Sei urte puntarekin ikusi nituen mutilak marroiez jantzita kamioietara igo eta joaten. Udazkenean estreinatu nuen gero eskola. Erdara zen bertako hizkuntza bakarra. Haur batek gogora dezakeen neurrian, bestelako gertaera bat gelditu zitzaidan markaturik ikastaroan: Gernikako bonbardatzea. Ipar-mendebaldeko haizearen konplizitatearekin garbi-garbi jarraitzen genituen Sakanako nire herritik eztanda multzokatuak. Horrela ikasi nuen Gernika bazela Euskal Herriko geografia liburuan. Arrosarioa errezatu eta *Oriamendi* abestu ondoren atera ginen arratsaldean haurrak kalera. Emakumeak ateetan ikusten ziren, multzoka edo binaka, gerran ziren familiakoez mintzatzen. Gernikakoaren asmoa jakina zen aurretik herrian bertako soldaduburu batek etxera gaztigatuta.

Herri euskaldunetan era askotako erasoak nozitu behar izan genituen euskara dela-eta. Maisu arrotzek ez zuten nire denboran bertakoek bezain bortizki jokatu. Eratzuna eta behatz muturrak astintzen zituen zurezko errege la ziren eguneroko mamua eskolan. Baziren lanbide horretan astoak eta astoagoak, metalezko esku-konpasarekin haurrari mihia hartu eta Sakanan mihi-azpikoa eten ziona bezala, odoldurik gero kanpora bidaltzeko neskatala.

Eskolan ez ezik, sukaldeetan sudurrak sartzera bultzatu zituzten haurrak Burundan eta leihotik zelatan ibiltzen ziren elkarri eratzuna egotzi nahian. Beste maisu batzuek gurasoekin lan egin ohi zuten, etxean euskara mintzatzea zein kaltegarri zitzaien eskolan, aditzera emanez. Neuk ezagutu ditudan ekintzak dira eta bete-betean nozitu ditut horren ondoreak. Nire senideetan bi txikienek galdu egin zuten euskara. Etena sortu zen herrian bezala familietan ere, bereziki neskatoen artean. Gizarte giroa pozointzen bada, 'moda' bihurtzen da aldaera eta goizetik gauera gal daiteke hizkuntza. Gure gizaldiko edozeinek ikusi du bere etxean. Egoera hau izan zen azken aldiko ezkortasunaren orri ilunena.

Gerra osteko pizkundera

Edozein gerratan azken garaipenak balio du, eta euskararen aurkako gatazkak ez direnez amaitu, ezin dugu orduko zauriak berriztatzen denbora galdu, aurrera begiratzeke ezpada.

Berrogeita hamarreko hamarkada aipagarria da Nafarroako euskararen historian eta oroitzapen iraunkorra mezezi lukete euskaltzaleon aldetik orduko zenbait gizonak. Diputazioaren agerpen onuratsuekin amaitu bazen XIX. mendeko euskaroen itzalunea, Aldundi beraren eskutik berpiztu zen, gerra ostean, nafar hizkuntzaren argisenti pozgarria. Madrilgo aginte ofizialen gerriko estua euskara ito nahian zebilen une berean, *Euskeraren Aldeko Saila* sortu zuen Foru Diputazioak, 1957an, 'Bianako Printzea' izeneko bere elkargorearen barnean. Francoren garaiko eraso bortitza saihestuta, nafar hizkuntza aurrera ateratzeko erronka zailari ekin zitzaion bertako agintarien onespenez. Gerra aurreko saioen ildotik, euskal festak berreskuratu, bertsolari saioak berpiztu, euskarazko argitalpenak bultzatu eta haur euskaldunei sariak banatu zitzaizkien lehen bezala 1957tik 1967ra. Oso zehatza zen helburua: zapaldurik eta zigorturik zegoen euskarari bizinaharen arnasa itzultzea. Psikologi-tresna zen haur sariena, herri-hizkuntza goraiatzeko aitzaki eta gurasoengan harrera ona lortzeko bide xumetzat hartuta. Txikien protagonismoa izan zen familietan euskal kontzientzia lardaskatua festa giro gozoan berpizten hasteko bide apala.

Herrietako zeharbide guztiak ibili ondoren, harro biko euskaldunei irakurgaiak eskaintzea izan zen bigarren urratsa. Hasiera batean *Roncesvalles* deitutako astekaria sortu zuen taldeak, baina zero zenbakia plazaratuta izen berriak zekarkeen legezatzeko luzapena ikusirik, ohiko *Príncipe de Viana* argitalpenaren euskarazko gehigarri bezala plazaratu zen, doan banatzeko zazpi mila familietan. Garai berekoak dira (1969) *Fontes Linguae Vasconum* eta *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* aldizkariak.

Korapilatsuago gertatu zen euskara eskoletan sartzeko ahalegina. Ordu erdiko ikastaroak eskaini zituen Diputa-

zioak nafar hizkuntza ikasi edo landu nahi zuten ikasle-entzat, maisuen ordainketa haren gain zela. Ofizialtasunaen aldetik emandako urratsik aurrerakoiena zen Nafarroa ako historian, harrera desberdina izan bazuen ere ikastetxeetako zuzendari eta euren agintarien pentsa-bide hertsia kontuan izanik.

Pizkunde eraginkor honen atzean pertsona konkretuak zeuden noski. Migel Jabier Urmeneta zen aginte mailan sendo oinarritutako zutabea eta aurreiritzien talaiako begi ernea. Berak kargua uztearekin 1971n hasi ziren eragozpenak. Irteera aurreko azken batzarrean aho batez onarturiko *Euskara Irakatsi eta Sustatzeko Oinarriak*, euskararen garapeneko legea, adibidez, bi urte geroago arte (1973) ez zen BOn agertu, zegokion batzordean neuk egindako salaketa gogorra bitarteko. Urte horretan izan zen baztertua inolako begiramendu eta duintasunik gabe aldizkariaren zuzendaritzatik Pedro Diez de Ulzurrun sendagilea, ekintza guztien arduradun eta taldearen aurrelari prestua.

Euskaltzaletasun apurrik ez zuen hurrengo diputatuak, euskalduna izan arren, eta eskoletatik euskara saihestea zen bere helburua. Karguan zegoen bitartean ez zela bere herri euskaldun peto-petoan ikastolarik sartuko, zioen lagunen artean. Eraso gupidagabea izan zen hura. Ikastolako haurren ikasketak legez onartzerik ez zegoen kurtso amaieran eta inspektore ziztrinari haur horiekin zer egin behar zen galdetu zitzaion batean, erantzun hau eman zuen gordin-gordina: *Ikastolarik ez balitz bezala jokatatu. Menditik jaitsiak bezala dira guretzat. Beste haurrei egiten zaizkien galdemoduak egin eta kitto. Ezin da ontzat eman horien ikastarorik.*

Nafarroak ez zuela eskoletan euskara erakusteko ahalmenik Madrilgo baimena gabe, izan ohi zen Juan Andres Ciordia gure batzorde idazkariaren argudioa. Eskubide hori noiz galdua zen ez zuen haatik inoiz argitu. Denbora berean, Autonomi Aurreko *Euskal Kontseilu Orokorrean* Hezkuntza Batzorde Mistoko partaide nintzen eta Karlos Santamariarekin Madrilen izan ginen euskal lurralde historikoentzat heziketa eta hezkuntza eskubideak berresku-

ratzeko lehian. Bertan errezibitu gintuen emakume funtzionarioak zioen bagenuela Nafarroan Hezkuntza eta Zientziako geure Ministerio propioaren legezko oinarria. (*Y pensar que en Navarra tenemos la base legal para tener nuestro propio Ministerio de Educación y Ciencia!*). Erronkari-ko alaba zen bera.

Eratsungo maisu euskaldunak, adibidez, izkribu bat banatu zien etxez etxe gurasoei euren haurrei euskaraz ez mintzatzeko esaten, iragan denboretan bezala.

Amadeo Marcok nahi izan zuen Euskaltzaindiaren Nafarroako Ordezkaritza, duintasunez, Konptu Ganberako gunean kokatzea. Txukun antolatu zuen egoitza eta aste batzuen buruan estreinatzekoa zen kargua utzi zuenean. Del Burgo hurrengo buruak inaugurazioa bertan behera uztea erabaki zuen goizetik gauera.

Beste arrazoi ilun batzuentatik jaun honen agintea laburra izan zen eta, gobernu hirukoitza nagusitu zelarik, euskararen eskubideak sendotzeari ekin zitzaion hiriburu-ko Jauregian. Administrazio-ko lanpostuetan euskara aintzat hartu, errepide eta beste iragarki ofizialetan elebitasuna bultzatu eta eskoletan euskara bermatzen saiatzea izan ziren, besteak beste, akordio nagusiak.

Borondate politiko ahulenetakoa nozitzen du gaur egun agintarien aldetik euskarak Nafarroan. Euskal kultura eta nafar hizkuntzari dagokion jorratu gabeko alorrik edo inausi gabeko atalik ez da gelditzen sarraskian. Baina jakina denez gaur egungo agintarien euskararekiko jarduera, ez du errepikatzen luzatzerik merezi.

Ikuspegi orokorra

Industriagintzako aroan bizi da une honetan Nafarroa eta burubidez gizarte hiritartua da herrietakoa ere. Ideia eta ohiturek ez dute garai bateko hesirik aurkitzen komunikabide orokorren sarean. Hori dela-eta, begirada zabalez ikusi behar da hizkuntzaren arazoa behin-behineko egoera hertsian itsutu gabe.

Inoiz baserri giroan ez bezala, leiha ofizial bete-betean sarturik dago nafar hizkuntza, txanda honetako agintariak aurka baditu ere. Beraz bizirik dirau. Gerra osteko muga estuak itxi ez baino zabaldu egin dira hizkuntzarentzat. Legegizonek 'Hobekuntza' delako arauetan zatitutako lurralde hirukoitza oso-osoan gainditu du ikastolak Iruñea, Zangoza, Agoitz, Tafalla eta Tuteran barne direla. Erriberako eskola publikoetan bada euskararen aldeko eskaririk, lehen gorroto zaputza besterik ez bazegoen ere. Erribera esnatuz doan heinean jasoko du burua Nafarroan euskarak.

Kultura arazoa da eta horregatik sortu da azken aldiko gorroto itsua. Hiriko gizon ikasien eskutik sortu ziren XIX eta XX. mendeko hizkuntzaren pizkunde onuragarriak, eta betiko burubide atzeratuaren aztalka motza da azken ordukoa. Nafarrago direla uste dute nafarren ondarea hondatu nahi dutenok. Kalte handia egin dezakete, noski, lanpostuetako baliabidea murriztu, diru laguntzak kendu eta legezko baimena mugatzearekin, baina azken urteetan mantendu egin da, halere, euskara ikasi nahi duten haurren kopurua. Ezin da ahaztu duela hogeita hamar urte ikastolan ibilitako gazte haiek haur berrien gurasoak direla orain, eta ereintzak dirau.

Egia da, bestalde, ez dela abertzaletasunean eragin bera samatu. Kontuz aztertu behar da datua. Hizkuntza kultura den aldetik biztanle guztien altxorra izan behar luke, eta, bestela, ez dauka etorkizunik. Alderdi politiko guztietako haurrak, agintean egondako gurasoak barne, ibili dira ikastolan, alde batetik; eta lurralde fisikoari buruz Erribera aldean gainditu egin da legezko hizkuntzen hesi lotsagarria. Hori ona da euskararentzat. Pentsabide mailan elkar errespetatuz, euskal kultura alderdi politiko guztiek onartzea lorpen amesgarria litzateke nafar hizkuntzarentzat. Beldur naiz, halere, gazte jendea politikaz eta politikarien mundu iheslari labainaz aserik ez ote dagoen.

Laburbilduz, ez dut uste hau bezain egoera itxaropentsurik ezagutu duen, oro har, euskarak Nafarroako historian zehar. Esku gazteetan utzi du gure gizaldiak adinduen etsipenez ahuldurik jasotako euskararen lekukoa.

Denbora berriei egokitutako hizkuntza modernoa bihurtu

da, eta eskolan egin du bere tokia. Datozen euskaldunei

dagokie orain mintzatzea, ahoan datza-eta, azken finean,

hizkuntzaren benetako eremua, ez agintarien erabakietan.

Baina geroakoak gero.¶



Euskararen egoera Nafarroan

euskarak Nafarroan bizi duen atzerakadak, tamalez, mende askotako iraupena du dagoeneko. Hala ere, eta guk bizi dugun garaiotara itzuliz, azken hamarkada honetan Nafarroan agintea daukatenen eskutik euskarak jasaten duen eraso eta bazterkeria instituzionalaren aurrerari historikorik aurkitzea ez da lan erraza. Nafarroako lurraldean, gizartean eta eguneroko bizitzan euskararen eta euskal kulturaren kutsua duen agerpen oro desegituratu eta zokoratzeko asmoz, hainbat eta hainbat neurri politiko hartu dira azken urte hauetan.

Presio horrek, erantzun irmo bat antolatzeko premia azpimarratzeaz gain, euskaltzalegoa etsipenean erortarazteko arriskua ere ekar dezake. Egoera ilun honetatik irteteko euskaltzale guztion artean bideren bat topatu beharko litzatekeela uste dugu. Beraz, auzi horrek ekar ditzakeen eragin eta kalteen eta aurrera egiteko eman beharko litzaiokeen erantzunaren inguruko iritzia eskatzeko asmoz, hainbat lagunengana jo dugu: horien artean ditugu, Nafarroako kulturgintzan eta euskalgintzan zeresan zuzena duten hainbat erakunde eta elkartetako kideak (besteak beste, AEK, IKA, *Nabarra* aldizkaria, Euskalerrria Irratia, Oinarriak plataforma, Ikastolak, Euskaltzaindia, Kontseilua...). Guztira hamabi lagunengana bildu ditugu.

Ondoren, aditu horiei egin dizkiegun hiru galderak aurkezten ditugu:

- 1.- Nola baloratzen duzu azken urte hauetan Nafarroako agintariak euskararen inguruko hizkuntz politikaren esparruan hartzen ari diren erabaki eta neurriak? Zein eragin (kalte) uste duzu izan ditzaketela epe labur, ertain eta luzera begira?
- 2.- Zer iritzi duzu euskalgintzaren alorretik, oro har, neurri ildo horri ematen ari zaion erantzunaz? Egokiak al dira, zure ustez, politika horren aurrean euskaltzaleen aldetik planteatzen diren aterabideak?
- 3.- Zein izan beharko luke, etorkizunari begira, euskalgintzak hartu beharko lukeen ildo estrategikoa neurri horiei aurre egiteko? Nola jokatu beharko lukete Nafarroako euskaltzaleek? Eta zein zeregin bete beharko lukete aurrerantzean ere Euskal Herriko gainerako euskaltzaleek?



Gontzal Agote

1.- Nafarroan euskararen alde lan egitea, edo besterik gabe euskaraz bizi nahi izatea, ez da sekula gauza erraza izan, baina azken urteotan UPNren Gobernuak gure hizkuntzaren kontra, eta oro har euskal kultura eta «euskal» kutsua duen ororen kontra, abiarazi dituen ekimenek are makurrago egin dute normalizazioaren bidea.

Duela urte batzuk Gurrea eta bere morroiek euskararen kontra abiarazitako dinamika, hain zuzen ere PSN eta CDNren laguntzaz gehiago osoa balute bezala gobernatzen dutenetik, ezin da testuinguru orokometik isolatu: pentsamendu eta ekintza bakarreko garai ilunotan diferente pentsatzen duenarentzat zirrikituak gero eta estuagoak diren honetan, Nafarroan euskalduna izatea, edo izan nahi izatea, disidentea izatea da. Begirunerik merezi ez duen oztopoa.

Horregatik, agintean dagoen alderdiak (baita harekin batera gobernatzen duen 100 urteko egunkariak ere) euskara «politikatik» deslotu behar dela behin eta berriz errepikatu arren, argi dago erabat politikoa dela Pegenauteren gidaritzapean egiten ari den hizkuntza politika. UPNk oso ongi baitaki, inork baino hobeki, euskara eta euskaltasuna eskutik helduta doan bikotea dela, hizkuntza duenak euskal kontzientzia izateko aukera handia duela, egungo identitate joko hauskorra kolokan jartzeraino. Historian zehar izan badira ere, gero eta neketsuago da gainontzeko euskal herrialdeen aurkako jarrera onartzen eta babesten duen euskalduna edo euskaltzalea den nafarrik aurkitzea.

Denbora bere aurka dute Nafarroako egungo agintariek, batetik, politikaren zikloak labur samarrak direlako, eta, bestetik, kostata izan arren, euskaldun edo euskararen aldeko jarrera aktiboa dutenen kopurua emendatzen ari delako. Hori dela eta, azken hogeitau urteotan euskaltzaleen lanari esker maila instituzionalean lortutako apurrak deuseztatzea izan da legegintzaldi honetan helburu nagusia.

Ikusteke dago euskararen deabrutzearen ondorioak zeintzuk diren, baina euskaldunok katakonbetara bidali nahi izate horrek sikiera balio beharko luke baieztatzeko instituzioetako babesa bitartekoa dela beti eta ez dela inoiz helburu bihurtu behar.

- 2.- Ezinbestekoa da aurreko erantzuna honekin lotzea, gaur egungo egoeraren ardura osoki UPNri egoztea errazegi hartzen den jarrera baita gure artean, komunitate euskaldunarekiko autokritika garai goxoagoetarako utziz. Izan ere, azkeneko erasoaldiak zer edo zer agerian utzi badu, euskalgintzaren, bere zabalenean, eta komunitate euskaldunaren ahulezia nabarmena izan da. Luze eztabaidatzen ahal da ahulezia horren benetako neurriaz eta horren zergati-az, baina erasoaldiari aurre egiteko dagoen ezintasuna ezkutatzek ez du egoeraren azterketan lagunduko. Are gehiago, indar eskasiaren jakitun dira hemengo agintariak eta hori profitatu nahi izan dute bere estrategia azkartzeko, desgaste handiegirik nozitu gabe.

Oharkabean edo beste ezertarako aukerarik ez zuelako, euskalgintza erantzunaren dinamikan sartu da bete-betean, deketo-manifestazio-printsaurako-helegite dinamika nekagarrian indarrak ahituz. Egia da bestelako biderik planteatu denean, errenta aitorenpeko eragozpen fiskala kasu, ekimen horiei euskalgintzako talde askok eskainitako babesa eta euskaltzaleen aldetik jasotako erantzuna ez dira espero ahal zen bezain zabalak izan.

Azkenaldian alor gehienetan horren zabaldua dauden indar sakabanaketak eta gure arteko mesfidantzak eragina izan dute Nafarroako euskalgintzan eta, arerioa zein den argi egon arren, orain arte ez da modurik izan kaltetutako eragile guztien artean gutxieneko oinarri batzuk adosteko eta epe ertain-luzeko estrategia bateratua zehazteko.

- 3.- Ezkor samar aritu naiz aurreko lerrootan eta ez nuke gogeta xume hau hainbat alderdi positibo nabarmendu gabe bukatu. Izan ere, azken urteotako erasoaldiak ez lituzke lanbrotu behar euskarak eta euskaltzaleen Nafarroan egin dituzten aurrerapausoak. Karramarroen modura ibilt-

zera kondenatu gaituzten honetan etsipenerako joera izaten dugu maiz, eta, nahiz eta egoera batere samurra ez den, botere gunetik datozen erasoek ez lukete azterketa razionala behar baino gehiago ozpindu beharko.

Aitzitik, euskarak Nafarroan lortutako garaipen txikiak errepasatzeak eman beharko liguke aurrera begira egin beharreko urratsen gakoa. Haizea kontra beti, orain dela hogeita bost urtetik hona hainbat gauza lortu baditugu gizabanako zein euskalgintzako taldeen lan eta kementari esker izan da, hortik etorri dira urte hauetan guztietan Administrazioari ostutako apurrak.

Alde horretatik, euforian erori gabe, oso inportantea da etsipena ez nagusitzea. Horrekin batera, momentuko erantzunaren dinamikaren gainetik gutxieneko oinarriak zeintzuk diren finkatu behar da, Oinarriak plataformak bere sorreran egin zuen moduan. Baina hori guztia bezain inportantea da dagoen indarra ongi neurtzea eta, sakabaketa-ren dinamika antzuan erori ordez, urratsez urrats egituratzea Nafarroa euskalduna.

Zeren, orain arte gertatu den moduan, irtenbidea euskalgintzak egiten ahal duen indar metaketatik etorriko baita, baina ez mobilizazio jakin baten inguruan baizik eta euskaldunon eskubideen aldeko benetako kontzientziazio baten inguruan. Eta horretan oso inportantea da gurean oso gehiago zabala diren erdaldunen benetako inplikazioa lortzea, «euskararen aldekoa naiz» jarrera epe-la nafar guztion, euskaldun zein erdaldun, hizkuntzaren defentsa aktibo bihurtuz.

Bestetik, botere gunetan izaten ahal diren balizko aldaketen zain egotea euskararen etorkizuna Nafarroan testuinguru politikoaren joan-etorrietara kondenatzea izanen litzateke. Ez baita ahaztu behar urte hauetan guztietan UPN izan dela euskararen kontrako politikaren ageriko aurpegia, baina hori ezin izaneren zela PSN eta CDNren laguntzarik gabe aurrera eraman. Epe motz-motzean indar banaketan aldaketa handiegirik espero ez denez, bide instituzionala baztertu gabe herri ekimenetik eta euskaldunon eguneroko jardueratik sortu beharko da euskararen etorkizuna Nafarroan.¶



Mikel Aldasoro

1.- Azken bi-hiru urteetan asko idatzi da Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politikari buruz eta, horren haritik, Nafarroako euskalgintzari buruz. Ikusitakoak ikusita zaila da funtsean gauza berririk esatea, eta erraza ordea zerbait berria erantsi nahiarri jarraiki egiturazko elementuen izaera desitxuratzea. Hogeita hamar lerrotan, zer esanik ez.

Gizarteak erakutsitako konpromisoaren itxaropen hazia eta politika ofizialak bere horretan jarraitzen duela baieztatzeak eragin lezakeen etsipenaren artean gauden honetan, lanerako ilusio berritua eta zenbait arlotan goia jo ondoren (matrikulazioa, helduen euskalduntzea, unibertsitatea...) erabat maldan behera abiatu aurretik zuzendu beharrak estututa, asmoz handi eta baliabideetan urriago, egunerokotasun horren testuinguruaren orrazketak present beti baina aipatu gutxitan aipatzen direnak jasotut zertzelada batzuetan.

«*Diario de Navarra-ren*» *sindromea*. Jakina da egunkariaren hedapena (50.000 ale). Bere eragina totem bat euskalgintzarentzat, kastrozio konplexu hiperbolikoa. Oraindik orain inork ez du azterketa serio eta sistematikorik egin bere eraginaren neurketara hurbiltzeko (irakurleen perfla, irakurle horiek albiste eta sekzio desberdinei eskaintzen dieten arreta, euskararen inguruko iritzia osatzekoan duen eragina), horregatik suposatutzat ematen da dena, den-dena, euskalgintzak bere norabidearen argia orrialde horietako lerro artean topatu behar duela barne. Erregea jantzita, omen?! Jantzita... euskararen aldeko mobilizazioetan parte hartzen duten milaka eta milaka lagun aho, belarri eta eguneroko harremanen komunikazio sarea erabat gutxietsi arte.

2.- *Praktikoak izanda*. Aritmetika parlamentarioan erraza da kontuak ateratzea, PSN konbentzitzen eta erakartzen dago

gakoa, eta hitzartu. Eta hitzarmenetan zerbait eskaini behar da trukean. Hemen euskararen aldeko balantza pisuzko eskubidez eta argudioz bete beharrean, maximalismo kaltegarritzat jotzen dira oinarrizko eskubideak, eta tamainako erretagoardia exkaxarekin trukean eskain daitekeen gauza bakarra aldarrikapenen narkotizazioa da (eta arrakasta izatekotan gero eta gutxiago, ezinbestean). Hizkuntza eskubideen bermea eta eskubideen urraketaren salaketa normalizazioaren aldeko neurri aurrerakoigoak bultzatzeko indar palanka izan beharrean (ikuspegi «posibilista» garatzeko ere ezinbesteko elementua euskararen aurkako jarreren aurrean), palanka horren deuseztapena bihurtzen da EAEn ardura instituzional gorenak dituzten alderdien lehentasun. Nafarroan atzetik-atzetik arrasto berean.

Okerragoaren beldur. Beti gerta daitekeelako gauzak okerrera egitea, jite patetikoko baikortasuna, ikuspegi «*praktikotik*» errenta gutxikoa beherantzako interesarekin eta salgarria, bereziki orain bezalako itolarrietan. Okerragoak ere okertzen jarraitzeko aukera izango du, baina okerrera baliabide eta babes instituzionalarekin batera euskararekiko atxikimendua eta hizkuntza eskubideen kontzientziak euskalgintzan bertan zein gizartean duten itzala galtzea da. Okeren-okerrera hori izatea abiapuntua.

Hogeita bost urte eta etxeko lanak egin gabe. Puntako zenbat politikarik (abertzaleak) gaudituko lukete EGAREN ahozko froga hedabideen aurrean egindako adierazpenak, ekitaldi publikoetako hitzaldiak eta parlamentuko grabazioak aintzat hartuta?, eta sindikalistak? Ohikoa izaten jarraitzen du alderdi zein sindikatu horietako batzuen egoitzetara deitu eta telefono hartzaileak gazteleraz hitz egitera behartzea, baita ikastola batzuetan ere. Zer esanik ez lan hizkuntzari buruz, herri mugimendu abertzaleetan, hainbat ikastoletan, Euskara Zerbitzuko funtzionario askoren artean gaztelania da lan hizkuntza, edo euska-ñol kontzientza zuritzailea batzuetan, aurrerakoi itxura negargarrikoa gehienetan.


Legea, zirrikituak eta aingeruen sexua. Legea eta legeriaren potentzialitateari buruz hitz egiten delarik, hitz dotore eta luzimenduko porrostadetan aritzen dira «adituak»

errealitatera iristeko jauzia eman ezinik, gauzak diren bezala ez agertzeko ahaleginean. Alegia legea dena den hori dela (eta egiten den irakurketa hori, eta egiten den ezarpen hori, eta erabili ahal duenak egiten duen erabilera hori, irakurketa hori...), eta ez izan litekeen hura baldin eta..., ondorioztatu litekeen bestea ondorioak ateratzea gure esku ere ez dagoenean etab. Dauden zirrikitu guztiez baliatu behar delako, ezin baliatu ez dauden zirrikituez.

3.- *Erantzun eta eraiki. Nahi eta ezin.* Egitasmo eta garatu beharreko ideien faltan ez dago: hezkuntza, unibertsitatea, lan mundua, hedabideak, aisialdia, euskararen erabilera, kontzientziazioa, aldarrikapena, ekintza zuzena, salaketa iraunkorra eta eraginkorra, sedukzioa... Baliabide uriak, ordea, eta jendearen parte-hartzea bultzatzeko hor, ahalegina eta mugen artean. Borondate txarreko instituzio boteredun eta dirudunak batetik, borondate oneko instituzio boteregabe eta diru gabeak bestetik.

Formularen bila. Erromes olde baten pareko progresaldea ari da ataka honetatik modu atseginean, ahalegin pertsonal handirik egin gabe, militantzia eskema zaharkituetatik at, ondo pasatuz, lanari denbora eman gabe, poltsikoa ukitu gabe, bere lanpostu erosotik, meritu dominak ezker-eskubi banatuz, bakoitza bere etxean egonda eta besterik gabe orain arte egin duena eginda atakatik aterako gaituen formularen bila. Nik oraindik ez dut aurkitu.

Aterkiaren gainera ureztatzeaz. Ofizialtasuna eta hizkuntza eskubideak (bermea, garapena, proiektzioa...); eskolak euskaldundu beharra eta bertako hizkuntza ezagutzeko eskubidea, ekintza zuzena eta honen mezua (seinale erdaldun elebarraren ezabaketa, seinale elebidunen ezabaketa edo ordezkapena); hizkuntza politika bakarra eta egoera soziolinguistikora egokitutako neurri mailakatuak. Biak hala biak, denak egin beharrekoak eta ez aldi berean eta toki berean. Kontzeptuak eta edukiak, ezinbestean osagarriak baina maiz fetitxizatuak eta grafia zehatzaren esklabo, eta mamia behar bezala ez gizarteratzearen ondo-

rioz kamustuta, ofi-
zialtasuna EAEn eta 
«bakarra» hitzaren mamua kasu.¶

Sagrario Aleman

1.- Maldan behitti ziztu bizian goazi, maldan goitti joatea horren zaila delarik! Eta guk tontorra jo nahi.

Euskararen normalizazioa dela eta, horrelakoxe inpresioa dut, helburua aski argi dugula, aldapa igateko indarrak eskaxak, hautatutako bidea, aurki ere, ez hoberena eta jaisteko bulkaka ari zaizkigunak indartsuak. Eta inpresioa besterik ez bada gaitzerdi!

Halare, erremedio txarra litzateke, etsipenez, gauzak bertan behera uztea.

Nafarroako Gobernuak euskaldunen eskubideak zapaltzeaz gain, zapalketa hori arau eta dekretu bidez legalizatu egiten duela eta nazkatuta gabiltza. Zoritxarrez ordea, batetik, Nafarroan gertatzen bada ere bereziki, ez da hemen hartutako neurria, Madrilen erabaki eta une honetan gauzatzeko toki aproposa den Nafarroan martxan jarri dena baizik, eta luze gabe besteetan jarri nahiko dutena. Bestetik, onartu diren neurriek Nafarroan bizi garen euskaldunoi besterik ez digute eragiten, eta guri bakarrik dagokigula aurre egitea uste badugu ere, beste herrialdeetako euskaldunekin hizkuntz komunitate bat osatzen dugun heinean, guziongana du eta izanen du ondorio.

Ondorioak zenbait dagoeneko ikusten ditugu, beste zenbait luzera agertuko dira. Kaltetuak arlo eta talde franko zuzenean, gehienak zeharka.

Paisaia aldatzen ari zaigu, zuhaitzak, eraikinak edota bideak gora-behera Pamplona-Iruñea ordez Pamplona kartel tzarra dakusagu. Jendeak, batez ere kargu koxkor bat dutenak, harro dira beren elebakartasunaz eta horrelako adierazpenak eta erantzunak ematen dizkigute.

Administrazioan ez dugu epe motzera nabaritutako orain arte ere ez baitzuten aplikatzen beraiek onartutako legea bera ere; hori dela eta maiz agertu dira kexu Euskal Zona deituriko udaletako alkateak. Esan bezala, ez dugu

nabarituko atzerakadarik administrazioan aurrera joan ez ginelako, baina sinbologian eta aurrera begirako posibilitatean ordea aldaketa handia dakar onartutako dekretuak. Legea ez zela betetzen salatzeko aukera bazen, eta oraintsu arte, gainera, euskara jakitea beharrezkoa zela uste zuen askok. Funtzionario izateko —gaur denek funtzionario izatea dute amets— ez da euskara beharrezko, eta honek jendeari euskararen balio eza ikustarazten dio: beraz, euskara ikasi? Haurrak euskaraz eskolatu? Nor aurkeztuko da euskara jakitea beharrezkoa den lanpostuetara euskal zonaldean, gero, noizbait, Iruñerrira etorri nahiko balu lanera, horretarako aukerarik ez duela izanen jakinda?

Administrazioan, Osasunbidean eta Irakaskuntzan orain arte hartu diren eta hartzen diren langile erdaldunek arlo horien erdarazko funtzionamendua ziurtatzen dute heldu den 30 urtean.

Irakaskuntzan bi muturretan muga latzak ditugu, euskaraz ikasteko oinarri sendoa eman dezakeen hartzaindegirik ia ez dugu, eta hizkuntzari prestigioa eman liezaiokeen Unibertsitateak erabat gaztelaniaz funtzionatuko duela ziurtatu digute bai UPNk eta bai PSNk proposatu duten plangintzarekin. Irakaskuntza prozesua hizkuntz oinarririk gabe hasi eta gazteek lan mundura sartzeko beharrezko dituzten ikasketak —Lanbide Heziketa eta Unibertsitatea— erdaraz izateak, makina bat guraso atzeratuko du bere haurra euskarazko eredura eramartetik.

Nafarroako Gobernuak hartutako neurri frankok zuzen-zuzenean jotzen du euskal instituzio, aldizkari edo irratien kontra, hauek itozteko diru laguntzak murriztuz edo kenduz: UEU, *Nabarra*, *Nafarkaria*, Euskalerrria Irratia, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindiarekin egin duten bezala.


2.- Honen aurrean erantzuten ote dugun, eta ongi, modu egokian erantzuten dugun kezka gogorra du jendeak.

Xutik egon ezinik etxea botatzera heldu den pala tzarra nola geldiarazi? Ez da batere erraza asmatzen. Oihu, kalapita eta salaketak ez direla aski zalantzarik ez, normala ere bai horrelako erreakzioak izatea, baina ez aski, eta

ezta garrantzitsuena ere. Ez ote dugu hobe etxearen pare-tak sendotzea eta etxea erabiltzea eta bertan bizitzea?

Gobernuak ezarritako neurri eta arauen kontrako adierazpen eta salaketak ugari izan dira, manifestazioak eta jende mobilizazioak ere franko eta jendetsuak gainera. Helegiteak ere jarri izan dira Gobernuaren erabakien kontra eta irabazi gainera epaitegian; baina Gobernuak, muzin egin, eta ez axola azaldu da horren guziaren aurrean. Harelere Gobernuari erantzun hori ematea egoki izan daiteke. Gobernuak daraman hizkuntz politika salatzen, gure indarra erakusteko, elkar animatzeko edota zenbaitzuen euskararen aldeko kontzientzia lasaitzeko.

3.- Horiek baztertu gabe, euskalgintzatik egin beharreko garrantzitsuena eta hoberena, nire ustez, eguneroko lanari ekitea da, euskalgintzako talde bakoitzak bere tokitik, euskara irakatsiz, auzo eta herrietan erabilpena bultzatuz, en-



presak euskaldunak, hizkuntza prestigiatuko duten jarduerak —erdaraz egiten ez direnak badira hobe— eginez...

Euskaldun gisa bizi garen heinean, ingurunea euskalduntzen dugun neurrian, Gobernuak behartu egingen dugu beste politika bat egitera, halabeharrez. Guk ere, Gobernuak bezalaxe, egin behar dugu, eta Nafarroan egingakoa lege bihurtzen da urteen buruan.

Bitartean, udalerrri zenbaitetan herrietako euskalduntze planak egin ditzagun, herri eragile eta udalen arteko akordio bidez, aukera izanen baitugu horretarako seguraski. Mundu pribatuan ere badugu zereginik, eta askotan ez makala gainera, komertzio, instituzio, banketxe, elkarte eta abar euskaldunago eginez; paisaia aldatuz euskararen normalizaziorako egiten da aurrerapausoa.

Euskara prestigiatzeko eta euskararen alde jarrera sendotzeko kanpainen beharra badugu, baita beren buruak euskaltzaletzat dituzten horiek pittin bat astintzeko ere. Euskal *aldekotasunean* lo lasaian uzten ditugun horiek aktibatu beharko genituzke eta euskara ikastera bideratu, euskaldunentzat, euskaraz bizi nahi dutenentzat, oztopo

izan ez daitezzen. Beraz, irits gaitzkeen ingurune horretan, hurbil dugun horretan, eragin beharko dugu, eta ez, behin eta berriz, arras kontra dagoen eta erraz aldatuko ez den Gobernu honen hizkuntz politika aldarazten gure indarrak eta denbora alferrik galdu. Euskararen erabilpena eta hiztunen kopurua handitzetik etorriko baita Gobernuaren hizkuntz politikaren aldaketa, ez bestela.

Lege eta dekretuek zirrikiturik izaten dute, eta hauek horretan ez dira salbuespen; beraz, zirrikitu horiek bilatu, aurkitu eta hortik sartu beharko dugu guk, nahi eta behar dugun hizkuntz politika egitera Gobernuak markatzen digunari begira egon gabe. Legearen zirrikituak aprobetxatzeaz gain, intsumisioa zergatik ez? Hasieran talde ttikien erantzuna besterik ez da izanen baina.

Lanerako gogoia dugunok badugu, bada, zer eta non egin. Bakoitzak bere tokia bilatu, eta ekin, beharrezkoa ikusten duen horri. ¶

Dabid Anaut

- 1.- Nafarroan UPN (mugimendu kosmetikoak alde batera utzita, PSOE eta CDNren laguntzaz) gauzatzen ari den hizkuntza politika «berriaren» alderdi ikusgarrienetako bat, esaterako, errotuluen ingurukoa da. Izan ere, errotulu elebidunak kendu eta erdara hutsezkoak jartzea deigarria da, ikusgarria, eta euskararen aldeko amorratua ez denak ere nekez ontzat joko duena. Baina ikusgarritasuna eta momentuko beroaldiak gorabehera, helburu sakonago eta epe luzeagokoak gordetzen dira errotuluen inguruko eta, oro har, euskararen erabileraren inguruko dekretu, ekintza-plan eta neurri guztien atzean. Hain zuzen ere, euskara bizitza publikotik desagerraraztea da hizkuntza politika honen helburua, eta horretarakoxe diseinatu dute helburu horri ederki egokitzen zaion hizkuntza plangintza.

Hartu dituzten erabakiek eta neurriek etorkizunean ondorioak izan ditzakete: euskararen prestigioaren galera, matrikulazioaren jaitsiera, erabileraren murriztea... Izan ere, bizitza publikotik eta begien bistatik desagertzen den hizkuntzak, erabilera publiko eta sozial murrizteko hizkuntzak, «beharrezkoa» ez den hizkuntzak, nekez lortuko du herritarren atxikimendu erreala, efektiboa. Beste era bateko motibazioa ere, sormenezkoa, sinbolikoa, kulturala... beharrezkoa eta bultzatu beharrekoa den arren, hizkuntzaren erabilera publikoa, soziala eta «pragmatikoa» ezinbestekoa du euskarak Nafarroan, eta baita Euskal Herri osoan ere.

Nire ustez, hizkuntza politika jakin honen helburua euskararen etorkizunerako erabakigarria den «indiferenteen» gizarte sektore zabala da, herritar horiek euskararentzat irabazi ezean oso zail izanen duelako gure hizkuntzak bere etorkizuna eta biziraupena ziurtatzea, eta horiexek direlako egoera gatazkatsu baten aurrean edo aukera bat egin beharrean suertatuz gero (ingelesa eta euskararen artean, adibidez), erdaren mesederako izanen den praktika batera errazen lerratuko direnak.

Azken aldian administrazio publikoetan euskararen (ez-)erabilera arautzen duen dekretua eta horren inguruko mugimenduak ditugu aztergai, mintzagai, kritikagai eta nahi diren -gai guztiak. Baina esan behar da, zenbait euskaltzaleren aspergarri, eta alderdi legal hutsari erreparatuta, euskararen ajeak (estatusaz ari gara) eta batez ere ajeen iturburua urrutixeago bilatu behar ditugula. Atzerago begiratuta, baina bista-bistan, euskararen ofizialtasuna mugatzen duten 1986ko euskararen legea eta 1982ko Foruaren Hobekuntza ditugu eta, hori ere berta-bertan, 1978ko Konstituzioa. Inozokeria da pentsatzea euskararen arazoak zuzenketa legal hutsetik etorriko direnik, eta hizkuntza politika berri eta egokirik ezean edo hizkuntza komunitatearen barne indartzerik ezean ofizialtasuna onartze hutsak eta lege berria egite hutsak euskararen egoera konponduko dutenik. Baina inozokeria ere da, hizkuntzen berdintasunean eta hizkuntza eskubideetan oinarritzen ez den estatus legal asimetriko, desorekatu eta atzerakoi ba-

tek ez duela inolako eraginik euskararen normalizazioan. Gaur egun, duela 15 urte bezalaxe, euskarak ofizialtasuna behar du eta, orduan bezalaxe, oso bestelako hizkuntza politika ere behar du.

- 2.- Euskararen inguruan sortzen den dinamika sozial eta politikoan, askotan, alde batek markatu ohi du erritmoa. Hain zuzen ere, euskara museorako pieza bihurtu nahi duen sektore sozial edo politikoak markatzen du, dekretuak, debekuak, diru laguntzak... baliatuta. Eta euskararen aldeko indarrak askotan erantzunak antolatzen xahutzen dira, ezinbestean, erantzunik eman ezean segur aski kolpeak ugariagoak eta handiagoak izanen direlakoan. Euskalgintza, gizarteko dinamiketan diharduten gainerako eragileei gertatzen zaien bezala, «behar», «nahi» eta «ahal» aditzak jokutzen dabil. Gauza bat baita egin «behar» dena edo egin «nahi» dena, eta beste bat egin «ahal» dena.

Eta joko horretan, askotan entzuten dugun esaldi magikoa: «zerbait egin behar da». Bai, egia da, baina gutxienez jakin behar da «zerbait egiten ari garela». Ez da, dudarik ez dena, behar edo nahi dugun guztia, eta akaso ezta ahal dugun guztia ere. Baina makina bat jende ari da euskararen aldeko lanean eta borrokan bere aletxoak jartzen eta horrek, hain zuzen, euskaldunon hizkuntza komunitateak izan duen berezko bizitasunarekin batera, eta ez kasualitateak edo zerutik etorritako laguntzak, eragin du euskara XXI. mendearen hasieran oraindik ere hizkuntza bizia izatea.

Kontua da, egiten den horri guztiari etekina ateratzen jakitea, energiak ongi inbertitzea eta, zer esanik ez, hobetu beharrekoa hobetu eta aldatu beharrekoa aldatzea. Kritika eta autokritika, ezinbestekoak biak. Ez ondo-koa edo geure burua larrutzeko, eraginkortasuna handitzeko eta gure ahalegina errealitatera egokitzeko baizik.

- 3.- Euskararen aurkako indarrek badute estrategia, eta haiek duten bezalaxe, euskararen aldeko indarrek ere izan behar lukete. Baina ezin dugu pentsatu estrategia horretan miraririk edo gauza harrigarririk edo ustekabekorik as-

matuko dugunik. Ez dut uste, behintzat. Estrategiak balio beharko liguke energiari eta ditugun indarrei, elkarlanaren ondorio emankorren bitartez, etekin handiagoa ateratzeko eta, zergatik ez, euskararen inguruan lanean ari garen guztiok ahalegin eta ekarpen kolektibo nahiz positibo bateko partaide senti gaitezten. Eta horretan tokia dute euskalgintzaren bi plano nagusietan ari diren ekimen guztiek. Alde batetik, «eguneroko lanean» ari direnak, dela erabilera, dela motibazioa, sormena,



transmisioa, hezkuntza... Eta, bestetik, «eguneroko lan» horren indargarri eta potentzialtasunaren biderkatzaile izan beharko lukeen egoera sozio-politikoak bilatzen duten ekimenak, alegia, euskararentzat estatus berri bat (ofizialtasuna, hizkuntza eskubideen aitortza, hizkuntza politika berri bat) bilatzen duten ekimenak.

Inork ekimen harrigarri eta berritzailerik asmatu ezean (asmatzea ere gerta liteke), gaur egun egiten ditugunak hobeki eta zuzenago egiten ahalegindu beharko dugu, Euskal Herriko egoera soziopolitikoak ongi irakurtzen asmatuz eta euskararen munduak daukan barne indarra eta potentzialitatea ongi ulertuz. Baina, batez ere, etsipenaren mamuak astindu eta ez gelditu, horixe baita inora ez joateko modu segurua bakarra.

Honetarako, gizarteko hainbat mikroespaziotan lanean ari diren pertsona, talde eta guneez gainera, euskaltzaleok bilguneak eta elkarrekin jarduteko guneez ere behar ditugu, eta gaur egun Oinarriak eta Kontseilua (Oinarriak bera ere Kontseiluko partaidea da) hor ditugu, elkarlan hori antolatu eta bideratzeko, unean uneko ekimenare zabalagoak baztertu gabe.

Bestalde, gure zilborrari begira egotea ere ohiko ezauzgarria dugu. Egia da nahikoa lan dugula askotan gure ingurune hurbileko egoerak ulertzen eta bertan eragiten saiatzen, baina euskara ez da soilik Arbizuko hizkuntza, Nafarroako mendialdekoa, edo Nafarroakoa. Euskara Euskal Herriko hizkuntza da eta bere lurralde osoan da hizkuntza minoritario eta minorizatua. Paternalismoak saihes-

tu behar badira ere, nork bere esparrutxoia gestionatze hutsera mugatzea ere ez dut uste bide egokia denik, eta horretarako joera izan badugu euskalgintzan. Herri, eskualde edo herrialde bakoitzeko ezaugarri eta sentsibilitateak oso kontuan hartu behar ditugula egia bada ere, eta inteligentziaz eta malgutasunez jokatu behar badugu ere, uste dut Euskal Herriari ezarri zaizkion muga administratibo-politiko zorrotzak gure eguneroko jardunera ez ditugula mekanikoki eraman behar, eta gogoratu behar dugula euskara bat eta bakarra dela, euskaldun guztiona, eta denon artean atera beharko dugula aurrera. ¶

Mikel Arregi

1.- Euskaldun naizen aldetik, egiten dudan balorazioa negatiboa da, ez besterik. Erabaki da euskararekiko jarrera tolerantante batetik (praktikan aski ez zena euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatzeko, emaniko urratsak minimoak izan baitziren) jarrera erasokorrera pasatzea, aditzera emanez nafar erdaldunen, hots, nafar gehienen bazterkeria ezin zela gehiago jasan.

Gaurko egoera hobeki ulertzeko, komeni da azaltzea arduradun politikoek hizkuntza politikaren aldaketa argudiatzeko erabiltzen dituzten arrazoiak:

- Nafarroa ez da Komunitate elebiduna. Nafar gehienak erdaldun elebakarrak dira eta euskararen ezagutza eskatzeak euskaraz mintzatzen ez den oro baztertzen du. Horregatik berriz onartu duten Foru Dekretua zorrotz eta eztabaidaezina da erakundeen irudi elebakarrari dagokionez, eta Administrazioarekiko harremanak euskaraz egin ahal izatea oztopoz jositako bide bihurtu da.

- Mundu globalizatu batean hizkuntza bat baino gehiago jakitea beharrezkoa da, baina euskara ez da ego-

kia bizi modernorako eta, geroari begira, askoz garrantzikoagoa da ingelesa ikastea.

- Euskara euskal nazionalismo espantsionista zabaltzeko elementua da eta erakunde terroristek nafar izaera aldatzeko erabiltzen dute.

Hau larria da zeren eta hiritarren hizkuntza eskubi-deekiko erasokorra den hizkuntza politika justifikatu nahi izaten baita erdaldunen ustezko bereizkeriarekin, datuek, hain zuzen, kontrakoa azaltzen dutenean. Edo euskaldunen hizkuntza eskubideen defentsa indarkeriarekin eta zinegotzien eraiketekin nahasten baitute, demagogia merkeena erabiliz hizkuntza eskubideen urraketa ez ikustearena egiteko.

Egin dituzten aldaketen helburuak hauek dira:

- Epe laburrean, jende askoren aldeko jarrera desaktibatzea, besteak beste, A eredia (elebidunak erdiesteko aski ez dena baina bai oso garrantzizkoa jarrera positiboa zehazteko orduan) hautatzen zutenena, irakaskuntzan ingelesa ezartzeko planaren bitartez oso egoera korapilatsua suertatzen ari baita, hizkuntzetarako (gaztelania, euskara, ingelesa) ordu kopurua neurririk gabe areagotzean. Halaber balio gabetu dira Administrazioan hiritarrei zerbitzua euskaraz eman liezaieketen langileak prestatzeko plan ahalketsuak. Hortaz, mezua argia da: ez egin euskaraz ez baitut ulertu behar. Finean, zenbait sektorereengan enplegua sortzeko duen balio instrumentala ezabatu nahi da.

- Epe ertainean, D ereduko matrikulazioa eragin dezake. Euskara Unibertsitatetik ezabatzeak edo Lanbide Heziketan ez eskaintzeak ezintasun eta etsipen sentimendua sorraraz dezake.

- Epe luzean zailagoa da aurreikuspenak egitea konbentziturata bainago euskararen normalizazioaren alde ari diren gizarte mugimenduek gaitasuna izanen dutela aldatzea sozial eta politikoa aktibatzeko, nafar guztien hizkuntza eskubideak, elkarrekiko errespetuan oinarriturik, aitortze aldera.

2.- Euskalgintzatik ematen den erantzuna bi maila hauetan kokatuko nuke nik:


- Eraso/erantzuna dinamikaren ildotik datozen estrategiak: agintariek euskararen kontrako erabaki bat hartzen dute (azken dekretua esaterako) eta euskaltzaleok mobilizazioak egiten ditugu hori salatzeko, baina hartutako erabakiak indarrean segitzen du.

- Erdaldunei gure eskakizunekin bat egin dezatela eskatzen diegu aintzat hartu gabe erdaldunek ez dutela arazorik; are gehiago, gizartea elebidunduko litzatekeen neurrian euren arazoak areagotuko lirakeenaren uste osoa dute.

Honekin ez dut esan nahi gure eskakizunak zilegiak ez direnik. Euskararen ofizialtasuna, normalizazioa, hizkuntz eskubideen bermea eta abar toki guztietan defendatu behar diren eskubideak dira, guztiz demokratikoak gainera. Baina ez gara ohartzen erdaldunen ikuspegiak zilegiak izan daitezkeela, eta horren ondorioz gure mezuak ez direla behar bezala gizarteratzen. Adibidetxo bat: gobernuak salatzen dugu euskara errotuluetatik kentzeagatik eta ixilik geratzen gara gaztelania sprayz ezabatzen bada kartel elebidunetatik (noski ezin da parekatu erantzukizun maila: gobernuak herritarrak baztertzen ditu eta bestea erreakzio bat da). Baina iristen den mezua da euskara inposatu nahi dela.

Proposatzen diren aterabideak gehienetan ezin dira gauzatu agintariei gure ikuspegitik diseinatutako hizkuntza politika aplikatzea eskatzen diegulako. Gainera eskakizun horiek askotan alderdi abertzaleen eskakizunekin bat egiten dute, eta alderdi horien pisu politikoa txikia da. Ez dugu ahaztu behar lehia politikoan alderdi nagusiek ez dutela Euskal Herria kontzeptu politiko ezta kultural gisa ere onartzen, eta euskararen aldeko gizarte erakundeen eragina mundu ofizialean hutsaren hurrena da.

3.- Nafarroako beste hizkuntzaren, euskararen, normalizazioa begi onez ikusten da sektore askotan, inplikazio maila, intentsitate eta epeei buruz dagoen adostasunik eza begi-bistakoa bada ere. Premiazkoa da alderdi guztiek euskararen normalizazioa abian jartzea, aurreiritzirik gabe, onartezina baita herritarren hizkuntza eskubideak urratzen direnean «kontzientzia arazoak» direla medio gizartearen zati

handi bat baztert--
zea.

Euskalgintzak premia handiz bi lan hauei ekin behar-
ko lieke:

- Hizkuntz komunitatearen kohesioa, ikuspegi prak-
tikoago batetik. Mundu ofizialak egungo koiunturan eus-
kaldunok eskatutako ia guztiari muzin egiten dio. Gure
ardura nagusia euskararen erabilera soziala ahalbidetzea
da, epe ertainera begira Nafarroan dauden eta egonen di-
ren elebidunak (%25 hemendik 30 urtera) komunitate bi-
zi eta sortzaile baten partaide izan daitezen. Kontseilua
lantzen ari den Euskalgintzaren Plan Estrategikoa bezala-
ko proiektuak oso lagungarriak izanen direlakoan nago.

- Euskalgintzatik (eta alderdi politiko abertzaleetatik)
landu den diskurtso baztertzalearen inguruan hausnartu
behar da. Euskararen normalizazioaren eta Euskal Herria
proiektu politikoaren aurka daudenek ederki barneratu
dute beren diskurtsoetan Euskal Herri euskaldun elebaka-
rrenaren mezua, eta mezu faltsuen bidez lortu dute, mo-
mentuz nahi bada, kostu politikorik ez izatea. Areago, al-
derantziz izan dela erranen nuke nik, egoera honi etekin
politikoa ateratzen diotela.

Errealitatea zein den ez dugu behar bezala atzeman,
gaztelania %80ren ama hizkuntza da; eremu mistoan gu-
rasoen %65ek ez du D eredia aukeratzen, eskubidea du-
ten arren; alderdi politiko nagusiak ez datoz bat Euskal
Herriaren eraikuntzarekin. «Nafar osoak ez direla» bezala-
ko mezuek egia ez izateaz gain kontrako efektua lortzen
dute.

Munta handiko proiektuek, eta hizkuntzaren berres-
kurapenerako hizkuntza politikak diseinatzea halaxe da,
kontsentsu zabala behar dute eta ezadostasun txikiena
gaindiezina suerta dakiguke. Hausnarketa honetatik sort-
zen da nire iritziz begi-bistakoa den galdera: zer egiteko
prest gaude gu, euskalgintza, gustatu ala ez gurea den ara-
zoaren konponbidea ez dagoelako bakarrik gure esku?¶

Mikel Bujanda

1.- Gertatzen ari dena larria da oso, arras kezagarria, UPN bere indar guztia erabiltzen ari da, grina gaiztoz, tresneria instituzionala lanean jarrita —boterea, denbora eta dedikazioa emanez— premeditaturik, euskarari ahal duen kalte handiena egiteko.

Toki guztietan beharrezkoa dute hizkuntza ttipiek Botere Publikoaren laguntza. Beharrezkoa, eta ez da bera aski iraupena ziurtatzeko.

Inon baino garrantzizkoagoa da sostengu publikoa kontzientzia linguistikoa —euskaldun askoren artean ere— oso sendoa ez den Nafarroa honetan.

Are garrantzi handiagokoa, kontu eginik herrialde honetan Diputazioak —eta honen oinordeko den Gobernuak— herritarrengan beti izan duen aszendentzia eta sarkortasunari. Historikoki, nahi bada modu atabikoan, sinesgarritasun handia eman izan zaio erakunde horretatik datorrenari eta, beraz, alde batera eta bestera, onerako eta txarrerako, eragin handikoa da nafar jendearen jarre-
rak definitzerakoan. Iritzi preskriptore indartsua da Administrazio Forala.

Aldi berean, makro egitura ahal handikoa da Administrazio Foral hori eta, zuzenean edo sozietate publikoen bitartez, bere erabaki eta neurrien ondorioak nafar gizartearen sektore eta bazter ia guztietara hedatzen dira.

Horregatik da larria, baliagai materialak —diru laguntzak— ukatzea baino areago, Nafarroako agintetik euskara gutxieste, duen funtzionalitate sozial apurra ukatzea, presentzia publikotik desagertaraztea, kultur ondare gisa duen balioa mesprezatzea, eta gizarteak oraindik ere adierazia dion sostengua higatu nahi izatea. Baina, batez ere, benetan izutzeko modukoa da guztiaren muinean dagoen ideia nagusia, gutxitan espreski aditzera emana, baina jarraibide gidari gisa jokatzeko ari den honako mezu

suntsitzailea zabaltzen ari dela ikustea: *deus ez da galduko Nafarroan euskara galtzen bada.*

Hortxe dago arriskurik handiena. Lehenago deskribatu da nafar gizartearen sektore handi bati arrotz zaiola euskara, ez duela sentiberatasunik hizkuntzarekin, arduragabea dela. Axolagabetuen multzo horretara bultza ditzake euskararen aldeko jarrera epeletan zirenak. Zalantzak eta desmotibazioa sortu, zertarako galdetzer a eman eta ez duela merezi ondorioztatzea, euskararen inguruetatik uxatuz.

Zer esanik ez, euskararen aurkari —aurrejuzku politikoengatik etsai beligerante— direnen posizioak sendotu egiten ditu. Eta ugaritu aurkari aktiboen multzoa.

Ustea badut, edo itxaropena, eraginik ez duela izan euskararekin konpromiso irmoagoa duen jendearengan. Nukleo honek eutsiko dio enbatarri, agian errefortzaturik konbikzioetan, beharbada nekaturik, baina beti ere ahuldurik, maioria sozialetik gero eta bakanduagoa, aislatuagoa, ghettoan zokoratua. Bazterturik, eta intzidentziarako indarrik gabe.

Balorazioen aurretik, komeni da zehatz aztertzea zenbateraino den sistematikoa eraso; badira erabilpen publiko soziala oztopatzer a bideraturiko neurriak; bestea, balioa eta izen ona ukatzer a, jakitea eta ez jakitea berdin dela, ezertarako balio ez duela, disuasiorako pentsatuak. Hizkuntzaren barneari ere heldu diote, disgregazioari, euskararen eredu estandarra eta hizkera kolokialak kontrajarri nahirik.

Aurretik ere handiak egin izan dituzte Nafarroako agintariek, baina parekorik ez du azken hiru urte hauetan euskararen aurka darabilten oldar gupidagabeak. Lehena-gotik prestatzen, ernaltzen eta mamitzen hasiak ziren, baina 2000 urtean sartu ginenetik hona ezagutzen ari gara Hizkuntza Politikaren degradazio prozesu azkar eta zarakarra.

- 2.- Luze, zabal eta sakonera handiko gertakaria da, aparta, ez ohikoa. Argi dago euskalgintzaren erantzuna ez dela izan neurri berekoa.

Erauntsia ari duenean, enbata handiegia delarik, ez dago balio duen aterperik; makurtu eta kuzkurtu beste erremediorik ez dago. Pasatzen utzi, ea atertzen duen, edo baretzen den. Horrelako zerbait gertatu zaio Nafarroako euskalgintzari. Handiegia da gainera etorri zaiguna.

Erantzuna antolatu nahi eta indarren zenbaketa egiten hasitakoan, ahul dela ohartu da. Beharbada gure indarrak sobrealoratuak genituen. Edo, bestela, agortu egin zaizkigu.

Esate baterako, hitz handi larriak xahutu ditugu, *genozidio*, *apartheid*, eta antzekoak, aldeztatik sobera erabiliak, higituak eta motz gelditu zaizkigu. Salaketaren gradazioan eskailera goian geunden eta urrats kualitatiboak etorri zaigunean oraingoari izena jartzeko hitz berriak ez dugu aurkitu eta lehenagokoak hustuak, ahituak gelditu zaizkigu.

Gauza bera dena, Perutxo artzainari bezala gertatu zaigu, alarma hotsa maizegi joa genuen, eta otsoa, benetakoa eraso, etorri denean, aldarria kamutsa izan da, ez da sinesgarri gertatu.

Funtsean, paradoxan harrapatuak gelditu gara. Lehenagoko egoeratik kezu ginen; orain lehenagoko hura gaitzerdi zela ohartu, eta ontzat emanen genuke. Kontent ginateke genuen egoera hura iraunaraztearekin; egokitza-pena egiten ez dugu jakin.

Hortik dator —heine bateko— blokeoa.

Dena dela, erantzuna izan da: erantzun modu bat, ez okerrena, nor bere eguneroko lanari jarraipena ematea izan da. Kemena sobera ez dagoenean, zuhurtziak agintzen du zertan baliatu lehenetsi behar dela eta batzuetan hobeki dela desbideratu gabe, egun bakoitzeko lanean segitzea.

Adierazpen eta salaketa publikoak ugari izan dira, baina betikoengandik sortuak. Ez da sektore edo antolamendu gehiagotara hedatu prozesuak duen larritasunaren kontzientzia.

Erantzun soziala, kontestazioa eta mobilizazioa antolatu du Oinarriak plataformak. Jendetsu bai, baina eritua horiek eraginkortasun askorik gabeko direlako sentipena gero eta zabalduagoa sumatzen da.

Oportunitate batzuk aprobetxatzen jakin dute euskalgintzako taldeek, Euskararen aholku batzorde moldakaitza salatzeke.

Bide berriak urratu dira bestetik. Epaitegietara jotzea emankor gertatu da, eta Administrazioari problema larriak sortu dizkio: behartu du makinaria bortxatzera, epai-leen esana ez aditzera, eta episodio lotsagarriak protagonizatzen. Horrek, zalantzarik gabe, irudi publikoaren higadura ekarri dio Agintaritzari.

Erantzuna emateko garaian dibertsifikazioa ez da berez txarra. Errentagaitasun mediatiko handiagoa eman dezake gertaldi txikien hurrenkerak, denak batera egindako agerraldi bakarrak baino.

Gero eta zailagoa da euskalgintza ahots bakarrez mintzatzea. Partaide direnak berdinak ez direlako, eta berdinean ez izate hori, pluralitatea, errespetatu beharrekoa izateaz gainera, aberasgarria da.

Hala eta guztiz ere, oso argi dago dibertsifikazioa sakanaketa bihurtu dela eta horrek erantzuna moteldu duela.

Euskalgintzaren baitako sektoreak elkarrengandik bereizten dituen faktoreak zein diren izendatu eta traba horiek ezabatzeko ausardia hartu behar da. Horren ondotik, berreskuratu ahal izanen da elkarlana.

3.- Bihotza bero, burua hotz dugula jokatu behar dugu. Lehen eginkizuna, premia handikoa, gertatzen ari dena ulertzen saiatzea da. Zein den jokalekuaren luze-zabalera, zerk ekarri gaituen honetara, zer duten eta dagoen gure aurka, indarren banaketa nola dagoen, gure hutsegiteak non dauden... Hori guztia zehaztera iritsi behar genuke eta horren ondotik ondorioak atera.

Non gauden analizatzera hurbiltzeko, gutxienik honako osagarri hauek dira aintzat hartu beharrekoak:

- Nafarroako agintea dutenen euskararen aurkako jarraera: oso ohartuak daude probintzibakarreko proiektu politikorako traba eta oztopo zaiela beste herrialdeekin konpartitua den hizkuntza. Etsaigoa aprioristiko eta ideologizatua da, politikoa. Nahiago lukete euskararik ez balego. Nahikunde hori betetzeko prest daude.

- Aginte politikoa ez ezik, botere ekonomiko eta mediatikoa menperatzen dute: makinaria boteretsua da, kohesionatua. Posizio hegemonikoaz baliatu eta abusatzeko eskrupulurik ez dute.

- UPNren baitan, ultraeskuindar atzerakoenak nagusitu dira Juan Cruz Allik jokatzeko funtzio moderatzailea agorturik.

- Argibide asko eman ditzake gertaera bortitzen hurrenkera kronologikoa aztertzeak. Atentatuez ari naiz, eta bereziki Tomas Caballeroren hilketaz. Shock bat izan zen Nafarroako gizartean eta, batik bat, UPNren barnean. Motiboak badira pentsatzeko mugarri eta giltzarri izan zela hura, orduan diseinatu zela gerora ezagutzen ari garena: erruduna zigortzerik ez dagoenean, ingurukoak —errugabeak izanik— zigortzea desbideraketa zuzengabearen mekanismoa da, sublimaziotik eta mendekutik baduena. Euskal Herriaren izenean batzuek egindako hilketak Euskal Herriari —bere osoan— ordainarazi nahi dizkiote.

- Su etenaren garaia euskalgintzan euforiaz bizi izan zen (Sadar betea, Bai euskarari). Gero etorri zen zapuztaldia. Alderantziz, erreakzionarioek pentsaketa urdurian eman zuten tregoa. Hau amaitzean etorri zen planifikaturiko zigorraren aplikazioa. Horretan gaude harez geroztik.

- Aurrerapausoak eman ziren euskararen alorrean. Egungo perspektibatik hobeki antzeman daiteke hori. Euskaltzaleen bultzada eta Administrazioaren (atal baten) dispoizio eta mezuak (*euskara, aukera ona*), gehi kultur ekoizpenean eginiko lana, eraginkor izaten ari ziren: matrikulazioen gorantzakoa, hizkuntzaren prestigiatzea... Urrats txikiak baina bide onean. Prozesu eramanezina eta geldiarazi beharrekoa elite agintariaren ikuspuntutik. Zenbait pentsalarik jo zuen turuta arriskuaz oharrarazteko.

- Funtzio Publikoan lanpostuak lortzeko norgehiagokan euskara jakitea merezimendutzat hartzea gai delikatu eta sentibera da. Demagogia merke baina emankorrerako hazia. Interes korporatiboak, batetik (UGT, irakaskuntzan; medikuak, Elkargo profesionalaren bidez; udal idazkariren bat edo beste); gezurra eta manipulazio interesatua, bestetik: bizpahiru ale eztabaidagarriekin, arazo oro kortu ba-

ten psikosia zabaldu dute eta erdaldun elebakarrak diskriminatuak daudelako ustekeria propagatu dute.

- Propagandarako lanabesak, esandako horiek: demagogia, gezurra eta errepikapena. Horiei esker, berdintasunaren printzipioari heldu diote, alegia euskara jakitea eta ez jakitea berdin dela esateari eta sinestarazteari. Printzipio hori bera aplikatuz, diskriminatzailea izanen da, noski, beste edonolako merezimendu edo gaitasunik aintzat hartzea, jar dezagun titulu akademikoa, gidatzeko baime-na edo informatikan trebe izatea. Logikak ez du ordea ka-bidarik demagogia egitea erabaki denean.

- Euskararen Legeak arautzen duen zonifikazioa ez du sekula ontzat eman UPNk. Eskualde euskaldun bat onartzen du. Ez besterik. Eremu mistoarena ez du gustuko. Gure ikuspuntutik erdipurdiko sasieskubide batzuk eman, gainerakoak ukatzen dituen banaketa geografikoa bera, «*euskal nazionalistei eginiko kontzesioa*» da eskuin muturraren begietan. (Ez da ahaztu behar UPNrentzako euskaltzale guztiak, denak, euskal nazionalistak direla). *Vade retro*-ka ari dira. 86ko Euskararen Legea formalki aldatzen saiatu ziren, baina ez zuten parlamentuan gehiengoaren baiezkorik lortu. Hortaz, Legebiltzarrak ezetz emandakoari, haiek baietz diote, praxian, dekretu, araudi eta ebazpenen bidez. Hizkuntz eremu mistoan (beraz Iruñean eta honen inguruan, besteak beste) euskara ofiziala ez dela argudiatu, eskubide linguistikorik ukatu eta praktikan zona hau guztiz des-euskalduntzea dute helburu. Hotzean esanda, garbiketa linguistikotik gertu dago jokabide hori.

Gizartea. Hementxe gakoa. Nafar gizartea ez da, oro har, euskaltzale beroa. Euskara ez dago askoren kezka edo arduren lehentasunetan.

Baina, berea maite duen gizartea da. Berea duena defenditu ohi du. Euskara ere, asko gutxi, berekotzat du. Bada, gertatzen ari den guztiarekin, agintariekin, agintariekin hankapean darabilteela ikusita, nola daiteke nafar gizarteak ez erre-akzionatzea? Gehiago dena, euskararen aurkako jokamolde basa hori botoetan errentagarri izaten omen zaio basakerien egileari.


Beste edozerk baino zer pentsatu gehiago eman behar dio honek euskalgintzari. Ez du balio ez ikusiarena egiteak.

Urrundua dago gizartea hizkuntzaren auzi honetatik. Erasoka ari zaizkigu Agintetik eta gizartea ez da agresio horregatik minberatu. Beharbada ez dugu argi aditzera eman alderdi politiko bat instituzioak makurkeriaz erabiltzen ari dela nafar gizartea agreditzeko, honek maite duen hizkuntzari kalte egiten ari dela. Salaketa honek nafar jendea mugiarazteko indarra eduki behar luke. Baina gure salaketa indarrrik gabekoa da, neutralizatua dago. Badelako beste erako agresio bat, latzagoa, ebidenteagoa, bueltarik gabekoa. Horrekin sentitzen da agreditua nafar gizartea. Agresio molde horrek ttipitua, ezkutuan, uzten du gureganako eraso. Huskeria bihurtzen du materiagabeko eskubideen urraketa. Ondorioz, gure kexak, gure arrazoi eta egiak ahuldurik gelditzen dira.

Bada gehiago: euskarak popularitatea galdu du. Faktore anitzen eraginez, noski. Aztertu beharrekoa da, atxikimenduak galtzeko bide horretan, zenbateko pisua duen odol isuriak. Pertsonen aurkako indarkeriak sortzen duen arbuioa euskarari eta euskaltzaleen mugimenduari erantsi diote askok; indarkeriaren desprestigioak kutsatu egin gaitu. Batzuen errua guztiei hedatuz, zaku berean sarturik dena, helburuak eta metodoak nahisirik, xede batzuen kointzidentziari erreparatuz, hortik konnibentzia edo konplazentziaren uster a igaro, azkenik konplizitatearen estigma marraztu digute kopetan. Zuzengabekeria da, oker egindako identifikazio prozesua, zentzugabekoa, baina hala da. Indarkeria zein punturaino den elementu baldintzatzailea ulertzeko ahaleginik aski ez du egin euskalgintzak, mugimendu gisa ez bederen; eta are gutxiago estigma hori gaineratik kentzeko. Indarkeriarekin desadostasuna ez du behar bezain garbi eta ozen adierazi. Egoera honek indefentsioan uzten du. Erasopean eta defenditzeko argumenturik gabe. Blokeatua.

Gutziz premiazkoa du euskalgintzak gizartean legitimazioa errekuiperatzea. Guri ez digu balio demagogiaz aritzeak, ez dugu horretarako behar litzatekeen moduko bozgorailurik. Razionaltasunak izan behar du gure tresna.

Historia, kultura, bi-
zikidetzaz, dibertsitate



tearen balioa, komunikazioa, eskubidea, horiek dira gure arrazoiak. Horrekin koherentzia. Eskubideez ari bagara, motz geldituko da gure mezua eskubide linguistikoetara mugatuz gero, begien aurrean funtsezko beste eskubideen urraketa gertatzen denean.

Aldi berean, ideia gidariak berrikusi, landu eta sakondu behar dira. Honela, argitu eta delimitatu euskalgintza-aren esparrua, lurraldea, hizkuntza eta hiztunen komunitatean oinarriturik; Euskal Herria kontzeptu linguistikotik ikusi. Egitekoek hizkuntzari lotuak izan behar dute, ahalik eta eranskin gutxienekin. Edo gauza bera dena, euskalgintza lan arlo autonomo gisa hartu. Euskararen etxea ireki, eskaini beste ideologiei, pentsaera guztiei.

Malguago jokatu, errealitatean dagoenera egokituz.

Helburuen formulazioan, berraztertu aldarrikapen parasitoak; ikasi graduatzen, eta golkoan gordetzen esatea komeni ez dena. Eta beste asko.

Eutsi bitartean. Nor bere eginkizunean. Gertatzen ari dena ez da behin betikoa.

Azkenik, beste herrialdeetako euskaltzaleek zer egin ote dezaketen.

Auzoan gertatzen ari dena ikusita, dutenaren (duzuenaren) balioaz ongi jabetu, eta galduz gero gerta litekeena zuhurki neurtu.

Nafarroari begira, euskal hiztunen komunitate barneko solidaritate lokarriak sendotu, asko eman eta gutxi esan. ♪

Aingeru Epaltza

1.- 70eko hamarkadaren hasieran, Sanchez Carrionek bere *Estado actual del vascuence en la Provincia de Navarra* plazaratu zuelarik, euskara hondoa jotzekotan zegoen, mila urteko maldan beheraren ondotik, modernitateak eta frankismoak besoz beso azkena emanda. Eskolatik, kulturatik eta bizi publikotik baztertua, hiriburuan arrotz, mendialdera zokoratu eta leku guztietan zaharretsia, gutietsia eta itzalik gabea, gure hizkuntza, oroz gain, traba zen euskaldunarendako nahiz erdaldunarendako, ghetto geografiko eta sozial batetik kanpora.

Aldiz, 2000n hitzun kopuruak, beherakada geldiarazi ez ezik, goiti egina zuen; horietarik anitz, gainera, eskolatuak eta bere hizkuntzan idazteko eta irakurtzeko gai ziren. Euskara sendotzen ari zen hezkuntza sisteman eta esparru berriak irabazten kulturaren alorrean. Hedabideetan eta administrazioan ere sartua zuen muturra. Hirian nabarmentzen hasia zen, erdaldunen artean ere, gutika-gutika zabaltzen ari zen hizkuntzarenganako estimazioa. Hiru hamarkada lehenago hizkuntzaren azken santutegizat jotzen ziren ibarretan, berriz, isilik zihoan mundu baten lekuko ez, baizik eta aurrerapenaren ikur bilakatua zen gero eta euskaldun gehiagoren gogoan.

Euskaltzale mugimenduaren lanaren emaitza da gehiena. Baina merezimendua ez da bakarrik euskaltzaleena. Aitzinapauso horietarik, anitz ez ziren posible izanzen Euskararen Legeak —Vascuencearenak, nahiago bada— ekarritako babesik gabe. Bere eskasean ere, bere zikoitzean ere, sozialisten edo Alliren urteetakoa da Nafarroak, halako izena duenetik, euskarari bere historia osoan eman dion estatus instituzional aldekoena, erresuma burujabearen garaikoa barne. Legeak ezarritako zonifikazioak Nafarroako bi herenak ofizialtasun arrastorik gabe utzi bazituen ere. Derrigoræzko irakaskuntzatik etorritako abiada

Lanbide Hezkuntzako eta Unibertsitateko ate ondoan baturik utzi bazuten ere. Euskalerria Irratiaren eta ikastola frankoren legeztatzeari uko egin bazioten ere. Foru Administrazioa euskalduntze bidean abiatzeko oztopo etenga-beak ezarri bazituzten ere.

Sanzen Gobernuaren ez da itsuka ari. Duela hiru urtetik honat hartu dituen neurri guztien giblean egoeraren azterketa bat dago —soziologikoa, linguistikoa eta soziolinguistikoa—, baita filosofia bat eta xede trinko batzuk ere. Nafar gizartea ezagutzen dute, nafarren psikologia ere bai, badute haren mekanismo mentalen berri. Badakite non jo, eta erakusten ari dira. Helburua gu 70eko hamar-kadara itzularaztea baizik ez da, 30 urte hauetako lorpenak deuseztatuz. Euskara berriz ere traba izatea nahi dute, euskaldunendako eta erdaldunendako. Ghetto geografiko, sozial eta —orain— ideologiko batean sartu nahi dute, bertan, arnas faltaz, ito dadin.

Kalteak? Zerrenda luzea egin liteke, alorrez alorrekoa. Bada bat, orokorra eta Foru Komunitateko gizarte osoari dagokiona: gaur egun Nafarroan nor izan nahi duenak badaki euskara ahalik eta arrotzen izatea duela lehenbiziko egitekoetarik. Eta mezu hori jende arrunta —ez euskaldun, ez euskaltzale, ez abertzale den gehiengoa— barneratzen ari da. Gure artean ere halako ustea bide egiten hastea baizik ez da falta, Nafarroako Gobernuaren aspaldi honetako erabaki eta neurri guztiek beren zentzua aurkitzeko. Une honetan, sentipen horixe dugu etsirik handiena. Horixe eta euskaltzaleen neke, etsipen... eta ezbidetenganako isuri kronikoa.

- 2.- Aspalditik harritia nauka euskaltzale mugimenduaren zati batek euskara ezabatu nahi dutenekin dituen osagarritasun harreman bitxiak. Gure ghattizazioa Sanzen eta enparauen xedea da, baina ghattizazio horrek berak abaro eroso du gutariko zenbaiten gogoan. Ondorioetariko bat autismoa da: ez da ikusten, ez da sumatzen taldexkatik haratagokoa. Jendaurrean, gizarte osora ailegatu beharra azpimarratzen da, haren inplikazioa lortzeko premiaren leloa berretzen. Alabaina, praktika konbentzituaren kontsu-

morako da. Sistematikoki mespretxatzen, baztertzen edo boikoteatzen dira, zurruntasun ideologikoaren mesedetan, eremu berriak gureganatzen ahalegintzeko egiten diren saioak. Gutxi baina sutsuak nahiago, anitz eta epelak baino.

Ja rra horrek kutsatu du, hein handi batean, Nafarroako Gobernuaren politikari eman zaion erantzuna. Politika horren jopuntuan euskaltzaleak eta euskaldunak izanik ere, azterketa zorrotzagoak ikusarazi behar zigun nafar guztiak zituela xede. Gure erantzunak, beraz, horren araberakoa behar zuen, nafar gizarte osoa landu eta inplikatzeko helburu. Ez da, ordea, horrela egin. Ez, bederen, behar adina. Ohi dugunez, euskaltzaleak izan dira gure mobilizazioen eta agerraldien subjektu: nafar populazioaren %20-25 inguru. Joera hori, gainera, areagotu da denbora iragan arauz. Ondorioak ere begi-bistakoak dira: duela bi urte egin zen lehen mobilizazio handi hartan 27.000 lagunek higitu genituen Iruñeko karririk; joan den abenduan, berriz, 17.000 ginen.

Gure mezuen koherentzia ere kolokan utzi dute zenbait ekintzak, eta horiei etekina ateratzen jakin dute *Diario de Navarra* bezalako hedabideek. Alferrik ari izan gara errepikatzen Foru Gobernuaren neurriek Nafarroako aniztasuna eta bizikidetzaren larriki urratzen dutela, gero Sanzen dekretuaren ondorioz oraindik kendu ez dituzten seinale elebidunen gaztelaniazko atala Euskal Herrian Euskarazek ezabaturik aurkitzen baduzu hurrengo egunean.

Gainerakoan, euskaltzale mugimenduak bere ahulezia erakutsi du, behin berriz. Egiturak badira, alor ezberdinetan lanean, baina gehienei ez zaie eskatzen ahal halako neurri uholde bati erantzuteak eskatzen duen kanpaina jarraituan aritzerik, eguneroko egiteko «arruntei» erresistentzia lana gehitzeak dakarren neke erantsia ezin erama gertatzen delako. Horretarako sortu direnek, berriz, baliabideak dituzte eskas, antolakuntza eta sinesgarritasun arazoak ahortzi gabe. Horri gaineratu behar zaio talde politikoen interferentzia etengabea, mezu argiak bideratu ezina, sentitu gabeko batasun plantak egin beharrak sortzen duen higadura.

Alderdi positiborik izan da, dena dela. Kanpo-salaketa horietariko bat izan da. Bertze bat, bide judizialaren erabilera etengabe eta sistematikoa, Euskara Kultur Elkargoaren eskutik bereziki. Nago, azken hau, Sanzen Gobernuaren amesgaiztoetarik bilakatu dela azken urte honetan.


Nolanahi ere, garbi dago orain arte egindakoa ez dela aski. Eta ez bakarrik UPNren ofentsiba geldiarazteko gauza izan ez garelako. Egin dituen guztiak kostu politikorik ekarriko dion ere ez da batere gauza segurua. Sanz aski trankil sentitu ahal izan da gure kontrako erasoan, ETaren ekintzek eta Lizarrako itunak Estatu osoan —Nafarroan ere bai— piztarazitako giro antiabertzalearen estalpe goxoan. Boxedari besobakarrak nekez du bisaia kolpe-erauntsitik babesten.

3.- Eusteko, ez etsitzeko eskatzea erraza da, baina zerbait gehiago beharko dugu maldan behera geldiaraziko badugu. Nafarroako hurrengo Gobernuan UPN baldin badago, ondorioak latzak izan daitezke, arlo batzuetan itzulezinak. Hala ere, gure giroetan, ez dut aipu sobera entzuten heldu den maiatzeko hauteskundeen garrantzi erabakigarriaz. Bada, atera orduko, gaiari ihes egiten dionik.

Ez daiteke Nafarroarako estrategia zuzenik mamitu hondar hiru hamarkadetan urratutako bidez gogoeta sakona egin gabe. Are gutiago, Nafarroako errealitate soziologikotik urrunduta. Errealitateaz bertze eginik eta haren kontra jarduteak etsipena baizik ez dakar. Ni jadanik nabaritzen ari naiz etsipena neure inguruan.

Euskaldunak gutiengoa gara gaur egun Nafarroan eta gutiengo izanen gara geroan ere, urte luzez. Iragana erabil dezakegu ikur. Hizkuntzak bizirik irauteko baldintzak eska ditzakegu. Baina gure tamainaz eta gure ahalaz oharturik jokatzeko mesedegarria izanen litzaiguke.

Iragarpen bat, ez sobera ausart: Nafarroako alderdi politikoen arteko indar korrelazioan artean ez da epe motz-ertainean funtsezko aldaketarik izanen eta, beraz, ezta Nafarroako estatus politiko-instituzionalean ere. Bertzela erranda, Nafarroak probintzia bakarreko erkidego autonomoa izaten segituko du, Espainiaren barnean.

Sanz, dena dela, 
ez da sekulako.

Inork baino aukera gehiago ditu hurrengo hauteskundee-
tan garaile gertatzeko, baina lasterketa hasi baizik ez da.
Euskaltzaleok errateko franko izan dezakegu, baldin eta
UPNren kontrako giroa suspertzeko gai bagara eta gure
botoa, barreiatu beharrean edo etxean gelditzeko partez,
bertzelako gobernu bat posible egin dezaketen indarretara
badoa.

Bai, bertzelako gobernu bat erran dut, ez gobernu
abertzale bat. Ezen, Nafarroan euskararen maldan behera
berria geldiaraziko badugu, horretarako behar den esze-
nategi juridiko-instituzionala ez dugu euskaltzaleok era-
bakiko, ez gure ordezkari-edo diren alderdi abertzaleek
ere. Ez orain, ez geroan ere. Aitzitik, gure ikusmoldetik
urrun —hagitz urrun— dauden bertze indar politiko bat-
zuekin egin beharko dugu tratua. Jakinik indar korrelazio
bat izanen dela eta hura, hauteskunde-mapan inon ere
sumatzen ez den iraulketa bat gertatu ezean, ez dela gure
aldekoa izanen. Jakinik, orobat, emaitza ez dela gure es-
pektatiba historikoekin bat etorriko. Jakinik abiapuntu
bat baizik ez dela izanen, abiapuntu nahitaezkoa, lau urte
hauetan galdu duguna berreskuratzeari lotu ahal izateko,
eta, akaso, bertze alor batzuetan aurrerabideak aurkitu
ahal izateko.

Latza? Latzagoak dira gainerako aukerak, eta denbora
gehiegi alferrik galdu dugu, gure ametsetan preso. Mende
laurden bat daramagu goizetik arrats atekatik aterako gai-
tuen gertakari miraritsuaren esperoan. Ez da halakorik
etorri eta, zenbaiten kalaka gorabehera, zeruertzean ez da
itxaropenari eusteko aztarnarik ageri. Ordu dugu. Lau ur-
teren buruan are beheragotik hasi beharko dugu aldapa
pikoagoa igotzen. ¶

Andres Iñigo

1.- Zalantzarik ez dago kulturari dagokion proiekturen bat bideratu ahal izateko, alde zurratik argi izan behar dela egitasmo horren zergatia, berez duen baliagarritasuna edo boterean dagoen alderdiak atera nahi dion etekina. Are gehiago, aldiaren aldiko botereak halako proiekturen bat bideratzeaz gain bulkatu eta sustatu ahal izateko, zalantza izpirik ez dago lehenik eta behin berea egin behar duela.

Egitasmo hori lurralde osoan ondare kulturala denean, nafar guztien ondare aberatsa, baina hamarkadaz hamarkada galtzen ari dena, lurraldeko agintariek benetan salbatzeko borondatea baldin badute, etengabeko galerari aurre egiteko dagozkion neurriak hartu behar dituzte. Ondare kultural hori lurraldearen berezko hizkuntza bizia baldin bada, komunikazio tresna alegia, begi bistakoa da neurri baliagarri bakarra hizkuntza horren erabilera bulkatzea dela.

Hortaz, irakaskuntza, administrazioa eta hedabideak abiapuntu hartuta, biziaren gainerako alor guztietara hedatzen saiatu beharko luke lurralde honetako hizkuntza-aren alde dagoela dioen agintek. Helburu horretara bideratzen ez den hizkuntza politika hizkuntza biziari dagokion helburu propioa desbideratzen ari da.

Nafarroako hizkuntza politika arautu nahi duen dekretu berriak euskararen sustapena eta hedadura bulkatu beharrean, azkeneko hamasei urteetan egindako urratsak alde batera uzteko neurriak ebazten ditu. Hasteko, Foru Komunitateko orain arteko legediak euskara lurralde osoan berezko hizkuntza eta eremu batean hizkuntza *ofiziala* ere badela onartzen du. Dekretu berriak, ordea, bi onarpen horiek isildu egiten ditu. Horretaz gain, administrazioan euskarazko zerbitzuak ukatzen dizkie herritarrak, i rudi instituzionaletatik euskara ezabatzen du eta, nafar guztien eskubide berdintasunaren printzipioaren izenean,

administrazioaren langile izateko hizkuntza gaitasunaren printzipioa zapuzten du.

Begi bistakoa da neurri horien helburua ez dela euskararen erabilera sustatzea, ez eta, ondorioz, gizartean hizkuntzaren normalizazioa lortzea ere. Politika horren eragina aurreko hamasei urteetan egindako urratsei atzera martxa jartzea da.

2.- Erantzunak bi ataletan sailkatzen ahal dira.

Batetik, euskalgintzak eta euskaltzaleek, publikoki eta modu orokorren, agertu dutena. Alde honetatik, uste dut 2001eko otsailetik hasita euskaltzaleek karrikan egindako agerraldiak arrakastatsuak izan direla. Horiakin batera, aipatzekoak dira, bertzeak bertze, urte horretan bertan Iruñean egindako Euskaltzaindiaren agerraldi publikoa eta adierazpena, Nafarroako udaletako hautetsiena, Unibertsitate Publikoan izandako erantzunak, Euskara Kultur Elkargoak eta Behatokiak egindako zenbait helegite, Parlamentuan agertutako desadostasunak, izandako eztabaidak, etab. Garrantzitsuak eta aipagarriak denak, baina bertze aterabide batzuk ere planteatzeko ordua iritsi dela dirudi. Euskal alderdietako ordezkari politikoez egiten duten lana baliagarria da ezbairik gabe, baina mesedegarria izanen litzateke, edo behar-beharrezkoa nahi bada, esparru horretan bertze urrats batzuk egitea. Euskararen geroa nafar guztien erantzukizuna denez gero, euskaltzaleak direnena eta ez direnena alegia, azken hauen euskararekiko erantzukizuna berpizten saiatu beharra dago. Lan erraza ez bada ere, ezin da erran ezinezkoa dela, Nafarroan lehendik ere horrelakoa egin direlako eta, oraingo egoerari aurre egiteko, nahitaezkoa delako Parlamentuan oinarrizko adostasunetatik abiatu eta helburu zabalagotara eramane gaituen sarea bilbatzen hastea. Bertzela, ametsetan segituko dugu, utopiaren munduan, euskara ahultzen ari zaigun bitartean.

Bertze alde batetik, euskalgintza alorrean ari den baikoitzak bere lanpostutik, lantegitik, erantzukizun kargutik... era pertsonalean ematen dion erantzuna daukagu. Azkeneko hogeiren bat urte hauetan, euskalgintzaren inguruan lanpostu sare bat osatu da, funtzionarioena batik bat.

Anitzetan galdetzen diogu geure buruari, ea geure lanpostutik edo erantzukizun kargutik ematen ari garen erantzuna behar bezalakoa ote den. Bertze hitzetan erranda, euskalgintza euskararendako lan egiteko aukeratzat ala bizibidetzat bakarrik hartzen dugun.


Bertzalde, onartu behar da gaur euskarak jasaten dituen gaitz guztiak ez direla azkeneko bizpahiru urte haue-takoak bakarrik, ez eta euskaltzale ez direnen jokaeraren ondorioz sortutakoak.

Aldaketa sakon guztietan bezala, egoerak txarrera egi-ten duenean, ematen du aurreko guztia ontzat hartzen dugula eta, neurri batean, idealizatu ere egiten dugula. Oroimen historiko pitin bat duenak, ordea, gogoratuko du euskaltzaleek galdutako aukera Parlamentuan. Admin-istrazioan ere euskararen organigraman erantzukizun karguetan egon diren edo dauden euskaltzaleek zenbaite-tan bulkatu eta hartutako erabakiek, euskararen kalitate eta prestigioaren gainetik, ez ote diote lehentasuna interes edo curriculum pertsonalari, protagonismoari edo bere bo- te retxoan segitzeari eman? Nola ulertu, bertzela, kargu ho-rietatik bulkatu eta defendatutako zenbait proiektu eta jo- kabide, erraterako, hizkuntza eskakizunena edo egungo dekretuari aldeko botoa eman izana?

3.- Etorkizunari begira kontuan izan beharko liratekeen ildo estrategikoen artean ahantzezinak iruditzen zaizkigu, bertzeak bertze, hurrengo hauek:

- Euskararen erabilera herritar guztien eskubide gisa planteatu eta aldarrikatu behar da behin eta berriz. Nafar guztiak dira eskubide horien titularrak eta administrazioak herritarrek aukeratzen duten hizkuntza bermatu behar du, irakaskuntzan, administrazioan eta hedabideetan. Al- di berean, euskararen presentzia bermatu eta hizkuntza ikasi dutenek erabileran ere trebatuak izan daitezen balia- bideak ezarri behar ditu.

- Beharrezkotzat jotzen da, irakaskuntzarekin batera, euskararen erabilera ikastetxeetatik kanpo ere planifikat- zea. Ez da aski egungo D eredukoek euskara ikastea, era- biltzaile aktiboak ere ez baldin badira, geroan beren umeei

modu naturalean  erakuts diezaioten.

Belaunaldien transmisioa bermatzen ez bada, nekez ziurtatzen ahalko da euskararen errekupeazioa eta etorkizuna. Horretaz gain, euskara etxean eta hurbileko ingurunean jasotzen bada, anitzez hobeki ikasi eta erabiliko da.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoak euskal lerroetatik heldu diren ikasleei euskarazko ikasketekin segitzen lagundu behar die. Nafarroako egoera normalizatu batean lurralde osoko unibertsitate publiko bakarrak, neurri batean bederen, elebiduna izan behar du.

- Elebidunak euskaldun aktiboak bihurtu ahal izateko beharrezkoa da erabileraren sarea hedatuz joatea zerbitzu, lantegi, aisialdi, kirol, kultura eta abarretako guneetara. Sare hori bilbatzen den neurrian, euskalduntzen ari direnak elebidun hartzaile izatetik euskaldun aktibo izatera pasatzen ahal dira; bertzela, nekez.

- Nafarroan beharrezkoa da azkeneko urte hauetan alderdi politiko ez euskaltzaleek gizartean erein duten ideia faltsua, modu positiboan azalduz, gainditzea. Erabat faltsua da, nafar guztien eskubide berdintasunaren printzipioan oinarriturik, hizkuntza gaitasun printzipioa zapuztea. Administrazioaren lanpostuak zerbitzu lanpostuak dira eta, hortaz, lurraldeko bi hizkuntzak jakitea balioetsi behar da eta lanpostu batzuetarako euskara jakitea nahitaezko baldintzatzat eman.

- Euskalgintzako langileek benetako profesionaltasuna erakutsi behar dute eguneroko jardueran, euskalgintza ez dadin bizibide huts bihur.

- Parlamentu eta udal hautetsiei eta euskalgintzari beharrezko zaie lortu nahi diren helburuak ongi planifikatzea, pausoka eta pazientziarekin jokatzeko, hemendik aitzina egin beharrekoan orain arte gertatutakoa eta bizi-takoa ikasbide hartzea, bigarren aldiz harri berean ez erortzeko. Hizkuntzaren normalizaziora iristea, egoerarik hoberenean ere, urtetako lana da, eta gauden egoera honetan, zer erranik ez. ¶

Jose Angel Irigaray

1.- Euskalgintza erasopean egotearena —ez soilik Nafarroan—, aspaldidaniko kontua da. Guztiarekin ere, euskaldunak gauza izan dira bizirauteko. Azken bulta honetan, nahiz erasoak ugaritu, sistematizatu eta egonkortuak izan, ezin sinetsiz edo, oraindik ere aldikal harridura nagusi. Eta irautea bizi seinale ona bada, ez hain ona harriztearena.

Egoera espainiar (eta frantziar) sistemapekoa da. Euskal «aferarekiko» kontzientzia inoiz baino agudo eta sakonago hartzen ari den sistemapekoa, hots, gero eta gogor eta gotortuagoa. Nafarroak duen enbor izaeraz (hizkuntza politikan eta politikazko hizkuntzan) sakon oharturik, berau errotik moztea eta bereixtea lehentasunezkoa da sistemarentzat. Bertako bunkerra buru-belarri dabil horretan, hizkuntza lurrik gabe utzi nahian. Euskara bereskuraturik, erresumaren luze zabalean *lingua navarrorum* bilakatzen den heinean, beti izan baitaiteke naziotasunaren kontzientzia-iturri.

Hortik, bizi-eremuak oraindik ere gehiago higatu nahi izatea, debekuak eta intoxikazioa areagotzea, ea hizkuntzarekiko desfekzioaz gain, kezka, beldurra eta desmotibazioa lau hegaletarat zabaldu eta nagusitzen diren. Horrela, gainerat, euskalgintzaren dinamika ere baldintzatzen da. Erasoa, zuzenean erdiesten dituenaz gain, arazo, toki eta denbora finkatuz, euskaltzaleen indarrak baititu bideratzen, erabiltzen eta are probokatzen. Euskalduna, gaitasunez bainoago borondatez betea, haietan erantzutera behartua da beti. Menpekoaren berezko patua. Erresistentzian, beraz, oraingoz behintzat, eta duinki, baina aski nahi eta ezinean, zorigaitzez.

Eraso eta probokazioak, bestalde, ez dira hizkuntzaren esparru mugatzen, ez lurralde baterat; hutsegite larria dateke hori uste izatea. Hizkuntza eta sozietatea bereziekin dira, hizkuntzarena politika orokorraren isla da beti.

2.- Nafarroa Garaian, egun, populazioaren %15 doi-doia da euskaldun, 70 bat mila. Baina, nafar guztien ondarea izateaz gain, zaleen babes eta munta ezinbestekoak dira diglosiazko egoeran. Eta kopuru hori aise handiagoa da —hor dira inkestak, matrikulazioak eta antzekoak—, beharbada populazioaren %50 edo. Alta, balizko aldeketasun hori ez da inondik ere islatzen hizkuntza politikan. Hargatik, edo ez da hain alde eta handia, edo zerbait egin dugu gaizki (edo behintzat, ez behar bezain ongi). Alabainan, erabat alde eta aurka daudenez landarat, gehiengoa ezaxolatu samar- turik —eta galanki intoxikaturik— egon arren orain baino aise gehiago erakar daiteke; baldintza bakarra: hizkuntza politika gaituagoa.


Nahiz eta egun aski aro beltzean izan, hemen eta munduan, bizi-estrategia mailan ibiliz gero (arrazoiaren indamez sendo, justizia, askatasun eta elkartasunean, erre- alitateaz jabeturik, zentzuz, triunfalismo merketik edota biktimismo negarti eta erixkotik urrun...), ez da aise hura luzaz erreprimitzen jardutea; azken batean, ezinezkoa gisa hortaz sendotu eta sendaturiko herria geldiaraztea.

Bestelako hizkuntza *policy* bat lortzea, beraz, lehenta- sunezko urratsa da. Eta hor erdigunea berreskuratzea eta osatzea (sinesgarritasuna, koherentzia, talante eta talen- tua; norberaren burutik haste) baitezpadakoa da. Hortik abiatuz, hiztungo osoari beha (0 hiztunak barne, hemen- go erdaldungoa, hots, unibertsal izateko borondateare- kin), hizkuntzaren aldeko eta hiztun mota guztien moti- bazioa areagotzearena abiapuntua bezenbat helburua da. J. M^a Sánchez Carriónnek aspaldi zuen argitu: normaliza- zioa motibazioa optimizatuz abiatzen da. Azken plan eta egitasmoak ikusirik, badirudi entzungor dugula jarraitzen. Eta izan nahiaren harira, hizkuntza aldeketasuna sustat- zea baitezpadakoa da. Ildo hortarik, geuretzat eta gainera- koentzat interesgarri eta erakargarria datekeen egoera be- rri bat sortzea da erronka; ideia, ekintza eta jarduera bizi- garriak tarteko. Eta hori, gure esku dago.

Identitatearekin zerikusia duen borondate hori, norbe- raren atxikimenduaz gain, hizkuntza guztien berbalioaz

eta denak aske eta elkertasunean bizitzeko eskubide-obligazioaz noiz eta mamituago orduan eta eraginkorrago. Ez behiala, ez bihar; orain eta hemen baizik. Ez besteengan edo norberarengandik at dagoen afera bailitzan; gugandik hasiz eta haziz baizik. Hutsegiteak bilakatuz ikasbide, eztabaida-gogoetaren argitan.

3.- Politikazko izarian

gabiltza, bere zentzu  sakon eta onenean,

ez indarrean dabilen hertsu eta besterenduan. Baina, akonplejatuxe, «politizatu» gabea nahi dugu gurea, handik alduendago eraginkorrago izanen ginatkeelakoan; hain «maltzurak» ez garela ikustean, aiseago datekeelakoan euskara normalizatzea. Eraginik aski duen inuzurra, are euskaltzaleen artean.

Hizkuntzak, edozeinek, nazio izaera dauka, politikazko natura (Saussureri «sozietate erakunde nagusia» zeritzon). Eta edo datxekion botere mailan da, edo diglosiazko egoeran higituriko eta baztergarri den *patois* da bilakatzen. Ezinbestekoa, beraz, politika gaiaren mailarat iristea, agudo. Egungo egoeratik haste, besteak beste, daukaguna hobeki zaindu, sortu eta transmitituz, jarduerak koherentziaz mamituz, hizkuntzari dagokion botere-normalizazioa berreskuratzea helburu; geure buruari dagokiguna.

Hizkuntza guztiak dira unibertsal, oroien ondare; hortik haiek tentuz eta arretaz tratatzearen garrantzia. Alta, «sozietatezko erakunde» direnez, ideologizaturik daude (nagusituetan hainbat non ideologizazioa, «normalizat» hartua, ez baita nabaitzen ia; azpiratuetan ia beti eskas eta gaizki). Auzia, beraz, propioki eta behar den mailan egoetea da. Hori, haatik, ez da ezeingo bermerik; bai, orde, ezinbesteko baldintza. Nahiago genuke hala izango ez baltz, baina alferrik da. Ilusiozko mundutik jautsi gabe, egungo munduan ezinezkoa baita euskarak sozietate erakunde bizi gisa irautea. Nafarroa Garaian eta Nabar erre-suma osoan.

Beraz, usuegi erraten eta aldarrikatzen denaren aitzi, are euskaldungoan, euskarak Nafarroa Garaian, eta gaine-

rakoan, behar duena, beste edozein hizkuntzak bezala, ez da politika gutxiago, politika txar eta eskas gutxiago eta politika on gehiago baizik. Hain zuzen, indarrean diren jarduerak gaindituko lituzkeen bizi-estrategia mailako politika: nazio izariduna, askea, sustraitua eta zabaldua, sortzailea, geroa orain mamituz eta garatuz doakeena, bitartekoak eta helburuak propioki integratzeko gai datekeena. Egoerari buru egiteko daukagun berme bakarra. ¶

Maripaz Iturbe

1.- Galdera hauei erantzuteko, koka gaitezen Nafarroako Erriberan.

Duela urte pila galdu zen hemen euskara; horregatik, euskararen presentziaren historia berri xamarra da. Euskal hiztunak bakar batzuk besterik ez dira, gehienek bihotzean daramate euskara hainbat nafartarek bezala, eta euskal sena mantentzea zaila da beraiantzat.

Ikerketa soziolinguistiko desberdinetan, Erribera euskararen alde azaldu da, baina hainbat herritan ez dago euskara ikasteko aukerarik; bakar batzuetan AEK-k betetzen du behar hori.

Tutera, Lodosa eta Bianan, Ebro ibai ertzeko herri hauetan, honela dago euskara ikasteko aukera: Tuteran hiru «gune» daude, nolabait esateko, Hizkuntza Eskola, AEK eta Ikastola; Lodosan AEK eta Ikastola; Bianan IKA eta Ikastola.

Herri hauetan, 80-90eko hamarkadetan, arazo eta trabaz inguratutako kontestu sozial eta politikoan sortu ziren Ikastola hauek herri ekimenari esker, 5, 6 edo 7 haurrekin, gela txiki eta zaharretan. Orain, Nafarroa Oinezi esker, itxurazko eraikinak dituzte.

Administratiboki Lizarrako merindadean daude Lodosa eta Biana herriak, baina geografikoki eta hizkuntz

egoeraren aldetik Erriberarekin parekatzen dituzte, alegia, *erdal eremuan* «Vascuencearen Legearen» arabera.

Lege honen 16. usteurrena abenduan bete zen; honen ondorioz, euskara ez da modu ofizialean existitzen Erriberan, eta bertako euskaltzale eta euskaldunen eskubi-deak ez dira errespetatzen; bigarren mailako heritarrak dira. Ikastolak alegalak, ikastetxe hauetan matrikulatuta dagoen haur kopurua ofizialki ez da inon agertzen; eskoletan ere ezin da euskaraz ikasi, bakarrik ikasgai moduan.

Kalte ekonomikoak kontaezinak dira, gaur pittin bat eman, bihar moztu, egoera larriak pasaraziz. Ezinean dabilzan hainbat ikastola txikien etorkizuna, aldiz, kolokan jartzen jarraitzen dute, ematen duten diru eskasaren iturria ahuldu ondoren.


Komunikabideek goitik behera erasotzen dute euskararen kontra, hizkuntza politikarekin nahastuz, hizkuntzen arteko gatazka sortuz, euskara hizkuntza gutxituen artean dagoenez gerora begira baliorik ez duela aldarrikatuz. Gasteiztik datorren kadukatutako jakia izango balitz bezala.

Ingelesa bultzatzen dute etorkizunerako oso beharrezkoa dela esanez. Hau guztia gizartean poliki-poliki txertatuz joan da, ondorioz. Erriberan azken urte hauetan euskarak eman dituen pausoak motzak eta neketsuak izan dira. Nafarroako Erriberako lur sailak oso zabalak dira, herri batetik besterako distantzia fisikoa handiegia da euskarak lege eta eraso hauekin zubiak eraiki eta hedatu ahal izateko. Esanen dut eraso guztiek izaera politikoa izan dutela. Erabili duten helburua euskararen alde bizirik dagoen herri mugimendua ahultzea izan da.

Epe labur eta ertainean hau gertatu baldin bada, luzera, lege aldaketa behar da normalizazioa lortzeko, eta agintariak euskara Erriberan indarrez bultzatzen ez badute, leinuen antzera iraunen du; hemen multxo txiki bat, han beste bat.

- 2.- Bai, egokiak iruditzen zaizkit, noski. Euskaltzaleak saiatu dira euskararen alde hainbat ekintza aurrera eramaten, baina euskalgintzak jaso behar izan duen eraso zaparrada

kontuan hartuta, ar-
gi dago ez direla



nahikoak izan. Euskaltzaleen aldetik planteatu diren aterabideak, oro har, betikoak izan dira: manifestazioak, sinadura bilketak, Korrika, Oinez...

Planteatu diren aterabideak bai, baina agian, azkenaldian egin diren euskararen aldeko deialdietan ez da ikusi gizarteko sektore bakoitzeko ordezkarien elkartasuna (Sadar futbol zelaiko «Bai Euskarari» ezik), denen indarrak batu eta lelo berberarekin kaleratzea: *Euskararik gabe Euskal Herririk ez*.

- 3.- Agintarien jarrera ezkorra eta bortitza ikusi ondoren «formula magikoren» bat beharko genuke Nafarroan, herriak eskatzen duen normalizazioa eta hizkuntz eskubideak eskuratzeko.

Jarrera honen aurrean ezinbestekoa iruditzen zait Nafarroako euskaltzale guztien inplikazio, elkarketa eta herri ekimena, indartsu, tinko, inongo zaputzik gabe egiten diren ekintza guztietan parte hartzeko konpromisoa.

Euskara berreskuratzeko aldarrikapenak sistematikoki temati-temati..., deialdiak Nafarroako herri txikietako txoko guztietara igortzea, gizarteko sektore guztietako taldeek —kirola, kultura, politika...— komunikabidetan egiten dituzten agerraldi guztietan euskaraz mintzatzea, eta ahal den neurrian beraien presentziarekin ekintzak bultzatzea, noski, hau Euskal Herri osoan. ¶

Paula Kasares

1.- Duela bortz urte inork gutxiak asma zezakeen zer heldu zitzaigun nafar euskaldunoi. 1997an Nafarroako Gobernua-
ren euskararekiko nolabaiteko permisibitatea eta sustapen
epelaren politika, euskararen hedapena galgatzea eta ha-
ren erabilera soziala ez sustatzea xede zuen hizkuntz poli-
tika batek ordezkatu zuen. Harez geroztik, Gobernuak de-
kretuz, aginduz, ekintzez... aldez edo moldez, euskarak
Nafarroako gizartean irabazia zuen tokiari mugak jarri ez
ezik, murriztu ere nahi izan du. Euskararen gutxiagotze
instituzional neurrigabearen hasmenta izan zen.

Estrategia kalkulatu da, ez berehala asmatua. Euska-
raren aldeko gizarte diskurtsoa baliogabetu eta aldatzera
zuzendua. *Orain arteko hizkuntza politika gehiegi izan da eta
Nafarroako gehiengoak diskriminatzen du erraten hasi zen
Nafarroako Gobernuburua. Hortik euskara dagokion leku-
ra berriz eramateko saioak etorri ziren euskaldunak gut-
xiengoak baitira Nafarroan eta ez dagokie gaztelaniadunen es-
kubide berberak izatea. Izan ere, euskara ez da nafar guztien
eskubidea, soilik ama hizkuntza dutenena, mendialdeko nafa-
rra. Areago, euskara sustatzearen atzean Nafarroaren iden-
titatea arriskuan jartzen duten interesak daude; horregatik,
euskara aldarrikatzen duten nafarrak ez dira fidatzekoak.
Gainera, dagoeneko Nafarroan euskara normalizatuta dago
eta euskaldunen egoera normala da. Orduan, Nafarroako hiz-
kuntz politika ofizialak diru publikoa atzerriko hizkuntzen az-
tertzeke eta sustatzeko erabiltzea zilegi da.*

Diskurtso instituzional horrek bi xede nagusi ditu:

1) Euskararako motibazio pragmatikoa ahultzea. Eus-
kaldunen hazkunde demografikoa gelditu nahi dute.
Hainbat nafarrek euskara ikastea edo seme-alabak euska-
razko eruedetan eskolatzea erabakitzen dute euskara jaki-
tearen abantailak bultzaturik, gaztelania eta euskara eza-
gutzearen balio instrumentalez sinetsirik. Motibazio hori

euskararen balio soziala azpimarratu eta elikatzen duen politika batek mantentzen du eta Nafarroako Gobernuaren erabaki anitzek motibazio pragmatiko hori ahuldu eta ito nahi dute, euskararen balio soziala eta prestigioa gutxituz, euskara ez dadila izan abantaila soziala eta ez dezala motibazio instrumentalik piztu. Euskara ikastea otu zaien nafarrek jakin dezatela euskara jakiteak ez diela abantailarik emanen eta ikasteagatik ez direla zerbitzu publikoak hizkuntza horretan hartzeko eskubidedun izanen.

2) Euskararako motibazio identitarioetarako lekurik ez uztea. Euskara Nafarroaren irudi instituzionaletik ezabatu dute. Instituzionalki Nafarroa elebakarra da eta hala hedatzen eta islatzen du nonahi. Nafartasunak ez du euskalduntasuna biltzen, areago, kontrajarrita baleude bezala azaltzen du Gobernuak. Euskara aldarrikatu eta eskatzea *politikoki ez zuzena* den jarrera politiko-zibikoa da: *marjinala, nafartasunaren mehatxagarria, susmopekoea, bake soziala hausten duena*. Hortik heldu da hizkuntz politikaren diru publikoak soilik euskarari ez lotzea eta atzerriko hizkuntzak lehenestea. Hortik heldu da euskararen erabileraren diru publikoz bermatu beharra ez balitz bezala jokatzeari, nork bere sakelatik ordaindu beharreko kapritxoa bailitzan. Bertzalde, egun Nafarroak populazio etorkina jasotzen du (dagoeneko, nafarron %4,4 da). Horrek, nafar euskaldunak portzentualki gero eta gutxiago izatea ekarriko du, eta Nafarroako Gobernuak eta erdararen interesekin bat egiten dutenek haien diskurtsoan probestuko dute: *Nafarroako euskaldunak ehuneko txiki bat baino ez dira*. Arrazoi kuantitatiboak oinarri hartuta murrizketa gehiagoren bidea irekiko dute, Nafarroan euskara eta euskalduntasuna gutxiengo ttipi baten hautua baizik ez dela argudiatuz, eta *Europari begira dagoen Nafarroa kulturانيتza osatzen duten kultura txiki guzietan bezala izatea dute, baina horretarako ez zaie gehiengoaren diru publikoa emanen*.

Hori da duguna, eta nola eragiten dio diskurtso horrek gizarteari? Dagoeneko, zenbait alorretan eragina nabaria izan da (D ereduaren eta helduen euskalduntzearen matrikulak). Administrazio arloko murrizketek Administrazioetik at ere badute eragina, gizarte arlo diferenteak aise


eragingarriak baitira. Euskararen erabilera gomendatzen ez duen giroa hedatu du Gobernuak, neurri disuasorio ezberdinak erabiliz (diru laguntzak...), eguneroko jokoan euskararen erabilera, elebitasuna bera, gomendatzen ez dutenak. Euskara gero eta arrotzago egin nahi du Administrazioak, eta horrek euskara hurbil ez duen eta praktikan euskararekiko nahikoa axolagabea den nafar erdal-dun arruntaren (nafarren gehiengoaren) pertzeptzioan eragina du.

2.- Eta zer eragin du euskaldunongan? Hori da, niretzat, benetan inportantea. Zer pentsatzen dugun, zer erraten dugun eta zer egiten dugun nafar euskaldunok. Ez gara nortasunik gabeko gutxiengo bat, ez gara soilik ehuneko ttiki bat (diskurtso politiko ofizialetik aurkeztu nahi gaituzten bezala), ez gara talde pasibo bat, gertatzen denaren aitzinean inolaz erreakzionatzen ez duena. Bere nortasuna eta bere buruaren pertzeptioa duen komunitatea gara. Historikoki bere biziraupen eta birsortze soziokulturalerako estrategiak garatu dituen eta, orain arte irautea ahalbidetu duen erresistentzia modu ezberdinen subjektua izan dena.

Baina Nafarroako euskal hizkuntz komunitatea ahula da eta oraingo kinkan zail du gehiengoaren aitzinean sendo agertzea. Zail izaten zaio oinarrizko eskakizunetan bat etortzea eta diskurtso bateratua hedatzea (eta diskurtso diodalarik, ekintza ere erran nahi dut). Maiz, planteamendu sobera ideologizatuak karrikatzen ditugu, geure errealitate eta aldarrikatzen dugun utopiaren tartea neurtu gabe. Nafarroan euskaldunok %15 gara eta, nire idurikotz, garen gutxiengo hori sendotzea izan beharko litzateke lehentasuna. Finean, komunitatearen birsortzerako ezinbertzeak diren egiturak, urtetako lanez sortuak, sendotu, orain bitartean gure biziraupen bermea izan baitira.

3.- Eta oraingo kinka honetan, nola eutsi? Euskal gutxiengoak bat eginik agertzeko ahaleginak egin beharko litzuzke, oinarrizko eskakizunetan guziz bat heldu den gutxiengo sendoaren irudia emateko. Eta bertako gutxiengo gisa espazio publikora, Nafarroako plazara, hala atera, oso eta

sendo, ez bereiz eta
makal orain bezala.



Hori da egiteko duguna, honetatik onik aterako bagara: euskal hizkuntz komunitatearen oinarritzko hitzarmena. Finean, geure erresistentzia aktibo edo eraldatzailea, egungo gutxiagotze egoera eraldatzera zuzendua, antolatu.

Eta zeren inguruan batu beharko ginatete? Oinarritzko definizio baten inguruan eta batasun horretatik diskurtso koherentea eratu: Nafarroako bertze hizkuntz komunitatea onartu eta harekiko parekotasuna eskatu (ez gaitzke ibil batzuk elebiko errotuluak eskatzen eta bertzeak elebiko errotuluen erdal hitzak ezabatzen). Eska dezagun geure lekua, nafar euskaldun izateko eskubidea. Gure aldarrikapenak duen indarra ongi probestu beharko genuke. Parekotasuna eskatzen dugu eta Gobernuak etikoki zail du bereizkeria justifikatzea, zail nafarren arteko parekotasunaren defentsaren inguruan egituratzen den diskurtso koherente bati dialektikoki gaitzetea eta bertako hizkuntz komunitate baten zokoratze historikoaren jarraipena argudiatzea. Abilak ere izan beharko genuke diskurtsoa egituratzen eta hedatzen, Gobernuak auzia planteatzen duen mailatik aldentuz eta eztabaida parekotasun eta eskubide zibilen alorrera eramanez. Nafarroan euskaldun izateko nahia eta eskubidea aldarrika dezagun ozen, dago-kigulako, bidezkoa delako. Heuscaldun den *nafar* oroc alcha beça buruya.¶

Iñaki Lasa

1.- 1986.eko abenduaren 15etik 16 urte bete ditu Vasconcearen legeak. Legea ez dago pentsatuta euskararen normalizazioa errazteko eta Nafarroako herritar guztien eskubidea den euskara ikastea eta erabiltzea bermatzeko. Legea egin zutenen asmoa ez zen urteetako errepresioaren ondorioz ordezkatzeko prozesua gelditzea eta egoera kezkaragarrian zegoen eta dagoen hizkuntzari berezko garapena erraztea. Vasconcearen legea bultzatu zutenen asmoa oso bestelakoa izan zen: euskararen errealitatea Nafarroako esparru geografiko jakin batera mugatu nahi izan zuten lurralde osora hedatzea eragotziz. Euskarari muga gaindigaitzak jarri euskarak izaera sinbolikoa ez zuela gaindituko pentsatu zuten. Oker zeuden oso.

16 urte hauetan Euskalgintza gauza izan da, bitarteko urriak izanik ere, herritarren sostengu zabala eskuratzeko. Legeak ezarritako mugak aise gainditu ditu euskarak eta, gaur egun, herri ekimenari esker, helduen euskalduntze alfabetatzea, ikastolak, euskara taldeak eta, oro har, euskararen aldeko dinamika errealitate pozgarriak dira Nafarroa osoan. D ereduak matrikulazio handia eskuratu dute azken urte hauetan eta milaka heldu aritu da euskaltegietan; ondorioz, belaunaldi berriak neurri handi batez euskaraz datoz eta euskaldunberrien lehen haur euskaldunzaharrak sortzen hasiak dira, horrek esan nahi duen guztia-ekin. Gainera, kalitatezko zerbitzu eta produktu ugari sortzeko gaitasuna izan du Euskalgintzak eta mugimendu erakargarri bilakatu da jende askorentzat.

Errealitate horrek behartu du UPN euskararen kontrako politika aktiboa martxan jartzera. Berrero ere, euskara gune geografiko jakin batean itxi nahi dute hedapena eragotziz, baina, oraingoan, suntsiketa politika erabiliz. Lotsarik eta kupidarik gabe joko dute euskararen kontra honek «Nafarroa desberdinduaren» proiektu politikoa ko-

lokan jartzen duelako ozenki. Azken 16 urte hauetan euskara ez da herritarrentzako kezka izan, ez da arazoa izan, naturaltasunez bizi izan du herritarrak normalizazio prozesua, eta horixe da euskaltzaleon aktiborik garrantzitsuenetarikoa. Beraz, euskara herritarren arteko gatazka bihurtu nahi izatea gu ahultzeko estrategia da.

Beraz, epe motz, ertain eta luzean politika horrek izan dezakeen eragina edo kaltea herritarren borondatearen arabera izango da, dudarik gabe. Gauza bagara indarrak batzeko, estrategia adosteko, erakargarriak izaten jarraitzeko, euskararen kontrako politika sustatzen dutenak politikoki higatzeko eta normalizazioa erraztuko duten proiektuak martxan jartzeko, aurrera egingo dugu eta kaltea ez da handia izango. Amore ematen badugu, ordea, gureak egin du.

- 2.- Gure uste apalean, ez gara ongi jokutzen ari, ez gara dago-kigun ardura gureganatzen ari. Egia da itotze ekonomikoaren politikak kalte handiak egiten dizkiela euskararen alde diharduten taldeei, egia da diru laguntzek hipoteka astunak ezartzen dizkietela talde batzuei, eta egia da euskalgintzak eskaintzen dituen kalitatezko zerbitzuek jende askoren eguneroko lana eskatzen dutela. Baina, hala ere, garrantzi handikoa da indarrak batzea, ikuspegi sektorialak gainditzea eta bakoitzak bere sailetik ikuspegi orokorrez jokatzeko batzen gaituzten plataformak indartzea, eta hori ez gara egiten ari.

Hizkuntz politika kaltegarri eta estrategiko baten aurrean gaude, ez kanpaina koiuntural baten aurrean. Zentzu horretan, erantzun koiunturalek ez dute arakastarik izango, indarrak erretzeko arriskua dugu ez badiogu erantzunari izaera estrategikoa ematen. Orain arte ez gara gauza izan datozen urteotan nondik jo behar dugun adosteko, egunerokotasuna gainditzeko eta denok batuko gaituen foro bat indartzeko. Bitartean, bakoitza bere aldetik erantzuten saiatu da, egoera gainditzeko norberaren indarrak nahikoa balira bezala edo norberaren arazoak pasabi-deetan konpondu ahalko balira bezala. Bakarka salbatzeko bideak denon ahultzea dakar.

Bereziki aipagarria da bide judizialak hartu duen gehiegizko pisua Gobernuaren hizkuntz politikaren kontrako erantzuna artikulatzean. Argi dago bide guztiak erabili behar ditugula asmo zitalak galgatzeko; baina, era berean, lan ildo horiek ez baditugu estrategia zabalago batean kokatzen aukera faltsuak sortzeko arriskua dugu. Ez dugu jokatu behar gurea ez den lurraldean bakarrik, eta justizia arloa ez da gure lurraldea, hor galtzeko guztiak ditugulako (ikus bestela Itoitzen gertatutakoa). Euskaltzaleok uste badugu bide judizialak bizitzen ari garen egoera gainditzeko lagunduko digula oso oker gaude. Arlo judizialean ditugun aukerak, arlo mediatikoan ditugunak eta, batez ere, herritarren sostenguari esker artikula dezakegun erantzuna dira epe ertain eta luzeko estrategia definitu behar dutenak. Garaiz gabiltza baina, era berean, esan behar dugu denbora faktorea ez dela gure aldekoa eta, ondorioz, ahal bezain pronto definitu behar dugu aurrera giteko bidea.

- 3.- Aurrera giteko estrategiak 4 zutabe garrantzitsu izan beharuko lituzke. Lehenengo eta behin, normalizazioari begira urrats errealak eman ditzakegu, batez ere, udalak inplikatzuz. Udalak dira herriarengandik gertuen dauden instituzioak, eta askotan alderdi hegemonikoek ezartzen dituzten politikak saihesteko aukera egon ohi da. Bestalde, herri ekimenez asko egin daiteke merkataritza arloa, kirol arloa, lan mundua eta abar normalizazioaren alde inplikatzeko konpromisoen bidetik, asko egin daiteke plangintza estrategikoen bidez udalerrri askotan, eta, nola ez, asko egin daiteke norbanakoek konpromisoak har ditzaten euskara ikasiz eta erabiliz. Herritarren borondatea tin-koa bada ez dago prozesua gelditzerik, moteldu ahalko dute, baina ez gelditu.

Beraz, bigarren zutabea, herritarren kontzientziazioa eta motibazioa lantzea da. Nafar Gobernuak zabaldu nahi duen herritarren arteko gatazka faltsua agerian utzi beharra dago. Ez dago erdaldun eta euskaldunen arteko gatazkarik, ez dago ingelesaren eta euskararen arteko gatazkarik. Euskaldunon hizkuntz eskubideak ez dira bermatzen, gure eskubideak zapalduta daude eta guk bakarrik aurkit-

zen dugu gure hizkuntzaz bizitzeko ezintasuna, horixe da arazoa. Errealitate hori gizarteratu beharra dago eta horrekin batera egoera gainditzeko alternatiba: hizkuntz eskubideak bermatu behar dira lekuan lekuko eta arloz arloko plangintzak bultzatuz, eta euskara ofizial izendatu behar da lurralde osoan.


Hirugarrenez, ezinbestean proiektuak sendotu behar ditugu. Itotze ekonomikoaren politikaren ondorioak arindu behar ditugu eta bideragarritasun ekonomikoa eskaini behar diegu martxan ditugun proiektu guztiei (euskaltegiak, hedabideak, ikastolak, bestelako ekitaldiak...), bide alternatiboak erabiliz eta elkartasunari dei eginez. Sektorak indartzeko denon inplikazioa beharrezkoa da, eta inoiz baino gehiago euskararen aldeko ekimenek gure elkartasuna eskatuko dute.

Azkenik, euskararen kontrako hizkuntz politikak ordain elektoralak ekarri behar du. Horretarako bide bakarra gizabanako guztiengana iristeko bideak artikulatzea da eta gezurrezko informazio ofizialari aurre egitea errealitatea ikusaraziz eta errudunak seinalatuz.

Zutabe horiek oinarritzat hartuz aurrera segitzeko aukera eman behar digun bide estrategikoa definitu eta adostu behar dugu. Gure desberdintasunak bazterrean uzteko unea iritsi da, hiperkritikoek kritikez gain proposamenak ere egin beharko dituzte eta, azkenik, denok batera abiatzeko gutxieneko ahalegina eskaini behar dugu. Hala bedi. ¶

Egunen

gurpilean



kultura • 135

Euskaldunon Egunkaria

JOSEBA BALERDI



literatura • 144

Egunkaria itxi ziguteneko urtea • Sua ala etxea

- Ekidistantzia eta euskararen jabegoa
- Erakundeak nola eta noraino • Pluraltasuna gora eta behera
- Konpromisoak eta eraikuntza • Amaitzeko

LAURA MINTEGI



soziolinguistika • 155

Elkartasuna *Euskaldunon Egunkaria*-rentzat

- Soziolinguistikaren dimentsio soziala
- Hizkuntz ereduak eta sistema sinbolikoak
- Gizartea eta hizkuntza besotik hartuta

IÑAKI MARTINEZ DE LUNA




telepolis • 161

Zuntz optikoaren garaia omen

- Administrazio publikoaren eragina
- Kultura eta hizkuntza txikientzako beste galbahe bat
- Banda zabala EAEn • Euskaltelen zabalkunde-egitasmoa
- Herri txikietarainoko hedapena • Baserri eta nekazari-eremua
- Alegiazko eta egiazko errealitatea

AMATIÑO



Nafarroara sartzen ari da Korrika, hamahiru garena, ni hau idazten ari naizen unean. Bigarren aldiz, Mauletik irten eta berehala sartu baitzen nafar lurtean lasterketa. Baina oraingoan, Lizartza atzean utzi eta Araizko balletik barrena sartu da, oraingoan penintsulaz ari gara hizketan eta ez kontinenteaz, eta badirudi penintsulaz haratago ikusi nahi ez duen asko eta asko dagoela herri honetan. Ikusten ez dutenak bai behintzat.

Hamahirugarren aldiz euskararen alde korrika. Ez da marka makala, kontuan hartuta Korrika batetik bestera bizpahiru Nafarroa Oinez, Ibilaldiren bat edo beste, Kilometro askotxo eginak direla gaur korrika doazen horiek. Eta martxa honetan, beste hainbeste gutxienez egin beharko dituztela. 2030.ean ere euskararen alde korrika!

Ni emozionatu egiten naiz Korrikaren aurretik doan polizia-kotxearen sirena ikuste hutsarekin. Emozionatu... esan nahi dut alegia, hotzikara moduko bat sentitzen dudala, eta begiak gorritu egiten zaizkidala. Emozioen munduko erreakzioa da, nahi gabe sortzen baitzait, eta ez zait gustatzen niri jendaurrean emozioak erakustea. Baina pentsatzen hasten naizenean, gaseosa marka famatu baten iragarkia etortzen zait burura (penintsularra ni ere, bai alajaina!). Egarrria izateko korritzen zuten iragarki hartakoez, eta gaur, guk, egarrria asetuko digun inor ez ote dagoen galdetzeko. Edo gure egarrria asetzeko gauza den inor ez ote dagoen galdetzeko. Esango bainuke, egiaz, ez dagoela horretarako inor.

Eta eskubide kontuez ari gara. Osakidetzak —hori omen du asmoa— pediatra eta familia-medikua euskalduna izan dezagun erraztasunak emango omen ditu, behar izanez gero gure herritik kanpo dagoen beste medikuren baten paziente-zerrendan sartuz. Baina ez du zehaztu gutetik aldameneko herrira joan gaitezen taxia ere ordainduko ote digun. Eusko Jaurlaritzara bulego orduz kanpo deitu, eta «¡Seguridad!» dioen hitz hotsa entzuten da tele-

fonoz bestalde, baina harek ere ez du zehazten zein segurtasun bermatzen duen. Iruñean bizi eta udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituenak, zerrenda berezi batean eman behar du bere izena, baina ez diot inori entzun nazien garaiko Alemanian oinarritutako metodoa denik (fitxatuta daude euskaraz hitz egin nahi duten iruindar guztiak, bai). Eta...

Eskubide kontua da, bai, baina ez gara oraindik konaturatu. Ezta *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten egunean ere. Eraso gisa hartu zuen orduan euskaldungoak egunkariaren ixtea, eta zalantzarik gabe eraso izan zen. Bortitza. Euskal nortasunaren muina bera ukitu zuena, asmoa hori izan ala ez. Zalantzarik gabe, eguneko biran hitz nagusietan joan beharko lukeen gaia, hauxe izan baita Euskal Herria azken bolada honetan gehien astindu duen auzia. Baina eraso are bortitzagoa da herri honetan euskaraz eginiko egunkaria bakarra izatea; telebista ere bakarra, lurralde osoan entzun daitekeen euskarazko irratia ere bakarra, aldizkariak bi edo hiru. Eta hori konkistatzat hartzea, berriz, tristea. Nik hiruzpalau egunkari nahi ditut euskaraz, batzuk serioagoak, beste batzuk herrikoiagoak, ezkertiarak batzuk, eskuindarrak besteak, herriz herriko berriak ematen dituztenak, edo Londresko kioskoetan *Le Monde*-ren edo *The Wall Street Journal*-en aldamenean egunero saltzen direnak. Hori edozein herri normaletan gertatzen da, eta nik ere herri hau normala izatea nahi dut.

Euskaldunon Egunkaria

Izenetik dario *Egunkaria*-i (zerion esan behar ote dugu dagoeneko?) nire desioa hutsean geldituko dela argi uzten duen promesa. Euskaldunok ez dugu beste egunkaririk, eta dugunak guztiona izan behar du. Egoera, noski, ez da normala. Ea nork aurkitzen duen munduan beste adibide bakar bat: herri baten periodiko bakarra izan, eta aldi berean, herri osoarena izan behar (edo herritar guztienta, berdin zait). Ez du inork aurkituko, bi behar horiek aldi berean betetzea inposiblea baita.

Baina hemen, Euskal Herrian, sutsu ari dira batzuk horren defentsan. Orain artekoa baino zabalagoa izan behar duela Egunkari berriak, iritzi-aniztasuna gehiago errespetatu behar duela, jarrera editorialak ez duela hain murrizta izan behar... eta beste hainbat gauza irakurri ditut otsailaren hogeitik joan den hilabete t'erdian. Egia esan, ez dut goitik behera, oso-osorik zakarrontzira botatzeko moduko iritzirik irakurri, eta debatearen osasunari buruzko seinale ona da hori. Baina, tarteka bai, nabaritu ditut arrainik ez den tokian sarea bota dutenak. Bi zentzutan gainera.

Batetik, ezin zaio zumarrari garirik eskatu. Eta periodiko bat oso gauza serio eta definitua da. Ez da, inolaz ere, pandemonium bat. Irakurleek egiten dute neurri handi batean kazeta bat —galdetu bestela kalean gelditu diren *Egunkaria*-ko langileei—, eta irakurle horiek dituzten nahiak, eskariak eta espektatibak bete behar ditu periodikoak. Aurrenekoa, bezperako notiziak txukun ekartzea. Bigarrenik, txukuntasun horretan, niri interesatzen zaizkidanak ekartzea (Orokietan izandako istripua interesgariagoa beraz, Txinako probintzia galduren batean izandakoa baino). Hirugarrenik, nik baino gehiago dakitenen iritzi eta analisi kualifikatuak eskaintzea. Baina horrekin batera, *last but no least*, analisi, iritzi edo albiste-sorta horrek egunkaria erosi duenean norberak zituen espektatibak asetzea. Horixe eskatzen zaio periodikoari. Periodikoak ezin du goizero-goizero irakurleei plastada bana ematen ibili. Irakeko gerra *er*n kontra dagoen irakurleari ezin zaizkio egunero Bush-en onurak besterik kontatu (tarteka beharbada bai, pieza periodistikoak *rara avis* baten estatusa galtzen ez duen bitartean); gerraren kontra dagoen irakurle horrek argi ikusi behar du bere periodikoa ere gerra *er*n kontra dagoela (berriro diot, nahiz eta tarteka gerra *er*n aldekoiei ere hitza eman) eta ez dabilela epelkeriatan. Jarri orain Irakeko gerra *er*n ordeztu beste edozein gai —gai nagusi, pertsona baten ideologia definitzen duten horietakoak— eta emaitza begi-bistakoa da: periodikoak bere inguruko ideologia duten irakurleak behar ditu, iraungo badu, edo irakurleen ideologiara moldatu beharko du, desagertu nahi ez badu.

Ideologia zentzu zabalenean erabili beharreko kontzeptua da, hala ere. Ideologia abertzale/ez abertzale edo ezkeriar/eskuindar parametroetan ulertzea bide motzeko bidea da. Baina horretarako joeraren bat edo beste nabaritu dut azken asteotan irakurritako iritzi-sortan. Abertzaleegia izatea ez ote zioten leporatzen batzuek *Egunkaria*-ri; ezkerrekoa izatea, beste batzuek; ETA ren biolentzia gaitzes-ten ez zuena omen zen; epelegia, beste batzuen esanetan, Eusko Jaurlaritzaren diru laguntzak galtzeko beldurra omen zuten-eta arduradunek. Eta zer?

Konbentzitu gaitezen *Egunkaria*-k, euskarak, Euskal Herriak ez duela aurrera egingo periodikoa erosteko orduan hainbesteko arazo ideologiko/psikologiko sortzen bazaizkigu. *Egunkariak* zuen balio nagusia, nire iritzian, informatiboa zen. Herri honetan gertatzen zena kontatzen zigun, prisma jakin batetik noski (periodiko bakarra izatearen zamak), beste askok kontatzen ez zizkigutenak; Biasteri edo Erriberri Amoroto edo Baliarrain bezain euskal herri zirela gogora ekartzen zigun (ez modu panfletario edo erromantikoa, ez: hango saltsa eta berri xumeak kontatuz), eta beste askok, Biasteriko gertaeren aldamenean, Murciako Alcantarillakoak kontatzen dizkigute; Feroe uharteetan edo Ipar Irlandan gertatzen ari zenaren berri ematen zigun (prisma jakin batekin, noski, baina ez zegoen besterik...), eta beste askok futbol kontuetara mugatzen zituzten Danimarkako administraziopeko uhartein gorabeherak, edo Ipar Irlandaz Clinton agertzen zenean bakarrik akordatzen ziren; iritzi-emaile sakon eta ugariren artikuluak kaleratzen zizkigun (baita astunegiak egiten zitzaizkigunerenak ere tarteka); periodiko osatua zen (osatzeko lanean beti ere, osatzekorik ere bazuen-eta, bertan zihardutenek ongi asko dakiten bezala).

Bi arazo zituen ordea, *Egunkariak* Aurrenekoa, editorialik eza. Nik faltan botatzen nuen editoriala (asteotan irakurritakoaren arabera, badirudi askok egunero lortzen zutela *Egunkaria*-ren editoriala irakurtzea, eta nik beriz, nire abildade falta honetan, ez daukat gogoan sekula aurkitu izana. Martxeloren igandeko artikuluak salbu). Egunkari batek derrigorrez behar du, bestela irakurleei esfortzu

handiegia eskatzen zaie, periodikoan barrena linea editoriala zein den asmatu behar izate horretan (eta lehen esan bezala, irakurleak identifikatu egin behar du periodikoarekin, ispilu izatea eskatzen dio). Eta iritzia izatea ez da bekatua. Batzuk molestatu egingo direla? Eurentzat okerrago. Baina periodiko batek iritzia emateko erabateko eskubidea du. Eskubidea baino gehiago, ezinbestekoa du, horixe baita bere oinarrietako bat. Beraz, proiektu berrirako, hona ideia bat.

Baina arazo nagusia euskarazko periodikoa izatea zuen. Jendeak ez daki euskaraz komunikatzen, tamalez. Eta ez du gainera horretarako beharrik ikusten. Inork/ezerk ez du adierazten euskaraz komunikatzea inportantea denik. Ezerk/inork ez du erakusten euskaraz komunikatzea derri-gorrezkoa denik, herri honetako elebitasunak, gaizki ulertutako elebitasunak, den-dena gaztelaniaz edo frantsesez errepikatzen eraman gaituelako. Zer irakur zitekeen *Egunkaria*-n eskusiban (*Egunkaria*-n eta ez beste inon)? Ia ezer ez, nahiz eta hamahiru urteko historian primizia sorta bat lortu. *Egunkaria*-ren eskusibak ere biharamunean gaztelaniazko periodikoetan agertzen ziren. Zer entzun daiteke euskarazko irratietan gainerakoetan entzungo ez dena? (informazio munduaz ari naiz, Anjel Alkain, Pello Zabala edo antzeko fenomenoak, zorionez, euskaldunonak bakarrik baitira). Zer telebistan?

Hor dago koxka. Koxka handia, zaila, baina hala ere gaindi daitekeena. Euskal Herriak euskaraz hizketan hasi behar du horretarako. Eta botere publikoek, behingoz, euskararen aldeko apustu sendoa egin behar dute (orain artekoa sendoa izango zen asmoetan, ez dut nik hori ukatuko, ez inoren intentziorik epaituko, baina emaitzak ikusita, ez behar bezain sendoa). 20 urtetik gora daramagu Euskal Herriaren hegoaldean nolabaiteko autogobernu baten bidez antolatzen gure eguneroko martxa. 20-25 urtetik beherako guztiak euskaldunak izan zitezkeen, beste politika batzuk abian jarri izan balira. Jarri izan balira, 25-50 urte bitarteko beste asko eta askorentzat euskara ez zatekeen hain arotza izango une honetan. Baina apustua beste zerbaiten aldekoa izan da, eta begi-bistan dago zein den egoera.

Botere publikoez gain, herri ekimenek ere kontuan hartu beharko dute denbora tarte luze honetan zer egin den. Aurrerapen urri, nire ustez. Eta autokritika ere gutxi. Baina zerbaitek huts egin du, ez dago inolako zalantzarik. 135.000-150.000 herritar bildu zen Donostian *Egunkaria* itxi osteko manifestazioan, baina harpidetza berriak 3.000 inguru omen dabilta. Gaztelaniaz idatzitako medioetan ere jarraitu daiteke *Egunkaria*-ren auzia. Ez dago euskaraz komunikatzeko beharrik. Eta botere publikoez eta herri ekimenez gain, Euskaltzaindiari ere eskatuko nioke hausnarketaren bat. Lehenago ere esana dut, baina nik neure burua analfabeto ikusten dut euskaraz, bitzta osoan zehar euskaraz idatzi eta irakurri arren. Gehiegitan aldatu dizkit arauak akademiak; gehiegitan eman dizkit mezu kontraerriak, gehiegitan enkortsetatu nahi izan dit hizkuntza, zailagoa eginez, naturaltasuna ilunduz, edo nik behintzat inpresio hori izan dut. Eta idatzizko hainbat lan irakurtzea, gaur egun ere, kosta egiten zait (vid. Euskaltzaindiak berak *Egunkaria*-ren itxiera eta Martin Ugalderen gorabehera prozesalak zirela-eta argitara emandako oharra: edozeinek esango zukeen gaztelaniaz pentsatu eta ondoren itzulitakoa zela).

ETAk ere hausnarketaren bat egin beharko du, orain arteko irakurketa baino sakonagoa. ETA izan da operazio honen guztiaren aitzakia nagusia. Aitzakia diot, ez arrazoia. Itxi dutenek faltsuki erabili duten arrazoia. Baina aitzakia gisa funtzionatu duena, ez Espainiako iritzi publikoaren aurrean bakarrik, baita mundu osoko iritzi publikoaren aurrean ere, *Egunkaria*-ren auziaren inguruko blokeo informatiboa askoz ere errazagoa eginez. Euskaldungoari interesatzen zitzaion oihartzun zabala baretuz, isilduz. Batetik, pozteko notizia ETarentzat, Europako iritzi publikoa moldatzeko gaitasuna aitortzen diona. Baina bestetik, euskaldungoari kalte egin diona.

Ez hori bakarrik. ETA, gainera, proiektu berriari buruzko eztabaida baldintzatzen ari da, nahita edo nahi gabe, ez naiz ni horretan sartuko. Nik sinets dezaket, *Egunkaria*-ren historian zehar, behin baino gehiagotan saia zitekeela ETA periodikoan nolabaiteko zeharkako kontrola

izaten. Ez dut sinesten lortu zuenik, ezaugarri profesional gehiegi ikusten baitzitzazkion *Egunkaria*-ri. Eta sinesten dut, baita ere, beste hainbat talde edo erakunde ere saiatu dela *Egunkaria*-ren eguneroko martxa baldintzatzen, harantz edo honantz egin zezan. Baina horiek guztiak *Egunkaria*-ren osasunaren seinale onak besterik ez dira.

Proiektu berriari begira, ordea, ETA arma jautikor bihurtu da euskaldunon arteko debate-prozesuan. Eta horregatik nioen gorago bat baino gehiago arrainik ez dagoen tokian ari dela sareak botatzen. Ez zumarrari garirik eska ez dakiokeelako bakarrik, ez (edo periodiko batek bere oinarizko izatea alde batera utzi eta beste zerbaitetan bihurtu nahi dutelako); larretan arrantzarik ezin dela egin jakin a ren, hala ere larretara sarea botatzea erabaki duten batzuk ikusten ditudalako debate honetan, jakinaren gainean, sareak larre sastraka gero eta nahasiago egingo duela. Eta hauen helburua zein den zehaztera ez naiz ausartuko, ez baititut euren asmoak ezagutzen, baina efektuak ordea ikus daitezke: debatea nahastea lortzen da, ETAREN inguruan nahastea, jakinik nahasketa horrek sortzen duen korapiloa askatzea benetan zaila dela herri honetan. Alegia, *Egunkaria* ixteko agindua eman zutenek aitzakiazat erabiltzen duten argumentu berbera gehiegitan agertzen dela Euskal Herrian bertan proiektu berriari buruz dugun debategian. Eta funtzio berbera duela argumentu horrek: Espainiak aitzakia horren bidez *Egunkaria*-ren inguruko blokeo informazioa lortu duen bezala, hemen, aitzakia horrekin berarekin, debatea erabat antzutzen ari gara.

Zein da irtenbidea? Bi ikusten ditut nik. Lehenengoa, ximpleena, aitzakia hori mahai gainean jartzen dutenek argumentu hau alde batera uztea, ikusita debatea nahastu besterik ez duela egiten. Baina ez dirudi erraza lehenengo irtenbide honek, eta, gainera, zeren izenean eska dakioke euskal herritar bati argumentaziorako erabili nahi duen edozein elementu ez dezala erabil? Azken batean, eta nahiz eta debatea antzu bihurtu argumentazioak, inplikazio interesgarriak ditu mahai gainean jartzen duten argumentu horrek. Efektua kaxkarra, baina debategari ez zaio interes edo saltsarik falta. Bigarrena zailagoa da: argu-

mentu hori erabat balio gabetzea, argumentuak berak aitzakia gisa erabili ahal izateko duen gaitasun hori ezerezean uztea. Eta hori ere bi modutan lor daiteke: debatean parte har dezaketen guztiek izan dezakeen baliorik txikiena ere kentzen diotelako (hau da, interesik ez duen gaitzat hartzen dutelako), edo bestela, argumentuaren eragile nagusiak, ETak berak, bere burua alde batera uztea erabakitzen duelako. Salomonen epaiketa famatuan, umea salbatuko bazen, benetako amak hartutako jarreraren antzekoa. Hobe umea bizirik, beste emakume baten esku bada ere, bitan zatitutako hilotz bat baino.

Izan ere, *Egunkaria*-ren auzian zein Euskal Herriko arazo sakonenei dagozkienetan, ETaren argumentua aurrera ez egiteko aitzakia eraginkorra baita. Ez Espainiaren partetik bakarrik (ETarik gabe ere, Lizarra-Garaziko garaietan ikusi zen bezala, Espainiak aurkituko du beste aitzakiaren bat), baina baita gure artean ere. Jeltzale garrantzitsuren bati entzun diot metafora: soroa goldetzeko orduan, akuiluaren ziztadak eraginkorrak izan daitezke idiek aurrera egin dezaten, baina ematen duten pauso baikoitzeko hankapean mina bat lehertzen bazaie, akuiluak akuilu, idiek ez dute pauso bakar bat ere eman nahi izango. Derrigorrezkoa da, beraz, soroa minaz garbitzea.

Hortik aurrera, debatea emankorragoa izango litzateke. Ez legoke larrea nahastuko lukeen sarerik, eta, behar bada, idiek ere errazago egingo lukete euren lana, behar diren akuilu guztiekin. Baina ez nuke nahi lerro hauek ETaren gorabehera honetan bakarrik gelditzea. Lehenago ere esan dut, egunkari berri bat sortzeko proiektuaren inguruko debatean, ez dudala goitik behera oso-osorik zakarrontzira botatzeko moduko iritzi-artikulerik aurkitu. Denetan ikusi ditudala kontuan hartzeko moduko erreflexio eta ideak. Baina tamalez, nahikoa izan da iritzi sorta horretan ETaren inguruko aipamen txikiena egin izana (alde batera edo bestera), pareko trintxeratik iritzi osoa deskalifikatzeko. Eta besterik ez dugu behar, *Egunkaria* itxi duten honetan, guk gure arteko lubakiak sakontzea!

Machiavellina dela uste dut: proiektu ilusionanteak dituzten minoria inteligenteek mugiarazten eta aldaraz-

ten dituzte herriak. Ez dezala inork esan, herri honi bu-
ruz, ilusioa sortzeko moduko proiekturik izan ez zuenik;
ez dezala esan inork herri honek minoria inteligente bat
izan ez zuenik. Horretarako ardura dutenek, politika kon-
tuez arduratzen direnek bereziki, badute estrategia bat
planteatzeko garaia. Euskal Herria hemendik 15-20 urtera
non eta nola ikusi nahi duten planteatzeko garaia. Hel-
muga hitzartzeko ordua. Nora joan adosten badute, aur-
kituko dute bidea. Baina Machadorekin batera, bidea egi-
nez egiten dela sinesten badute, eta orain arte bezala ho-
rretan jarraitzen badute, edozein tokitara iritsi ahal izan-
go dira, baina ez derrigorrez iritsi nahi zuten tokira. Eta
horri eusten badiote, beharbada arrazoiez esango du nor-
baitek, hemendik gutxira, herri honek ez zuela izan
proiektu ilusionante bat aurkezteko gai izan zen minoria
inteligenterik. Gehiegizko luxua izango litzateke: euskal
kulturaren egoera erabat larriak ezin du horrelakorik ame-
titu. Ea, bada, korrika ibiltzeak sortu digun egarria nor-
baitek asetzen duen. *May Day! May Day!* ¶

Egunkaria itxi ziguteneko urtea

Hasi aurretik, besarkadarik gozoena Xabier Alegria, Xabier Oleaga eta, batez ere, Iñaki Uriari, orain urte askotako adiskideari. Musu bana.

Mendea gogor hasi zen 2001eko irailean, eta ezin ankerago segitu du ondoren. Otsailaren 20an Espainiako Guardia Zibilak *Egunkaria* itxi zuen, eta justu-justu hila-bete beranduago, martxoaren 20an hain zuzen, AEBek gerra hasi zuten Iraken aurka, Espainia eta Britainia Handiaren laguntzarekin. Espainia bi ekintzetan agertzen zaigu, eta agian ez da kasualitate, askotxok uste baitute lehen ekintzaren zergatia bigarrenaren baitan bilatu behar dela. Gerrak gerra, eta Irakekoa ahaztu gabe, etxeokoari lotuko natzaio.

Egunkaria-ren itxierak lurrikara sorrarazi du, oro har Euskal Herrian eta oso bereziki euskalgintzan. Inork espero ez bezalako erantzuna eman zuten euskal hiritarrek kazeta itxi eta bi egunera, erresorte batek mugitu izan bailituen. Euskal gizarteak intuizioz nozitu zuen *Egunkaria*-ren aurka jotzeak herri zantzuen aurka jotzea bezalakoa zela, eta erdaldunek ere —edo inoiz irakurri gabekoek, Pako Aristik zioen bezala («*Egunkaria* eta San Eleuterioren miraria», *Egunero*, otsailak 26)— sentitu zuten beren izaera bera jartzen zela kolokan. Bestalde, lehen une hartan sumatu zen *Egunkaria* eta hamar pertsona horien kontra joz gero, gutariko inor ez zegoela salbu Euskal Herrian, geroago Iñaki Uriak adierazi zuen bezala: «Hurrengoak Euskaltzaindia edo Eusko Jaurlaritza izan daitezkeela erakutsi digute» (*Egunero*, martxoak 23).

Lehen hitzak espainiar epaileen erabakia gaitzesteko izan ziren eta, aho batez, euskaltzale (alderdi eta gizabanako) guztiek salatu zuten gehiegikeria. Baina diskurtsoetan ñabardurak zeuden eta, nahiz eta Espainiatik euskal hiritar guztiak gauza bera direla uste izan —Ramon Etxe-

za retak zioen bezala («ñabardurak kanpora' oihukatuz, nahaspilatu egin gaituzte», *Egunero*, martxoak 7)—, ñabardurak berehala nabarmendu ziren diskurtsoetan. Egiantan interesgarria da horiei guztiei erreparatzea, kultur-gintzan elkarbitzen diren sentsibilitate ezberdinen argazki argia, oso, ematen digutelako. Gaiz gai joan gaituzen.

Sua ala etxea

Egunero-ko lehen alean bertan Joxerra Garziak («Amaren sua itzali nahi dute») azpimarratu zuen eraso hizkuntzaren aurka izan zela (amaren sua), eta egituraren garrantzia (aitaren etxea) baino areago, askoz ere garrantzitsuago zela *Egunkaria*-k sustatzen zuen euskaltasuna. Bere hitzekin esateko,

Nik ez dakit aitaren etxea jauregi izatea komeni zaigun, edo txabola xume bat aski dugun. Horretan, Jon Sarasuarekin nago: amaren sua axola zait, eta ez horrenbeste aitaren etxea (*Egunero*, otsailak 21).

Ildo beretik tiraka Hasier Etxeberrriak ere («Ana Mari, Ama Mari») beraren ardura edukia zela adierazi zuen, edukiontzia gaintetik:

Aitaren etxea baino, amaren sua dutela berak [J. Garzia] eta Jon Sarasuak nahiago. Neu ere horrexetan nago. Hobe genukeela amaren sua hurbiltzea eta hura beti piztuta eustea, elkarren kontrako jauregiak jaso ezinik ibiltzea baino (*Egunero*, otsailak 27).

Xabier Amurizak, ordea, aitaren etxearen garrantziari eutsi zion, egitura sendoagoa aldarrikatuz eta, horretarako, indar metaketarako deia eginez:

Gure aitaren etxea era batuagoan defendatzen ez badugu, zimenduak ere jango dizkigute. Euskal Herriaren ahultasuna ez da defendatzeko indarrik edo gogorik eza. Euskal Herriaren ahultasuna da askok, gehienek esango nuke, ez duela ikusten defendatzen ari garen modua egokia, burutsua denik, irabazteko bidea denik (*Egunero*,

otsailak 23).

Eta ondoren Lizarra-Garazi espirituari eusteko aldarria egin zuen.

Amurizaren diskurtsotik segika eta Garzia zein Etxeberriaren iritziei kontrajarritz, Mario Zubiagarena («Torres gemelas») irakurri ahal izan genuen:

Han atacado, sobre todo, la llama mediática que alimentaba la esperanza de un nuevo acuerdo de Lizarra. Y, de paso, todo lo demás. Han atacado la casa del padre y con ello han apagado el fuego de la madre, por la sencilla razón de que hoy por hoy son inseparables. (...) Sólo defendiendo la casa del padre, el poder político propio, podrá avivarse indefinidamente el fuego de la madre, las señas de identidad vascas (*Gara*, otsailak 26).

Azkenik, Jokin Gorostidi eta Itziar Aizpuru a ren hitzak («Euskal herria, aurrera!») ekarri ditugu:

Aitaren etxea, amaren sua edota amamaren magala izanda ere, alferrik gabiltza euskara bere 'hutsean' defendatu nahian, bera bakarrik ez delako hizkuntza bizia izango lurralderik gabe. Eta lurraldea libreza ez bada, haren jabe ez izatea bezala da, beraz subirotasuna, burujabetza du gu ezinbesteko helburu (*Gara*, martxoak 5).

Ekidistantzia eta euskararen jabegoa

Egunkaria itxi eta gutxira ETBk eskaintzen duen *Política -mente incorrecto* teleaioan iritzi gehiago barreiatu ziren, ondoren prentsa idatzian zeresan franko eman zutenak. Joxerra Garziak behin eta berriz ekidistantzia kontzeptua azpimarratu zuen, ez konstituzionalista ezta ezkerreko abertzale ere sentitzen ez direnen umezurtzia adierazteko eta, inplizituki, *Egunkaria*-ri identifikazio politiko gutxia-goa eta zabaltasun handiagoa eskatzeko.

Ekidistantziaren gaia berriz atera zen plazara, Alberdania argitaletxearen inguruan dabilzanen eskutik. Anjel Lertxundi, Jorge Gimenez, Bernardo Atxaga, Juan Garzia, Joxerra Garzia, Inazio Mujika Iraola, Iban Zaldúa eta Patxi

Zubizarretak sinaturiko artikuluan («Ikaskizunak»), hone-la esaten zen:

Ekaitz baten modura gogortuko dira 'ekidistantzia'-ren salaketak, eta era askotako absolutu zaleen profeta horiek izango dira salatzaileak, dena beren banderaren kolorekoa ikustera ohituta daudenak, eta izuaren ala mendequaren lubakian, bietako batean nahitaez, sartu nahi gaituztenak. Gauza gehiago ikasi eta ikusiko dugu, bai, baina oso litekeena da bide puska honetan ikasitako guztia ezertarako ez izatea. Zeren, dirudienez, ez demokraziaren izenean egunkariak ixten dituztenak, ez aberriaren izenean hiltzen dutenak daude prest amore ematera geure bekatuaren larritik gu erredimitzeko beren ahaleginean (*Egunero*, martxoak 2).

Erantzun zuzenena Mario Zubiagaren eskutik heldu zen («Txori erresiñola»). Zubiagak, «ekidistantzia morala» kritikatu zuen eta «ekigertutasun etikoaren» bidetik jotzeko gonbita egiten zuen:

Gerrazibilismoan erori ez gaitezen galdera argi bat egin eta erantzun beharko du inoiz euskal gizarteak: Euskal gizartearen nahien araberako aginte politikoa nahi dugu edo, Espainiar gizartearen zati izanik, hango gehiengoak hautatu dituen agintari eta erabaki politikoak onartu behar ditugu? (...) Azken aurrerapauso politiko hauxe ematen ez badugu gero eta zabalagoa den iritzi lubaki hori hilobi bihurtuko zaigu aldebikooi. Baita ustezko ekidistanteei ere. Jakina baita, horrelako auzi politikoetan ez dagoela inoiz ekidistantzia hartzerik. Ez bada txori erresiñolarena, urrezko kaiolan kantari (*Egunero*, martxoak 6).

Lehen aipatutako telesaio berean mintzatu ziren hiru partaideak (Joxerra Garzia, Ramon Zallo eta Xabier Mendiguren Bereziartu) kexu azaldu ziren euskara aukera politiko zehatz batekin identifikatzen delako, eta euskara politikatik (sigletatik) aldentzeko beharrezana aldarrikatu zuten.

Mario Zubiagak gai honi ere eutsi zion («To res gemelas») eta honela idatzi zuen telesaioa izan eta egun gutxira:

Una sociedad vasca «matrimonializada» con el euskara de forma que fuera inmune a los ataques ideológicos al

no ser «de nadie» y ser «de todos», es un vacío desideratum de aquellos que viven en el limbo de lo políticamente correcto. Mientras no se demuestre lo contrario, sólo la comunidad abertzale y alguno que la ha abandonado recientemente sin perder en el camino el amor a su lengua es capaz de separar la defensa del euskara de la propia ideología política (*Gara*, otsailak 26).

Egun batzuk beranduago Erramun Osak beraren zutabean idatzi zuen:

sektore batzuek euskara irabazpide beharrea, askotari-koen arteko lanerako eremua beharrea, aurrez aurreko gatazkarako, liskarrerako baliatzeko orain arte erakutsi duten etxekalte izate jarrera horri ere nahikoa dela adierazi behar diogula (*Deia*, martxoak 8).

Urtzi Urrutikoetxeak («Konpromisoaz») hitz gogorak idatzi zituen aurrerago:

Euskaratik eta euskararen kontura ondoen bizi izan direnak datozkigu abertzaleek ere badutela erruaren zati bat, patrimonializatu egin ei dutelako. Eurak ez omen nazionalista eta ez daude eroso, ez dute euren lekua topatzen honetan guztian, ez ei du euskalgintzak asmatu beste alde hori erakartzen. Dabilenari okerrak topatzen baino, ze egin duzue, bada, zuek zuen aldeko jende hori hurbiltzeko? Zertan ibili zarete urteotan, asmatu ez omen duen euskalgintza horren askan deseroso? Ezkondu zinetenetik, zenbat sozialista euskaldundu duzue? (*Gara*, martxoak 22).

Erakundeak nola eta noraino

Erakundeek itxieraren aurrean adierazitako jarreraz luze hitz egin zen, eta gai honetaz ere sentsibilitate ezberdinak nozitu ziren.

Andoni Egaña («Epeletik gorago») gaijartzaile aritu zen artikulu batean:

Eta epeletik gora jo behar lukete erakundeek. Epela izan bait zen, hotza ez esatearren, herri hontako erakundeek Egunkariari egin zioten harrera. Orain dute sekula baino aukera hobea, eta premia ere bai neurri handi batean

saltsaren saltsan sartu dituztelako, epeletik gora egiteko (*Egunero*, otsailak 22).

Egañaren tonua nabarmen gogortuz, eta ironia handiaz, Joseba Butronek («Bazen garaia!») Jaurlaritzaren jokabidea «eskertu» zuen:

Bazen garaia, bai. Azkenean gure eskubideak nork defendatu badaukagula ikusi ahal izan dugu euskaldunok. (...) Izan ere, gobernatzen gaituztenei askotan aurpegiratu izan diegu epelkeria, kolaborazionismoa, Espainiarekiko morrontza, menpekotasuna, koldarkeria eta ez dakit zer gehiago. Baina azkenean denok ikusi ahal izan dugu eskubideen alde horren harro mintzatzen den Jaurlaritza badela nor, badakiela «Nahikoa da!» esaten, eta zapata hartu eta mahai gainean kolpea ematen. Bazen garaia!

Artikulua amaitu zuen esanez:

Bestela, gaur «Egunkaria» gabe egongo ginateke, beste egunkaritxo klandestino bat egiten eta erosten ibiliko ginateke, denbora batean behintzat. Ahal dugula erakusteko. Ale! Baina ez. Honelako gertaerak argigarriak izaten dira. Oraingoan garbiago geratu da zelako sisteman bizi garen, zelako Jaurlaritza dugun, zelako agintariak ditugun. Bazen garaia (*Gara*, otsailak 24).

Egañak jarritako gaiari Miren Azkaratek heldu zion («Errautsak zimentarri»), Kultura Sailburua den aldetik mintzatuz:

Laburbilduaz esango nuke oihu argia eta indartsua egin duela gizarteak, nahiago bada, euskararen mundu zabal eta askotarikoak, indarrak elkartzeko, eta *guztiok* batera jokatzeko. Eta *guztiok* hori azpimarratu nahi dut: gizarte-eragileek, alderdi politikoeak, herri-aginteeak eta hiritarrek, *guztiok* asmatu beharko baitugu Ave Fenix-a bezala indarberiturik sortu beharko lukeen proiektu berria definitzeko orduan. Horixe izango da modua euskal gizarteak eta erakundeek ere *epeletik gora* egin dezaten, Andoni Egañak eskatzen zuenari erantzunez (*Egunero*, martxoak 6).

Azkaratek beraren artikuluan —eta ondorengo elkarriketetan— proiektu berri baten aldeko apustua egiten zuen, orduko artekoaz ezberdina, zabalagoa, eta «guz-

tien» esku-hartzeaz. Erantzuna berehala heldu zen, lehenik eta behin *Egunkaria*-ko langileen aldetik, eta ondoren beste askoren ahotik. Erantzunen ostean, Azkarateren diskurtsoa nabarmen moteldu zen, eta aurrerago adierazi zuen erakundeen zeregina ez zela ezer berria sortzea, bai zik eta «gizartetik datozen ekimenak sustatuko ditugu» (*Egunero*, martxoak 11).

Langileen planteamendua («Elkarlana, independentziazatik») argi geratu zen, Azkaraterena argitaratu eta hiru egun beranduago. Adierazi ondoren beraiek ere eragile ezberdinekin elkarlanerako prest daudela, zera adierazten zuten:

Ez dezagun ahaztu Guardia Zibila izan dela proiektu hau zapuztu duena, ez zabaltasunaren inguruko auzia (...) Zabaltasunaren mesederako, ez dezagun oinarri herritarreko proiektua ur politikoetara eta instituzionaletara bideratu; galbidea litzateke (*Egunero*, martxoak 9).

Eta artikuluan berretsi egin zuten orain 13 urteko 11 ezau-gariak indarrean daudela gaur egun ere, eta horietatik abiatuta eraiki behar zela egunkari berria.

Beste askok jo zuten ildo beretik, horien artean, esaterako, Jexuxmari Zalakainek («Egunkari bat euskaldunontzat»):

Ez dakit egia den edo ez den Iñaki Iriondok idatzitakoa, alegia, Jaurilaritzak orain hamahiru urte gogo biziz saiatu arren mamitzerik izan ez zuen proiektua —egunkari gubernamental— orain gauzatzeko asmoa ote duen (...) Orain hamahiru urte izandako eztabaida garrantza ezagutu zenutenok gutxienez ez didazue ukatuko erne samar ibiltzeko motiborik ez dagoenik, are gehiago Jaurilaritzaren inguruan dabilen katedradun unibertsitario batek lasai asko esan duenean telebistan unea aprobetxatu behar dela «egunkari zabalagoa eta hobea» kaleratzeko. Hobea ahal bada, bai, jakina, baina ba al dago inor gure artean «Euskaldunon Egunkaria» baino egunkari zabalagorik aurkitzeko kapaz izango denik? (*Gara*, martxoak 10).

Azkenik, Txema Ramirez de la Piscinak artikulua baitan erakutsi nahi izan zuen gehiago zirela Azkarate eta

langileek komunean zituzten usteak, elkarrengandik banatzen zituztenak baino.

Pluraltasuna gora eta behera

Lumak haizeak bezala hedatu zen pluratasunaren inguruko auzia, eta egile askok hartu zuten parte ezbaian, nork beraren iritzia eman nahian. Iritzi gehienek, egia esan, langileek ezarritako ildotik jo zuten, horien artean Jon Alonsok.

Jon Alonsok («Zer egunkari?») zioen:

Gaztelaniazko prentsan, aniztasunaz ari garela, *Egunkaria*-ren laurdena denik balego, gizartea oso bestelakoa litzateke (*Egunero*, martxoak 12).

Baina kritika zorrotza plazaratu zuenik ere egon zen, horien artean Xabier Aizpurua. Aizpurua («Normalizazioaren alde») luze aritu zen eremu politikoan *Egunkaria*-k zuen irudiaz mintzatuz eta, beste gauza askoren artean, honakoa idatzi zuen:

Asko da Euskaldunon Egunkariari zor dioguna, baina askotxo gara Euskaldunon Egunkariari ideologikoki markatuegi, euskaltzale askorentzat disgustuko, irizten diogunok; eta horregatik, beharko lukeen baino askoz ere erosle eta irakurle gutxiago duela ere uste dugunok. Sarritan egotzi izan zaio behar besteko aniztasunik eta zabalatasunik eza, kudeatzeko dituen aginte-organoen osiera eta informatzeko duen modua dela eta. Alabaina, nik neuk ez dut uste, ikuspegi horietatik bederen, *El Correo*, *Deia*, *Diario de Navarra* edo Iparraldeko beste hainbat egunkarierekiko aldeak hainbesterainokoak direnik. Dena den, bada, bai, horietatik guztietatik bereizten duen ezaugarri bat: ez salatzea ETAk eginiko eraso eta atentatuak (*Egunero*, martxoak 15).

Josu Landak, bere aldetik, elkarrizketa batean onartu zuen «Del Olmo epaileak esaten dituenekin bat zetorren jendea bazen orain hamar urte. Baina gehienek aldatu egin dute iritzia», gero gehitzeko, «*Egunkaria*-k zituen il-

do, eduki eta planteamendu beretik sortu beharko litzateke berria» (*Egunero*, martxoak 16). Zenbait egun beranduago, ideia bera garatu zuen artikulu batean («Oinaze gehigarriak»). Kexu agertu ondoren arbasoa hil eta ondorengo partiketan zein arinki eta kupidagabe diharduten zenbaitzuek, honela zioen gero:

Badakit, azalean alderik alde 'ETA ez' dioen titular bat argitaratzen ez duen bitartean, hainbat jendek ez diola aitortuko *Egunkaria*-ri egin duen ekarpenaren itzela. Eta ulertu egiten dut, herri honetan ezker-eskuin barreiatutako oinazearen ondorioz. Horrek, zerikusia edukitzekotan, bakearekin dauka alabaina, demokraziarekin edo terrorismoarekin. Inola ere ez zabaltasunarekin (*Egunero*, martxoak 21).

Idea bera berretsiz, Antton Azkargortak («Doktrinarioa nor den») sakondu nahi izan zuen pluraltasun-eskaerak oinarrian zuen zioaz:

Horren arabera, euskarazko egunkariak egun Euskal Herrian dauden korronte ideologikoen *compendium*a izan beharko luke. Baina hori ezinezkoa da. Laburtuz, ezin dira hedabide berean elkartu Euskal Herriaren eraikuntzaren alde lan egiten dutenak —horretarako euskara funtsezko osagaia delarik— eta hori ukatzen dutenak. Dena dela, munduan diren hedabide guztiek nortasun propioa ematen dien printzipio multzo argia dute, eta hori ez da —Egunkariak ongi frogatu duen bezala— jarrera ireki eta pluralarekin bateraezina (*Egunero*, martxoak 18).

Gorka Arresek («Langileek erabakiko dute») argi utzi nahi izan zuen bakoitzari dagokion zeregina:

Langileena da *Egunkaria*-ren geroa, langileek erabakiko dute norabidea eta emaitza, eta gainerakooi laguntza, bablesa eta bermea ematea dagokigu (*Egunero*, martxoak 1).

Jexuxmari Zalakainek, azkenik («Egunkari bat euskaldunontzat») *Egunkaria*-ren arima izan zenaren hitzak berrekarri zituen:

Joxemi Zumalaberi publikoan entzundako azken hitzak gogoratzuz amaitu nahi dut artikulu hau, badaezpada: «'Euskaldunon Egunkaria'k egunen batean ahaztu egiten

badu euskararen aldeko herri mugimendutik sortu zela, bereak egin du, oinarri hura baita oraingo eta geroko garrantia bakarra». Egunkari berria egin behar baldin bada, ez dadila, gutxienez, hilda jaio (*Gara*, martxoak 10).

Konpromisoak eta eraikuntza

Hitzetatik harantzago joan beharra azpimarratu zuten beste hainbatek lehen egunetik beretik; horretan bai langileak bai Kontseiluaren Idazkaria den Xabier Mendiguren ez ziren nekatu lelo bera behin eta berriz azpimarratzen.

Xabier Mendiguren («Konpromisoaren garaia»):

Aurrera begira ere beste erronka berri bat daukagu euskaldunok eta euskaltzaleok: berriro ere gehiengoaren parte hartzearekin gai izango gara hedabide anitz, zabal eta independentea kaleratzeko. Erronka zaila da; bategitik, egungo hedabide gehienak ezaugarri horietatik oso urrun daudelako eta, bestetik, euskararen normalizazioaren kontrako politika ez delako berehalakoan geldituko (*Egunero*, martxoak 13).

Aurreragoko eginbeharrari begira jarrita, arnas luzeagoko mezua sumatu zitzaizen egile batzuei beren artikuluetan. Proiektu periodistikotik haratago, proiektu politikoari ekiten zioten, egunkari berriari berme politikoa eman nahi izatekotan. Horietarik bi ekarri ditugu orri hauetara. Lehen Maribi Ugarteburu rena da, eta bigarrena Iñaki Uriarena.

Maribi Ugarteburuk («Konpromiso garaia, ekimen garaia») egitura politikoak sendotzeko beharra ikusten du, eta honela adierazten du:

Herri honen ahaleginak beti estatuen asmo eta ekime-
nak aurrez aurre topatu ditu. Burujabetasunean oinarri-
tutako egitismo orok du bere bizkar estatu arrotz horren
mehatxua. Beraz, ezin gera gintezke egun bat bera ere
gehiago estatuen «kontzesioen» zain, berak jotzen duen
soinuaren araberako dantzan, hurrengo zartakoa nondik
etorriko (...) Eskubide horiek bermatzeko tresna eragin-
korrak artikulatzeko garaia da. Euskal herritarron arteko
prozesu demokratiko zabala eta sakona abian jartzeko

ordua iritsi da (*Gara*, otsailak 26).


Azken lekurako utzi dugu Iñaki Uriaren mezua. Kartzelatik datorren mezu argi, ozen eta luzidoa da:

Gure erakundeek Espainiak nahi duena egiten badute, espainiarrago bilakatuko gaituzte. Gure erakundeak ez dira horretarako. Gure gizartean elkarbizikidetzaren normalizatu nahi bada gure erakundeak adostasun politiko aski bat bilatu behar dute eta garbi dago estatutua ez dela nahikoa. Autodeterminazio eskubidea eta hizkuntzaren aldeko erabaki irmo aski bat behar-beharrezkoak dira elkarbizikidetzaren horretarako (*Egunero*, martxoak 23).

Amaitzeko

Jasotako iritziek indar nahikorik badaukatenez, ezer gehitzeko beharrik ez dago. *Egunkaria*-ren itxierari espazio osoa emateak (merezi zuelakoan) eragin du beste hainbat gai tintontzian utzi behar izatea. Hala nola *Maiatz* aldizkariaren 20. urteurrena (1983-2003), edo Ustela Sai-laren 25. urteurrena (1977-2003), Koldo Izagirre eta Joxemari Olaizolaren eskutik sortua. Gai horiek, eta beste batzuk, hurrengo baterako utzi beharko ditugu.

Ez nuke amaitu nahi esan gabe *Egunkaria* ixtea ez zela izan otsailaren 20an pairatu genuen gehiegikeria bakarra. *Argia*, Plazagunea, Partaide eta, batez ere, etxe hau, *Jakin*, erasotsaileen jomugan egon ziren, eta daude. Horretaz ere mintzatuko gara hurrengo batean. ¶



Elkartasuna *Euskaldunon Egunkaria*-rentzat

Soziolinguistikari eskainitako lerro hauetatik, aske gelditu diren *Egunkaria*-ko lagunei gure ongi etorria luzatu nahi diegu, eta oraindik aske ez diren edota langabezian dauden langileei gure agurrik beroena helarazi. Horren zergatia, elkartasun arrazoia ez ezik, soziolinguistika arloko lagunak izatean datza. Izan ere, soziolinguistikaren e remu zientifikoak gizarte eta hizkuntzaren arteko elkarrreragina du aztergai eta, dudarik gabe, *Euskaldunon Egunkaria*-ren izaeran eta auzian gizartea eta hizkuntza ezin hobeto uztartzen dira.

Euskarazko egunkari bakarraren itxierak gure egoera soziopolitiko liskartsua du abiapuntu. «Gerra guztiek uzten dute arrastoa hizkuntzan», zioen Joxe Aranzabalek (www.sustatu.com), eta euskal gatazkak ere seinalea utzi nahi izan du gure hizkuntzan.

Beraz, soziolinguistikari bidaide ditugun *Euskaldunon Egunkaria*-ko lagun iraindu edota 'ustez' jipoituei gure elkartasuna adierazi nahi diegu, berotasunez.

Soziolinguistikaren dimentsio soziala

Egoera soziolinguistikaren analisiak baieztapen bat egi-tera garamatza: euskaldunen, hau da, 'euskaradunen' multzoa soziologikoki asko ari da aldatzen, azken urteotan. Eta ikuspuntu demolinguistikotik egindako analisiak aldaketaren berri eman ez ezik, euskaldunen eta erdaldu- nen ezaugarri batzuk ezberdin xamarrek direla erakusten digunean, gure jakin-mina areagotzen da.

Ondoren aipatuko ditugun datuak *EAEko hizkuntz gaitasuna eta asmoak* izeneko azterketatik hartu ditugu (www1.euskadi.net/estudios_sociologicos/estudios_temas_e.apl). Azterketa hori EAEko esparrura mugatzen den arren, ezin

dugu ahaztu erkidego horretan agertzen direla euskararen aldeko dinamika eta ekimenik sendoenak, eta eremu politiko-administratibo horretan sortu diren berritasun askok, ondoren, euskararen beste lurraldeetan ere oihartzuna izan dutela.

Ikus ditzagun, bada, hizkuntzarekin harreman bereizgarriak dituen hainbat gizarte ezaugarri, bi multzotan sailkatuz: a) euskaldunen eta erdaldunen artean nolabaiteko ñabardurak azalarazten dituzten aldagaiak; b) bi hiztun multzo horien arteko bereizketa sakona erakusten dutenak.

a) Hizkuntza eta hiztun-taldeen arteko ñabardurak

Soziolinguistikatik aztertuta, bereizketa, ez sakon, baina bai interesgarri batzuk agertzen zaizkigu euskaldun eta erdaldunen artean. Ikus ditzagun, banan-banan, zeintzuk diren.

- *Ikasketa-maila*. Gazte euskaldunek luzarotxo jarraitzen dute hezkuntza sisteman ikasten, erdaldunekin alderatuz gero. Horren ondorioz, 25-34 urteko herritarrengan askoz gehiago dira *goi-mailako ikasketak* b u rutuak dituzten euskaldunak, ikasketa-maila berea duten erdaldunak baino (%47 eta %27, hurrenez hurren).

- *Jarduera-egoera*. 24 urte bete bitartean handiagoa da *lanean* diharduten erdaldunen ehunekoa (%25) euskaldunena baino (%16). Adin horretatik gora, aldiz, lanean ari diren euskaldunen ehunekoak altuagoak dira, alderik handiena 35-49 urteko adin-taldean agertuz: euskaldunen %73 eta erdaldunen %61. *Langabezian* eta *etxeke lanetan* daudenen tasak, berriz, handiagoak dira erdaldunen artean euskaldunengan baino, adin-talde guztietan.

- *Prentsa kontsumoa*. Egunkariren bat egunero irakurtzen duten euskaldunak gehiago dira (%58) usadio bera duten erdaldunak baino (%46).

- *Erlijiotasuna*. Labur aipatuta, *katoliko ez-elizkoiak* erdaldunen artean gehiago dira euskaldunen artean baino; aldiz, *indiferente, agnostiko* eta *fedegabeak*, kopuru apaletan mantentzen badira ere, ugariagoak dira euskaldunengan.

- *Politika*. Politikarekiko *batere interesik* ez duten erdaldunak %43 diren bitartean, euskaldunen artean %27

baino ez dira. Eta oso antzera gertatzen da *alderdi politikoe-kiko hurbiltasunaz* ere: euskaldunak beti daude hurbilago.

- *Ideologia*. Ideologiak badu zerikusia, esandako txostenak dioenez:

Euren burua ezkertiarizat jotzen duten euskaldunak ugarriagoak dira (%55) iritzi berdineko erdaldunak baino (%42).

Laburtzearren hauxe esan daiteke: euskaldunen irudi tradizionalak erakutsi ohi zuenaren aurka, egungo euskaldunak erdaldunak baino zertxobait dinamikoago, arduratsuago eta garatuagoak direla susma daiteke. Egia ote? Hipotesi mailan utzi behar dugun susmo hori zinezkoa balitz, itxaropentsua litzateke euskal hiztun komunitatearen garapenari begira.

b) Hizkuntza eta hiztun-taldeen arteko bereizketa sakona

Badira beste hiru ezaugarri EAEko multzo euskaldunak eta erdaldunak sakon bereizten dituztenak, biztanleria bitan zatitzera iritsi gabe: adina, nortasun etno-ideologikoa eta jatorria.

- *Adina*. Arestian aipaturiko txostenak dioen bezala,

Adina da hizkuntz gaitasuna hobekien bereizten duen aldagaia: adineko jendearen artean elebakartasuna —euskaldun nahiz erdaldun petoena— ohikoena den bitartean, gazteen artean elebitasuna nagusitzen da.

Duela urte gutxi arte nortasun etno-kulturalak eta jatorriak euskaldunen eta erdaldunen arteko hesia eraikitzen bazuten ere, gaur egun, horiek —oraindik oso garrantzitsuak izanik ere— «bigarren lekuan agertzen dira hizkuntz gaitasuna adierazteko (...)».

Egia da euskalduntzat jo daitezkeen gazte horietako asko ez daudela euskararen komunitatean txertatuta, eta, baita ere, erdaraz duten gaitasuna euskaraz ez dutela. Muga muga eta gabeziak gabezia, egoera berri horrek aukera berriak eskaintzen ditu eremuz eremu eta jendaurreko jardunetan euskara '*kanpora, plazara jalgi*' dadila.

- *Nortasun etniko-ideologikoa*. Arestian azaldu den *ezker/eskuin ardatzaz* gain, ideologiaren aldetik badago bi

hiztun multzoak ondo bereizten dituen beste ardatz bat: *Espainiakoa/Euskal Herrikoa sentitzea*. Euskaldunen artean *nagusiki Euskal Herrikoak* sentitzen direnak %84 dira eta erdaldunen artean %33; beste muturrean, *gehienbat Espainiakoa sentitzea* euskaldunen artean ez bada aipatzen, erdaldunen %16k horretan kokatzen dute beren burua.

• *Jatorria*. 15-24 urteko gazte etorkinen proportzioa urria denez, familiak duen sorlekuari erreparatu zaio. Gazte euskaldunen artean guraso kanpotarrak (edo, gutxienez, gurasoetako bat) dituztenen ehunekoa %34 da; gazte erdaldunengan, aldiz, sortzez kanpotarrak diren gurasoak (edo bietako bat) ia halako bi dira (%65). Hau da, azterturiko neska-mutil gehienak bertakoak izanda ere, euren familia bertakoa denean euskararen transmisioa askoz handiagoa da, familiek kanpotar jatorria dutenean baino.

Euskararen ondorengotaratzeari, halere, familia nahiz eskola sistemaren bitartez gauza daitekeela ezin da ahaztu eta, horregatik, aurreko emaitzek haxe adieraz dezakete: sustraiak hemen dituzten familiek kanpotik etorritakoek baino gehiago transmititzen dutela euskara, familiaren bitartez ez ezik, eskolaren bidez ere bai. Bestela esanda, pentsatzekoa da familia bertakoa duten gaztetxoak gehiago eskolaratzen direla irakaskuntzako hizkuntz eredu euskaldunetan (D eta B ereduetan), kanpotik etorritako familien seme-alabak baino.

Hizkuntz ereduak eta sistema sinbolikoak

Ikus dezagun jarraian, hizkuntza eta gizarte ezaugarri batzuk harremanetan jartzen dituzten beste lan bat.

Jokin Apalategiren *Haurren Nazioak. Solasaldiak* (Utriusque Vasconiae, 2002) izeneko ikerlanak ondoko kezka hau du abiapuntu:

Euskal Herriko haurrak hiru ikasketa eredutan zatiturik daudenez zenbateraino eredu horiek beren balore propioak ez ote dituzten eta haurren nazio ideia bilakae-ran present ez ote dauden jakin nahi izan dugu.

Hegoaldeko lau euskal lurraldeetan Apalategik burutu duen lan horren ondorioetatik atera dezakegun interpretazio laburtua, ondokoa da. Zortzi urtetik aurrera D, B eta A eruedetan nagusitzen diren sistema sinbolikoak ezberdinak dira eredu ezberdientzat; ez beti eta ezinbestez, baina bai neurri handian.

Apalategik hamabi eta hamalau urte bitarteko neska-mutilak aztertuta, honako konklusioak ateratzen ditu:

D erudian, euskal sistema nazionalitarioaren presentzia nabarmena da, baina 'aldi berean euskalduna eta espainola izan litekeen' galderaren aitzinean aburu zatikatuak daude. (...)

B erudian, inork ez du aipatzen euskal nazionalitatea (...). Euskalduna eta espainola aldi berean izatea ia erabateko baietaz ihardesten da. (...)

A erudian, Espainiaren estatu-nazio sistema islatzen da. Hala ere, ez da oro homogeneoa (Apalategi, 2002, 129-130).

Euskaldun eta erdaldunen arteko ezberdintasunak ikusita nahiz A, B eta D eruedetako ikasleen artekoak, galdera hau berez dator: zer da euskaldun eta erdaldunen arteko diferentziak eragiten dituena? Soilik hizkuntzak eta irakaskuntzako hizkuntz ereduak?

Gizartea eta hizkuntza besotik hartuta

Arinkeriatan erortzeko arriskuan geundeke euskaldun eta erdaldunen arteko bereizketa hauek interpretazio-eredu itxi batean aurkezteko gutziari men egingo bagenio. Halere, landutako informazioak utzi digun inpresioa ondoko lerrotan azaltzera ausartuko gara.

Batetik, Apalategik dioena gure egiten dugu:

garbi dago gidaritza pedagogikoa ez dela aldagai bakarra, eta gutiago definitiboa, haurren nazio ideia erabakitze-rakoan (Apalategi, 2002, 130).

Baina, egia da ere hizkuntz eredu bakoitzaren inguruan garatzen diren nazio-pertzepzioak nahiko ezberdinak direla.

Bestetik, eta arestian ikusi dugun bezala, familiaren jatorria eta nortasun etno-ideologikoa hizkuntzari (euskalduna edo erdalduna izateari) loturik daude.

Horregatik, uste dugu (ume zein heldu) euskaldun eta erdaldunen artean agertzen diren izaera ezberdinek gizatalde horietako bakoitzaren dinamika propioa eta, neurri batean, autonomia islatzen dutela. Euskaldunak eta erdaldunak gehienbat nahasian eta elkarrekin integritate bizi arren, ez dira guztiz berdinak.

Aurreko guztia aintzat hartuta, hizkuntz eredu eta nazio-ideien arteko harremanaz ondoko interpretazio hipotetikoa luzatzera ausartzen gara: a) familien sistema sinbolikoak baditu jatorriaren araberrako sustrai kultural, nortasun etno-ideologiko, kultura politiko eta, nola ez, hizkuntz balio propioak, eta elementu horien guztien arteko elkarreraginak mundu bereizi samarrak eratzen ditu; b) irakaskuntzako hizkuntz ereduaren hautua familiek duten sistema sinbolikoaren araberrera egiten dute; c) ondorioz, hizkuntz eredu bakoitzean biltzen diren umeek balio eta ikuspuntu —tarte baten baitan— berdintsuak partekatzen dituzte, eredu horien arteko diferentziak areagotuz; d) elkarren arteko harremanen bidez, neska-mutil horiek hizkuntz eredu bakoitzeko mundu sinboliko ezberdinetan (hizkuntza barne) sakonduko dute, aurretik beste ereduakiko zeukaten aldea areagotuz.

Azken finean, argi gelditzen da gizartea eta hizkuntza besotik hartuta doazela.¶

Zuntz optikoaren garaia omen

Euskaltel 1998an sortu zen hurrengo hamar urteetan Euskal Erkidegoko merkatuaren %20z jabetzeko asmotan. Bost urte geroago hasierako egitasmo hura bikoizteko gauza izan da. Gaur egun Euskaltelek telefono finkoen %40 du, telefono mugikorren %30 eta interneten %54. Hau guztia gutxi bailitzan, Euskaltel da Euskal Autonomia Erkidegoan kablearen aldeko apustua egin duen operatzaile bakarra. Lau urte barru (2006), EAEko 91 udalerririk handienek (biztanlegoaren %94) zuntz optikoz jaso ahal izango dute telefonoa, telebista eta internet. Euskal telekomunikabide-azpiegituren ingurunea dezente aldatuko da eta, ondorioz, baita zerbitzuen erabilpena ere.

Administrazio publikoaren eragina

Gipuzkoan mila biztanleko 15 telefono zeuden 1921 urtean, Suitzan (34) eta Alemanian (25) baino gutxiago, Britainia Handian (15) beste eta Frantzian (7), Belgikan (4) eta Italian (3) baino gehiago. Garai bereanartzelotan eta Madrilen 11 telefono zeuden mila biztanleko, Bizkaian 10, Araban 5 eta Nafarroan 3. Beraz, Gipuzkoako telefono-sarea aurrenetakoa izan zen Europan, baina ez ustekabeen, bertako Foru Aldundiak berebiziko ahalegina egin zuelako baizik (*Red Telefónica de Guipúzcoa. Estadística y breves apuntes históricos*, Donostia, 1922). Josu Aranberri EHUKo irakasleak kasu hau aipatu ohi du aukera duen bakoitzean, azpiegiturak (eta darien garapena) eragiteko administrazio publikoek duten garrantzia frogatzeko.

Europar, behintzat, telekomunikabideen azpiegiturak administrazio publikoek egin izan dituzte betidanik. Orografi-baldintzak zein espektro-mugak tarteko, Britainia Handian, Herbehereetan, Belgikan edota Alemanian ka-

blea arrunt erabili izan da telebista-seinalea banatzeko. Telekomunikabideen liberalizazioarekin batera, ordea, Europako Batasunak operadore pribatuen itxaropenetan utzi zuen azpiegituren garapena. Baina, besterik itxaron arren, operadore pribatuek ez dute zuntz optikoan nahi bezain azkar eta uste bezainbat inbertitu. Are larriago, esperientziak frogatu du liberalizaziora arte monopolio publikoak izan ziren operadoreak gehiago ahalegindu direla bezero zaharrak jagoten azpiegitura berriak eragiten baino.

Izan ere, merkatua ezer gutxi aldatu da liberalizazioa indarrean jarri zenetik hona. Datuak datu, Alemanian, Erresuman Batuan eta Euskal Autonomia Erkidegoan baino ez dute operadore monopolistek euren bezeriaren %40 galdu. Frantzia, Herbehereetan eta Italian %20 baino gutxiago galdu dute eta Belgikan eta Espainian %10 eskas.

Ildo beretik, esperientziak erakutsi du Europako Batasunaren liberalizazio-hotsei muzin egin dioten estatuak, Finlandia kasu, kable-sare publikoa indartzeko gauza izan direla eta erabaki estrategiko honek erabat suspertu duela Informazio Gizartearen zabalkundea.

Kultura eta hizkuntza txikientzako beste galbahe bat

Martxoaren lehen astean Josu Jon Imaz sailburuak «Euskadi Informazio Gizartean» delako egitasmoa aurkeztu zion, Bruselan, Europako Batasunaren Informazio Gizarte-rako arduradun nagusi den Erkki Liikanen komisarioari. Liikanen finlandiarra da eta aurrez aurre ezagutu nahi zuen euskal plana, bai estaturik gabeko herrialdeek bertatik bertara burutu dezaketen egitamuaz jabetzeko eta baita elebitasunak zein hizkuntza gutxiagotuek teknologia berrien esparruan urratu dezaketen bidea ezagutzeko ere. Liikanenen ustez, azken hamar urteotan telekomunikabideek izan duten garapenak PC, telebista digital eta komunikabide mugikorren arteko konbergentzia erakarriko du, eta aukera berriez baliatzerik lortzen ez duten gizarteek, kulturek eta hizkuntzek ez dute luzaro irauterik izango.

Liikanen europar komisarioaren iritziz, konbergentzia honek orain arteko langa historikoak hautsiko ditu; produktu, eduki eta zerbitzu berrien sorrera eragingo, eten digitala murriztuko, inbertsioak sustatuko eta, ondorioz, hazkuntza ekonomikoa erakarriko, beti ere tokian tokiko kulturak baldintzapetuz.

Europa Ekintza 2005 deritzan egitasmoak banda zabalaren areagotzea du helburutzat, besteak beste, *eLearning* eta *eHealth* ardatzak indarrean jarri ahal izateko. Bi urte lehenago, ordea, estatu partaide bakoitzak *eGovernment* arlopeko paneuropar zerbitzuak bideratzeko interoperatibitatea jarri behar du martxan. Interoperatibitate hau behar-beharrezkoa izango da telebista digitalaren baitan, bai kontsumitzaileen hautapen-eskubidea bermatzeko eta baita denetariko aplikazio interaktiboak eskaini nahi dituzten emisoreek zernahi plataforma izan dezaten ere.

Konbergentzia honen arabera, kontsumitzaileek eduki berberak jaso eta bidali ahal izango dituzte PCz, telebista digitzalarekin zein telefono mugikorrez, nahiz eta eusgailu bakoitzak erresoluzio ezberdinez eskaini.

Banda zabalaren EAEn

Europa 2005 delako egitasmo horren lehentasunetako bat zera da: «2005erako banda zabaleko sareen aukera eta erabilpen orokorra segurtatzea». Egitasmo honen xede horri erantzun ahal izateko Euskadi Informazio Gizartean Planak 2005 urterako hiritarren %98k banda zabalaren izan dezan nahi du. Plan hau hiru abiapuntutan oinarrituko da: neutralitate teknologikoa, lehiakortasunaren sustapena eta Administrazioaren ekintza subsidiarioa.

Neutralitate teknologikoa. Eusko Jaurlaritzak ez du teknologia jakin baten aldeko apustua egin nahi banda zabalaren azpiegitura hedatzeko orduan. Merkatuan hainbat teknologia dago (kablea, xDSL, LMDS) eta bakoitzak hainbat abantaila eta eragozpen eskaintzen du. Onena, segururik, tokian tokiko premiei egokien erantzun diezaiekena da.

Lehiakortasunaren sustapena. Datuek frogatzen dute banda zabalaren hedapenik handiena hainbat azpiegiturak, sarek eta teknologiak elkarrekin lehiatu behar duten herri eta merkatuetan gertatzen ari dela. Euskal Autonomia Erkidegoan, inguruko beste zenbait herrialdetan ez bezala, ADSL eskaintzen duen operatzaile nagusiaz (Telefonica) gainera, zuntz optikoaren alternatibari inbertitzeko gertu dagoen kable-operatzailea (Euskaltel) sortu da, merkatuaren baitan lehiakortasuna eragiteko.

Administrazioaren ekintza subsidiarioa. Eusko Jaurlaritzak jakin badaki, errentagarritasuna tarteko, sektore pribatua nekez iritsiko dela %98ren estalpea eskaintzera. Horregatik, aurreko azaroan osatu zen erakundearteko azpiegitura-batzordea (Jaurlaritzak, hiru Diputazio eta Eudel), udaberrirako egoerari buruzko txostena burutu beharko duena, alegia:

1. EAEren telekomunikazio-azpiegitura zertan den eta huenengo bizpahiru urteetan egitear diren azpiegitura-lanen (errepideak, kaminoak eta gas-hodiak) egutegia, aldi berean banda zabalaren sarea areagotu ote daitekeen aztertzeke.

2. Teknologia ezberdinen arteko aukera-maukerak, han-hemenkako udalerrietara iristeko zein ote den egoiena erabakitzeko.

3. Sektore publiko eta pribatuaren arteko inbertsio motak, behar bezainbateko udalerrietaraino elkarrekin iritsi ahal izateko.

Euskaltelen zabalkunde-egitasmoa

Euskal Autonomia Erkidegoaren egitasmo publikoari estu-mestu darraion operadorea Euskaltel da. Beronen kapitalaren %57 publikoa da, era batez edo bestez: BBK-k %23,5, Kutxak %18,5, Vitalek %5, EITBk %5, Eusko Jaurlaritzak %3 eta EVEk %2. Kapital pribatuaren banaketan, berriz, Telecom Italiak %18 du, Iberdrolak %10, Endesak %10, Auna Taldeak %3 eta MCCk %2. Kapital publikoaren nagusitasun honek eta sare propioerik ezak sustatu du-

te, ezinbestez, Euskaltelen zuntz optikoaren aldeko apustua eta ondorengo zabalkundea.

Euskaltelen zuntz optikoaren zabalkunde-egitasmoa hasia da dagoeneko 5.000 biztanletik gorako udalerrri guztietan eta aurrerapauso handia egina da horietako 38 udalerritan, non hiritargo osoaren %75 bizi den. Udalerrriok honako hauek dira: Amurrio, Aretxabaleta, Arrasate, Arrigorriaga, Azkoitia, Azpeitia, Barakaldo, Basauri, Beasain, Berango, Bergara, Bilbo, Donostia, Durango, Ermua, Errenteria, Galdakao, Gasteiz, Getaria, Getxo, Hondarribia, Irun, Iurreta, Laudio, Legorreta, Leioa, Mendaro, Ordizia, Portugaletxe, Santurtzi, Sestao, Tolosa, Urretxu, Zamudio, Zaratza, Zumaia, Zumarraga eta Zornotza. Guztira 295.000 etxebizitzatara helarazi da zuntza eta 70.000 bezero lortu dagoeneko. Aldi berean, udalerrri horietako 35 industrialde-tara ere iritsi da, sare finkoaz zein LMDS sistemaz.

Zabalkunde-mota honek 2006 urtera arte jarraituko du, 91 udalerritarira iritsi arte (EAEko biztanlegoaren %94). Azken helburua udalerrri horietako biztanle guztietara heltzea da, nahiz eta hasieran, zenbait eragozpen tarteko (auzo urrunak edo udal-baimenik eza), %90i baino ez se-guratu. Beraz, biztanlego guztiaren %94en %90... %84,6k zuntz optikozko kablea izango du etxe-atarian lau urte barru.

Zuntz optikoaren harrera onaz ohartzeko adierazgarri da jakitea Euskaltelen bezeroen %14 zuntzaz baliatzen direla dagoeneko Interneten sartzeko, gainerako operatzaile guztien artean ADSLz baliatzen direnak %4 baino ez diren bitartean.

Zuntz optikoaren zabalkunde honek 778 milioi euroko inbertsioak xahutu ditu azken sei urteotan (1997-2002), eta hurrengo hiru urteetan (2003-2005) beste 300 milioi eraldi beharko ditu.

Herri txikietarainoko hedapena

Eustaten datuen arabera 158 dira —Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan— 5.000 biztanletik beherako udalerrriak eta,

beraz, lehen ekinaldiaren zabalkunde-egitasmoan Euskaltelek kontuan hartuko ez dituenak. Udalerrri txiki hauen soslai estatistikoa honako hau da:

- Oro har 132.067 biztanle, EAEko hiritargoaren %6,3.
- Udalerrri hauetan dauden etxebizitzak, hutsik direnak tarteko, 41.828 (%5,9).
- Eraikuntzako etxebizitza-ratioa 1,3 da, lehen zabal-kundeko udalerrietan 6,2 den bitartean.
- Hutsik dauden etxebizitzak %36,1 dira, zabalkunde-esparruetan %15,1 diren artean.

Lehen zabalkunde-planean Euskaltelek ez du, oraingoz, 5.000 biztanletik beherako herri txikietaraino heltzeko asmorik. Ez behintzat udalerrri handien eskabidea estaldu arte. Udalerrri txikien eskakizun urria, gaur egungo teknologien garestitasuna eta edozein egitasmo komertzial darion errentagarritasuna direla-eta, ez du 2007 urtera arte ezertan hasteko xederik.

Dena den, bada salbuespen ezagunik, Debagoiena kasu, non Jaurlearitzak, Mankomunitateak eta Euskaltelek eskualde mailako esperientzia pilotua bertan egitea erabaki zutenetik, Aramaio, Elgeta eta Gatzaga udalerriek —behar beste biztanlerik ez izan eta ertzean kokatuak egon arren— ez baitute 2007 urtera arte zain egon beharko, kablea ez zaie-eta lurpeko hodiz helaraziko LMDS irradaz baizik.

Baserri eta nekazari-eremua

Mugatua eta baldintzapetua bada ere, etekina gogotan izan behar duen enpresak egiterik ez duena Administrazio Publikoak egin dezake. Eusko Jaurlearitzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailak burutu du egitarau aproposa, hain zuzen ere Bruselan eredutzat hartua izan dena.

Egitasmoa 2001 urtean hasi zen, hiru urte barru nekazari-eremuan bizi diren 40.000 baserritarri zerbitzua eskaini gurarik. Dagoeneko 25 dira indarrean jarritako esperientziak, tokian tokiko baldintzei ondoen egokitzen zaizkien teknologiez baliatuz. Esate baterako:

- Satelitez (seinalea satelitez jasotzeko sistema arrunta): Lapuebla de Labarca, Artzentales, Garaia, Zigoitia, Ataun, Galdames, Zeanuri eta Gaztelun.

- Joan-etorriko satelitez (seinalea satelitez jaso ez ezik, baita bidali ere): Lantaron, Arespalditza, Lastur, Beasain, Bidegoian, Errezil, Zeberio, Kuartango, Oñati, Garrantza eta Morgan.

- LMDS sistemaz (Local Multipoint Distribution System: kablerik gabeko kablea, hau da, seinalea lurrez eraman beharrian, irradaz): Arkauten eta Gomiztegin.

- Wi-Fi sistemaz (Wireless Fidelity: LMDSren pareko baina distantzia laburretan zein eraikuntza-barruan): Izarra, Zeanuri eta Errezilen.

Zenbait kasutan, bertako ikastolari zerbitzuak eskaini nahirik, Lapuebla de Labarcan kasu, eta beste hainbatean, berriz, han-hemenkako premia larriei erantzun beharrien beharrez. Esate baterako, edozenbat borda eta txabolatan premiazkoena ez da segurutik ordenadorea, oinarri-oinarritzko telealarma-sistemaren bat edo beste baizik.

Zabalkundea egiterako orduan hodi hirukoitza planteatzen da gainera, behin ildo jarritz gero argindarra, gas naturala (edo propanoa) eta zuntz optikoa aldi berean bideratu ahal izateko.


Alegiazko eta egiazko errealitatea

Aurreko alean (*Jakin* 134, urt a mila-otsaila 2003), alegiazko eta egiazko errealitateari buruzko hiruzpalau autu-mautu bildu nituen «Telepolis» sail honetan. Nekez nenkikeen, o rdea, alea kaleratu orduko alegiazko eta egiazko errealitatearen inguruko beste adibide on bat ezagutu ahal izango genuela aldizkari honen zuzendariaren bizkar.

Gertatua gertatu, ez da erraz jakitea zein irudi harnezakeen alegiazko eta egiazko errealitatearen esanguratsua gogatat: Joan Mari Torrealdaik gaizkile donge gisa poli-ziak zeramala telebistak eskaini zuena, haren emazteak gertatuaz irratiz eman zituen azalpen zehatzak (zein deskripzio adierazgarri eta objektiboa, hain une gogorrean!)

ala RNEren elkarrizketaz Joan Mariren lehengusinek eginga dako salaketak.

Balorazio handitan sartzeke, zalantzarik ez gero gure gizarte honek orain baino une larri eta estuagoak dezente asko ezagutu izan dituela aurretik, baina beharbada inoiz gutxitan bizi izan du gaur egun bezainbateko nahasmendurik. Oker nahiz zuzen, gutxi zein asko, ñabardura batez edo bestez, beti jakin izan dugu zer den diktadura eta zer demokrazia, zer absolutismoa eta zer zuzenbidezko estatua, zein den botere poliziala eta zein judiziala... Azken bolada honetan, ordea, nahaspila sekulakoa da alegiazko eta egiazko errealitateen arteko ziburuan.¶



JAKiN

Tolosa hiribidea, 103-1.C
20018 DONOSTIA
Tel. 943.21.80.92
Fax. 943.21.82.07
jakin@jakingunea.com